










LEZO 20







«Lezo» 20
2000ko maiatza

Azalaren egilea: Jabier Satrustegiren bilduma

Fotokonposaketa eta Inprimaketa:

antza s.a.l. • Zirkuitu Ibilbidea, 2
20160 Lasarte-Oria

— AURKIBIDEA —

HITZAURREA	5
------------------	---

HISTORIA

- Lezo frantses eta espainolen arteko gerretan
JOSEBA AURKENERENA 7
- En las navidades de 1977: El derribo de las casas de Alzate-Berri
y la recuperación del Batzoki por el P.N.V.
RAFA BANDRES 12

GIZARTEA

- 15 urte kartzelan
LEZOKO SENIDEAK ETA AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK 15
- Emiliano Viaña "Tabikes"... Ongi etorri!
RAFA BANDRES 24

KULTURA

- Murixka Dantza Taldea, herrian eta herritik kanpora ere bai.
MURIXKA DANTZA TALDEA 27
- Los gigantes de Lezo cumplieron "Bodas de Plata" en los Santakrutz 1999
RAFA BANDRES 29
- Hartzaren neguloa eta euskal ihauteria
J. ZABARREKO 33
- 1967 - 1999 arteko jai-egitarauen bilduma
JOSE LUIS EGIA 37

SAIAKERA

- Lezoko Toponimia (IV)
LANDER ZURUTUZA 51
- Iparraldeko kronikak (1) Sarako leizean
JOSEBA AURKENERENA 57
- Inguruko toponimiaz zenbait burutazio
JOXE LUIX AGIRRETXE 61

LITERATURA


- Kopla zaharrak
AGUSTINA PONTESTA 65
- Zabarre eta begibakar kapitainak
IRANDATZ AURKENERENA ARBELAITZ 67
- HAUR ETA GAZTETXOEN LITERATUR LEHIAKETA 1999
LEZOKO UDAL LIBURUTEGIA 68
VI. JON GARBIZU OLERKI SARIAK 1999
 - “Urte berriari” IRAITZ UGALDE PIKABEA 69
 - “Ametsetan” GARAZI UGALDE PIKABEA 69
 - “Izarrez izar” LUZIA ARANBURU DE LACAL 70*VI. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK 1999*
 - “Amaia eta lore magikoa” MELANIE SCHROERS GEZALA 70
 - “Neskamearen diarioa” UNAI ARTEAGA TABERNA 71
 - “Martera goaz” MADDALEN DORRONSORO AMIANO 72
- Frantxixku Lizarazuren oroimenez
AGUSTINA PONTESTA 74
- Elearen iraultza
LANDER ZURUTUZA 76
- Udaberria
MARI CRUZ GARMENDIA UGARTE 77
- Antton Abbadiari buruzko hitzaldia
PATRI URKIZU / AGUSTINA PONTESTA 78
- Bertso-afaria (99-V-7)
JOXE LUIX AGIRRETXE / AGUSTINA PONTESTA 84
- Andreoneko planua
JOSEBA AURKENERENA 100
- Patxillabordako Juan Joxe
JOSEBA 109
- Arriaundiko Juan Joxe Lizasoren oroimenez
JOXE LUIX AGIRRETXE 110
- LEZOKO ALDIZKARIA 1988 - 2000 (KATALOGOA)
AGUSTINA PONTESTA 111

HITZAURREA

Hemen gaituzue beste urte batez ere zuekin, Pazkoatako jaietako hitzordura garaiz ailegatu da LEZO aldizkari mardul hau. Zenbaki hau ordean, hamabi urteko aldi luze eta oparo bati bukaera emango diona da. 1988ko Santakruzetan Kultura Batzordearen babesean abiatu zen egitasmoak honekintxe du beraz bukaera. Hogei zenbaki joan dira geroztik, denak ere mardul eta mamitsuak, herritarren kezka eta sorkuntza nahiaren ispilu garbi. Ehundaka lan eta dozenaka idazle edo izkiriatazaille azalarazi dituen "plazatxo" izan da aldizkari hau. Hogei zenbaki atzera begiratu bat egiteko moduko kopurua eta ondarea iruditu zaigu, eta orain erredakzio taldean gaudenok hamabi urteko aldi honi bukaera ematea erabaki dugu. Egitasmoak berak berrazterketa baten premia badu, izan ere, aldi honetan herriko aldizkarigintzak urrats sendoak eman ditu eta gure iritziz bakoitzak duen betebeharra eta papera berkokatu behar dira.

Ezin jakin, ordean, hausnarketa horretatik zer aterako den, ezin jakin aldizkari berririk edo lehengoa berriturik edo deus sortuko den, hala ere, jakin ezazue lezoar maiteok, gogobetekoa izan dela aldizkari honek egin duen ibilbidea. Erabaki hau herriko aldizkarigintzaren eta kulturaren onerako hartu dugula sinetsita gaude horratik. Era guzitara ere, dasta ezazue LEZO 20 honek dakarren karga oparoa. Izan ongi! Ayo.

Lezo Aldizkariaren Erredakzio Batzordea



“LEZO FRANTSES ETA ESPAINOLEN ARTEKO GERRETAN”


Lezo beti egon da frantses eta espainolen interesen arteko borroka-eremuan. 1476an, esate baterako, frantsesek Oiartzun, Errenteria eta Lezo erre zituzten, eta zenbait urte beranduago, Frantziako Louis XII.aren garaietan, iheska zihoan Borbon-go Dukeak suntsiketa berria egin zuen Lezoko etxeak eta baserriak errez. XVI. mendean egoera izugarri korapilatu zen, Espainiak Nafarroa konkistatzeko antolatutako gerra sutsu eta ankerren ondorioz. Lezo Hondarribiko auzoa zen, eta Hondarribiaren inguruan gertatutako istilu guztietan murgildu behar izan zen.

1.- Espainia eta Nafarroa aurrez aurre

Aspaldian zebiltzan Espainiako errege faltsarioak (Aragoiko Fernando eta Gaztelako Isabel) aitzaki baten bila Nafarroa konkistatu ahal izateko. Hortarako, Aragoiko Fernandok tratadu bat faltsifikatu zuen eta ondoren bula bat, Nafarroari eraso ahal izateko. Azkenean ustekabean eta gerra-deklaraziorik gabe, espainiar armada Burundatik sartu zen Nafarroako Erresuman. Hori izan zen 1512ko uztailaren 12an. Gerrak 1527 arte iraun zuen, eta denboraldi horretan, ofentsibak eta kontraofentsibak gertatu ziren. Nafarroako Enrike IIak Frantziako errege zen Frantzisko I.aren arreba batekin ezkondu zen, eta honek la frantsesen laguntza lortu zuen bere erresuma inbaditzaile espainiarren atzaparretatik askatzeko. 1521. urtean Enrike II.aren armadak Donibane Garazi libratu zuen, eta Erronkaritik sartuz Nafarroa osoa gero.



Lezori betidanik egokitu zaio potentzia arrotzen arteko liskarrak sufritu beharra.



1521eko irailaren bukaera aldean, Nafarroako armada askatzaileak Behobiatik Bidasoa ibaia igaro eta bonbardaketa baten ondoren Hondarribia askatu zuen.

Zoritxarrez, 1521ko ekainaren 30ean, nafar armadak ikaragarritzko porrota eduki zuen Noainen, 6.000 nafar gerlari bertako zelaietan hilik utzirik. Dena den, nafarrek ez zuten etsi, eta ezkontzen bitartez senide zituzten Frantziako erregeen laguntzaren bidez, beste zenbait saio egin zituzten Nafarroa askatzeko eta bertatik okupatzaileak bidaltzeko. Horietako saio batean kokatu beharra daukagu 1521eko irailaren bukaera aldean Bidasoaldean gertatutakoa. Nafarroako armada askatzaileak Behobiatik Bidasoa ibaia igaro eta bonbardaketa baten ondoren, Diego de Vera alkaide espainiarrak defendatutako Hondarribia hiria askatu zuen. 1524 urte arte nafar bandera zintzilik egon zen harrotasunez Nafarroako gazteluan.

Hondarribia barruan baziren hondarribiar leialak (eta beraien artean lezoar franko ere, segur aski), baina espainolen aldeko 500 eta 800 hondarribiar inguru, Lezora etorri ziren iheska, bertan nagusitu ondoren euren udaletxe hondarribiarra lezoar lurretan antolatzeko. Joan Pérez Azkue alkatea buru zeukaten eta berarekin batera Santxo Alkiza alfereza. Gizon hauek, eta Lezon zituzten aldekoak izan ziren 1522ko ekainaren 30ean Aldabe mendian, San Martzialeko gataskan espainiarrei laguntzen, nafar-frantses armadaren aurka parte hartu zuten gipuzkoarretatik batzuk.

1523ko irailaren 6an, Iñigo Fernández de Velasco kondestable espainiarra Hondarribiko harresietara iritsi zen, berarekin batera 24.000 soldadu ekarriz. Euren lehen

lana, inguruko lapurtar, nafar eta gipuzkoar herriak lapurtzea eta erretzea izan zelarik. Hondarribiko defendatzaileak gutxi ziren: nafarrak gehienak, Hondarribiko (eta Lezoko) –garai hartan Hondarribiko auzoa baitzen– seme leialak eta frantses tropa laguntzaileak. Beraien buru Nafarroako Pedro mariskal (Nafarroako Erresuman zen gudaburu nagusia) zegoen eta berarekin batera Xabierreko San Frantziskoren anaiak, aberriaren askatasuna defendatzeko prest. Hesitze luze baten ondorioz, 1524ko martxoaren 25ean Nafarroako mariskalak amore eman behar izan zuen eta espainiarrak, berriro ere, Hondarribiaz nagusitu ziren. Hondarribia libre izan zen nafar-frantses armadaren azpian: bi urte, bost hilabete eta zazpi egun. Hondarribiaren hesitzeak iraun zuen bitartean baziren hondarribiarrak (eta lezoarrak) bi aldeetan, gaztelu barruan nafar anaiekin batera, eta kanpo aldean espainol arrotzekin. Ohore nafar abertzaleei! Lezon babesturik zeuden Joan Pérez de Azkue eta Santxo Alkiza hondarribiar espainolzaileak eta bere gizonak ez ziren Hondarribira itzuli, espainiar armadak hiria berriro okupatu zuen arte.

2.- Espainia eta Frantziaren arteko bestelako gerrak

Pixkanaka-pixkanaka gaur Euskal Herria bitan banatzen duten estatu arrotzak indartu egin ziren, eta beraien arteko tirabirak eta istiluak askotan euskal lurretan jokatu zituzten. Gerra hauen ondorioz herriak izugarri sufritu zuen, eta baserri eta etxe asko birrindu edo erre zituzten. Honela gertatu zitzaion, esate baterako, Lezoko Joan Nuñezi, frantsesek etxea erre baitzioten, eta gauza bera egin zieten Abendaño eta Oihaniletako jaunei.

1638ko uztailaren lehen egunetan, Condé printze-mariskal frantsesaren tropek Lezo hartu zuten, eta bertan egon ziren espainiar tropak abuztuaren erdi aldean iritsi ziren arte. Bai batzuek, eta bai besteek birrindu, suntsitu eta lapurtu egin zuten Lezon eta bailara osoan. XVIII. mendean, tropa frantsesak hasieran, eta gero espainiarrak eta beraien alde etorritako ingelesak herriaz nagusitu ziren, afusilaketak errekisak eta suntsiketak eraginez.




Lezoarrek., beste euskaldunen antzera, askotan jo behar izan dute mendi aldera.

1719ko maiatzean, Espainiako suzesio-gerra zela eta, Berwick ingeles dukearen agindupean frantses gudaroste batek Bidasoa ibaia igaro zuen eta egun gutxi barru Hondarribia inguratu. Lezotik hurbil zirela eta, lezoarrak aurre egiteko prestatu ziren. Lezoko Artxibategi historikoan dagoen dokumentu batean irakur dezakegunez lau kapitain, Salvador Elizondo, Migel Aginaga, Gregorio Lasarte eta Pedro Arrieta, hogeita hiru soldadu armatu eta armari gabeko beste hogeita hamar bat gizon izan ziren mobilizatu zirenak. (Hauen izen-abizenak Lezoko artxiboan daude. Ikusi Karlos Etxezurietaren "Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa" izeneko liburua-ren 41 eta 42 orrietan, zerrenda osoa azaltzen baita).

Gudate honi buruz, eta Lezori dagokionez, ez dugu datu gehiago, baina jakin bada-kigu, Lezon sartzean, frantsesek kalte handiak sortarazi zituztela. Frantzisko Gaintza lezoar ilustrearen testamentuan irakur daitekeenez, frantsesek berea zen harizti bat moztu zuten. Eta badirudi zuhaitzi gehiago moztu zituztela Lezoko lurretan.

1808. urtean frantsesak Espainiako nagusiak bihurtu ziren. Napoleonek ez zuen Hego Euskal Herriaren aurkako joera handirik izan. Hau dela eta, euskaldun asko bere aldekoak izan ziren. Lezon badirudi, denetarik bazirela, aldekoak eta aurkakoak. 1809ko urriaren 26an, Napoleonen anaia zen Jose I.aren gobernutik gutun bat bidali zuten Lezora frantsesen aurka borrokatutako lezoarrentzako indultua eskeiniz, eta mendietan borrokan segitzen zutenentzako heriotz-zigorraz mehatxatuz.



Honela irudikatu du Lander Zurutuza lezoarrak 1811ko uztai laren 7ko gau aldean Lezoko alkatea (ezkerran) eta Plazido Urrestarazu (eskuinean) arrantzalearen artean gertatutako liskarra.

1811ko uztialaren 7an, gau aldean, espainiar infanteria eta zalditeriaren brigante batzuk Lezon sartu ziren, zaldiak, alkandorak, ogia, haragia eta ardoa eskatuz. Herriko alkateak ezetza eman zien, eta orduan briganteak, alkatea preso harturik, plazan zegoen taberna batera sartu ziren, bertan harrapatzen zuten guztia (jakiak, edariak, jazkiak eta zaldiak) beraiantzako errequisatuz. Alkatea eta guzti, tabernan zeudelarik, Plazido Urrestarazu eta Santos Ansorena arrantzale lezoarrak, zeharo mozkorturik, bertara sartu ziren. Han, briganteekin batera, dantzan eta kantuan aritu omen ziren, eta ezagutzen ez dugun motiboa dela eta, Urrestarazuk zaplastako galanta eman omen zion alkateari. Pasaiatik tropa frantsesak iritsi zirenerako briganteak alde eginak ziren. Baina Ansorena, Urrestarazu eta azken honen anaia bat eraman omen zituzten preso. (Pasadizo honen berri zehatzagoa nahi izanez gero, irakur ezazue Lander Zurutuzaren "Frantsesak, briganteak eta Placido de Urrestarazuren mozkorraldia" izeneko artikulua Aske - 1/7 or. edota Lezo - 7 12 or.).

Garai gorriak izan ziren XIX. mendeko gerrateen ondorioz lezoarrek jasan behar izan zituztenak. Lezoar asko miseria gorrian gelditu ziren. Olazuriaga (Gaur Errikoetxe) baserria hipotekatua izan zen. 1815ean Napoleonen kontrako gerra amaitu zenean, urte oso batez zenbait konpainia espainol herrian akantonaturik gelditu ziren. Osora 17 konpainia, 2.226 gizon alegia. Sortutako mantenu-gastuak zirela eta Espainiako gobernuak Lezoko udalari 3.384 erreale ordaindu behar izan zizkion. Hau izan zen Frantziak eta Espainiak gure bailaran eta euren interesak defendatuz jokaturiko azken gerra. Baina zoritxarrak eta gerla-ekintzak ez ziren hemen bukatu, gero karlistada odoltsuak etorri baitziren. Baina hau bestelako ixtorioa izango da.

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

Erabilitako bibliografia:

- 1.- LEANDRO SILVAN.- "Lezo" Donostiako Kutxa. 1970
- 2.- ETXEZURIETA, KARLOS.- "Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa" 1984
- 3.- LEZOKO ARTXIBO HISTORIKOA.
- 4.- ZURUTUZA, LANDER.- "Frantsesak, briganteak eta Placido de Urrestarazuren mozkorraldia" Aske - 1 1985 • Lezo - 7 / 1991ko iraila

EN LAS NAVIDADES DE 1977: EL DERRIBO DE LAS CASAS DE ALZATE-BERRI Y LA RECUPERACION DEL BATZOKI POR EL P.N.V.

Entre mis comentarios de prensa de 1977, nos hemos encontrado con la copia de uno de ellos de fecha 25 de diciembre de 1977 que por su interés histórico para Lezo y los lezotarras copiamos a continuación, y era el siguiente:

“Dos noticias importantes de Lezo, en estas Navidades”

El comentario durante estas fiestas de navidad, por los residentes en Lezo, y, por los muchos lezotarras, que habitando fuera de la Universidad de Lezo, se han acercado a su txoko de origen, para fecilitar las pascuas y desear un próspero año nuevo a sus familiares, ha sido muy comentado el derribo de las casas de Alzate-Berri, que eran algo así como la antesala de Lezo, situadas nada más pasar el puente del ferrocarril entre Lezo y Rentería... Estas casas tendrían aproximadamente unos ciento cincuenta años de existencia, y, pertenecían en propiedad a la familia Bagüés, de Rentería...

Para lezotarras y renterianos hablar de ellas es como hablar del corazón de una institución, esas casas sirvieron de refugio y albergue, por la caridad de sus habitantes, por ejemplo, en 1933, concretamente por relatar un suceso, en las mayores dos riadas sufridas por Rentería, de cobijar circunstancialmente, a muchos renterianos, que por trabajar en Lezo, no pudieron pasar a sus casas de Rentería, y, a otros, que por trabajar en zonas que no fueron inundadas, se vieron obligados a acudir a Lezo a comer y luego a dormir, en estas casas de Alzate-Berri, tuvieron su acogida... entre ellos podemos contar a los ferroviarios del NORTE, de la Estación de la actual RENFE o que venían por el tren y no podían pasar por Casas Nuevas a sus domicilios del centro de Rentería... Habría habido otras situaciones, pero por nombrar algo que fue bastante duro, como lo fueron aquellas dos riadas de Junio y Octubre de 1933...

Estas viviendas contaban con seis viviendas, y, bajos, donde en un lado estaba la famosa tienda de ultramarinos de Saturnino Lobato, y, al otro lado, una especie de cuadra o almacén, donde los vecinos guardaban gallinas, pollos, etc... que era muy corriente en la época del hambre, al menos en la postguerra los años cuarenta especialmente... raro era el balcón donde no se cebara un pollo, si no había para casi comer y estábamos a racionamiento, se decía que se les alimentaba con las sobras de la comida, pero así debía de ser... que escandalizaban durante sus meses de cautiverio, para dejar un silencio muy respetable, una vez pasadas las navidades, o, las fiestas patronales...

Estas viviendas, quedaron deshabitadas ya hace unos cinco años, entrando en ellas desde entonces varias familias de raza gitana que las han habitado en malas condiciones hasta, como aquel que dice, su derribo, que ha sido precisamente el pasado día 23 de diciembre, viernes de 1977, la víspera de nochebuena.

Eran un tapón, actualmente, que dificultaban las curvas de dos direcciones, la de San Juan y la de Altamira, provocándose con tal motivo varios accidentes de tráfico... con este derribo, la visibilidad es más amplia, y, ese peligro de momento parece haber desaparecido... ya que frente a dónde estuvieron estas viviendas, las casas de Alzate-Berri, viene un avanzado proyecto de accesos al Puerto de Lezo, hoy en día, de una gran actividad e importancia, que aportan ciertos beneficios a la pequeña Universidad de Lezo...

El derribo de estas casas de Alzate-Berri, ha sido recibido con cierta nostalgia, tanto para los lezotarras, como por los renterianos, pues no dejaba de ser un baluarte entre ambas localidades... y, sus habitantes en tiempos y situaciones difíciles, supieron portarse como buenos samaritanos... Por eso, evocamos aquí, el adiós unánime a su derribo, que acaba con unas viviendas, que han formado parte de una historia y de un recuerdo de épocas que ya no volverán... Las riadas, los disparos en unas fiestas de Lezo, con una señora herida, etc...

– Y, ya, en Lezo, otra noticia, se nos echó encima, y, era, que el antiguo piso que ocupó el Batzoki, desde 1931, hasta 1936, por el Partido Nacionalista Vasco, había vuelto a ser ocupado por dicho partido en fechas recientes. Este local había sido utilizado desde 1936, por otros servicios del régimen franquista, y, su llave la tenía el actual alcalde Sr. Diego, al cual se la había pedido en repetidas ocasiones, y, última-mente pedida por un miembro del Partido Nacionalista Vasco, Hillari Retenaga, le fue entregada, y, desde hace muy pocos días, está puesta la ikurriña en el balcón de dicha vivienda, de la calle San Juan nº 8 - 1º, y, se está procediendo a dejarlo en buenas condiciones dicho local, que se recibió hecho un desastre, y, una vez adecentado, se procederá a su reinauguración el próximo mes de Enero...


Y, para terminar nuestra interesante visita a Lezo podemos añadir, que, en los arku-
pes del Ayuntamiento lezotarra, esta instalado un belén viviente con personas y ani-
males, así como productos de nuestras huertas... que nos ha parecido maravilloso..."

Esto es cuanto decía en mi comentario de aquel domingo 25 de diciembre de 1977, lugar que hoy con la rotonda y la autovía realizada y en lo que se ha convertido ALTA-MIRA y el proyecto que querían para el Puerto es posible que no coincidan con aquel otro planteamiento, pero, sirva como recuerdo para unos y para otros saber que allí hubo un rincón simpático donde habitaban unos lezotarras en una avanzadilla hacia Rentería... y solo han pasado 22 años desde entonces a hoy MAYO del año 2000.

RAFA BANDRÉS

15 URTE KARTZELAN

- Urte asko irudituzén al zaizkizu 15 urte?
- Zer egin duzu azken 15 urtetan?
- Nolakoa zinen duela 15 urte?
- Nolakoa zara 15 urte eta gero?
- Nola pentsatzen zenuen duela 15 urte?
- Nola pentsatzen duzu 15 urte eta gero?



Imajinatzen al duzu zure burua azken 15 urte hauetan kartzelan egon behar izanda?

Eta dena herri oso baten eskubideen alde borroka egiteagatik; horixe izan da gure senide Jabi eta Ramonek azken 15 urte hauek kartzelan pasa behar izatearen arrazoia. Gu guztiok gure etxean libre bizitzeko beren bizitzako azken 15 urte hauek Espainiako kartzeletako kalabozoetan pasa dituzte, guk berriz, aske bizi garela uste badugu ere, oker gaude, ez baikara libre izango harik eta Jabi eta Ramon beste errepresaliatu politiko guztiekin batera gurekin etxean izan arte.

Jarraian Jabi eta Ramonek urte hauetan guztietan sufritu behar izan dutena ikus dezakezue. Errepresioak Euskal Herrian eman dituen zartakoetako batzuk ere aipatuko dizkizuegu.



Jabi Garmendia



Ramon Zabaleta

1984	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Abenduaren 3an Guardia Zibilak atxilotu zuen. 8 egun pasa zituen inkomunikatua eta torturatu egin zuten. Carabanchelen sartu zuten "Audiencia Nacional"etik pasa ondoren • Hilabete berean Alcala-Meco-ko espetxera trasladatua izan zen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Abenduaren 3an Guardia Zibilak atxilotu zuen. 8 egun pasa zituen inkomunikatua eta torturatu egin zuten. Carabanchelen sartu zuten "Audiencia Nacional"etik pasa ondoren. • Hilabete berean Alcala-Mecoko espetxera trasladatua izan zen.
<p>ERREPRESIOA URTE HORRETAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Seguritate goreneko gartzelen garaia hasi zen. Gizonezkoak Herrera de la Manchakoan bildu zituzten eta emakumezkoak, berriz, Carabanchelekoan. • Herrera de la Manchako kartzelan hamar hilabeteko itxialdia burutu zuten (24 orduz ziegatik atera gabe). • "Herrerako Martxa" lehen aldiz egin zen. • 1879 abertzale atxilotu zituzten urtean zehar. • Otsailaren 8an GALEk Bixente Perurena eta Angel Gurmindu hil zituen. 	
1985	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Herrera de la Manchako kartzelara trasladatua izan zen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Herrera de la Manchako kartzelara trasladatua izan zen.
<p>ERREPRESIOA URTE HORRETAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azaroaren 26an Mikel Zabalza atxilotu zuten, handik 20 egunera Bidasoa ibiaian azaldu zen bere gorpua. • Jose Ramon Goikoetxea hilik azaldu zen Alcala-Mecoko espetxean (lepotik zintzilikatua eta lepoan labainkada bat zuela). • Puertoko espetxean hiru gose greba burutu ziren urte honetan. • Marivi eta Manolo atxilotu zituzten Lezon. 	

1986

JABI

- Gose greba egin zuen

RAMON

- Gose greba egin zuen

ERREPRESIOA URTE HORRETAN:

- Uztailan Herrera de la Manchán zeuden 80 preso zigor zeldetan sartu zituzten.
- Abuztuan beste 35 preso egoera berean.
- "Herrerako Martxak" 6.000 pertsona bildu zituen.
- Ekainaren 8an Joseba Asensio hilik azaldu zen Herrera de la Manchako espetxean.
- Presoek hiru gose greba egin zituzten.
- Gobernu Frantziarrak errefuxiatuen Espainaratzea areagotu zuen bapateko entregean bidez.
- Produktu frantsesen kontrako boikota deitu zuten A.A.B.ek.

1987

JABI

- Gertaera latzak bizi izan zituen Herrera de la Manchako kartzelan

RAMON

- Funtzionario eta guardia zibilaren jarrera oso bortitza zen arren presoek gogor eta tinko erantzun zieten jarrera hauei

ERREPRESIOA URTE HORRETAN:

- Kolektiboaren barraiatzea hasi zen, sakabanaketaren lehen faseari hasiera eman zion Espainiako gobernuak.
- Politika hau Enrique Mujika Herzogek (PSOE) jarri zuen martxan hau eta PNV/EAJren sostengu osoa izan zuen.
- "Sakabanaketak euskal preso politikoen damutzea zuen helburu eta gure bergizarteratze soziala. Gu barruan egotearen arrazoiak motibazio politikoetan oinarriturik daude". (BARRUTIK 4. zenbakia)
- Maiatzean Josu Retolaza preso hil zen, gartzelan sortu zitzaion azal-minbizi batek jota.
- Urte honetan 141 entrega burutu zituen Frantziak.
- Polizia Nacionalak TABIKES atxilotu zuen.

1988	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Urrian Burgosera trasladatu zuten. • Gose greba egin zuen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Caceres leko espetxera trasladatu zuten. • Gose greba egin zuen.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN ETA ESPETXEAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sakabanaketak jarraitzen dira etengabe estatu guztiko gartzelatarara. • Mikel Lopetegi hilik azaltzen da Herrerako espetxean. • Hiru hilabete beranduago Juan Carlos Alberdi hiltzen da Herrerako espetxean bihotzekoak jota. • Mikel Arrastiak bere burua hil zuen Guardia Zibilaren eskuetan ez erortzeagatik. • ETAk Revilla 8 hilabetez bahitzen du. • Ertzaintzak gogor erasotzen du hiriburuetako jaietan bandera espainola defendatuz. • Lezoko trafikanteak herritik bidaltzen ditu Lezoko herriak 	

1989	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Azaroan Granadara trasladatu zuten. Burgosetik Granadara trasladua izan zenean 15 egun egon zen desagertua familiak non zegoen jakin gabe. • Urte honetan gose greba bat burutu zuen Kolektibo osoarekin batera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ramonek gose greba egin zuen Kolektibo osoarekin batera.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Espainiar gobernuak dispertsio politika orokortzea erabaki zuen. • "Instituciones Penitenciarias"-ek kanpoko medikuen bisitak galarazi zituen. • Funtzionarioek ere preso kontrako jarrerak gogortu zituzten. • Abuztuan 500 preso baino gehiagok 90 kartzeletan itxialdia hasi zuten. • Argelen ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketak hasi ziren. 	

1990

JABI

- Lagunen bisitak ukatu zizkieten, honek senideak bidai asko egitera behartu zituen. (Pertsona bakoitzeko 20.000 pzta behar dira Granadara joanetorria egiteko)

RAMON

- 23 ordu zeldetan pasatzen zituen eta patioan ordu bete bakarrik egon zitekeen.
- Senideen bisitak bakarrik onartzen zizkieten.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:

- Sakabanaketak gartzela barrura zabaldu zuten presoak modulo esberdinetan banatuz eta ondorioz beraien arteko komunikazioa oztopatuz. Honek isolamendua eta indefentsio egoera areagotu zituen.
- Kartzeletan jipoiak, mehatxuak, irainak eta txantaiak eguneroko ohitura ziren.
- Otsailan A.A.B.ek deitutako manifa nazionalean milaka pertsona bildu ziren.
- Ekainean "Ttipi-Ttapa", amnistiaren aldeko mugimenduaren martxa nazionala egin zen.
- Abenduan 150 herri baino gehiagotan itxialdiak egin ziren.
- "Herrerako Martxa"n 12.000 lagun bildu ziren.
- Maiatzean Jose Manuel Sevillano GRAPOko preso hil zen 117 egunez gose greban egon ondoren.
- Mikel Zalakain euskal preso politikoa Martutenen hil zen mediku asistentzia ezagaitik.

1991

JABI

- Urriaren 8an hasita aste beteko gose greba egin zuen.
- Abenduaren 8an hasita aste beteko gose greba egin zuen.

RAMON

- Urriaren 14an hasita aste beteko gose greba egin zuen.
- Urte bukaeran beste aste beteko gose greba egin zuen.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:

- Espetxeetan egoera gogortu egin zen: posta interberritu, bisitak galarazi, zelda eta moduloen aldaketa amaigabeak eta jarrera pertsonala baldintzatzeko zigorra eta sarien arteko filosofia ezarri zituzten.
- Presoen Kolektiboak hilaren 30ean gose greba hasi zuen espetxe guztietan era kordinatuan. Abenduaren 7tik 14ra denek batera burutu zuten gose greba.
- Jean Groix militante Bretoia Fresneseko espetxean hilik azaldu zen. Euskal errefuxiatuei laguntzeagatik atxilotu zuten.
- Juan Carlos Monteagudo eta Jon Erezuma hil zituen Guardia Zibilak Bartzelonako Llica d'Amunt herrian.
- Urrian "SENIDEAK" SORTU ZEN. Preso eta errefuxiatuen senideen elkartea.

1992	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Urte honetan berriro trasladatua zuten. Oraingo honetan Ocaña II (toledo) kartzelara. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aldi batez 10 minutuko bisitak bakarrik izan zituen, eta gainera hamabost egunean behin.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Salto del Negro espetxean euskal presoak 42 eguneko gose greba egin zuten. Presoen egoera oso larria izatera iritsi zen. • Martxoaren 16tik apirilaren 23ra Ceutako presoek gose greba egin zuten, espetxeko zuzendaritzarekin akordioa lortu arte. • Apirilaren 24an, eta zuzendariarekin onartuko akordioa ez betetzeagatik, berriro ere gose greba hasi zuten. Oraingoan 38 egun iraun zuten. • Iñaki de Juana Chaosek sei hilabetetan bost gose greba burutu zituen. Egoera fisiko larrian geratu zen. • Ekainean, ehunen bat senidek gose greba bat egin zuten Arantzazun 20 egunez. • Bidarteko atxilotetak egin zituzten. 	
1993	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Ocañan etengabeko modulo aldatketak jasan behar izan zituen. Eguneroko erritmoa apurtzeaz gain, zelda berriaren garbiketa egin behar zuten eta bisiten eguna ere aldatu zioten 	<ul style="list-style-type: none"> • Dispertsioaren krudeltsuna ezagutu zuen. Kartzela barruan ere banaka jarri zituzten eta beraien artean ere ezin zuten ez elkar ikusi ez hitzegin.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Caceres Ilko presoek 38 eguneko gose greba egin zuten. • Maiatzaren 15ean Pariseko Ospitale batean Pello Mariñela hil zen Fresneseko enfermerian 12 egun koma egoeraren ondoren. • Abuztuaren 20an Juan Calvo Arkauteko Kuartelean hil zuten atxilotu eta ordu batzuetara. • Gurutze lantzi hil arte torturatu zuen Madrilen Guardia Zibilak. • Xabier Kalparsoro, Indautxuko Komisariaren leihotik behera bota eta 20 egunetara hil zen. • Abenduan 658 pertsonak sei eguneko gose greba egin zuten Arantzazun. • Urte honetan 81 eraso fisiko egon ziren, 67 Guardia Zibilenak eta 14 funtzionarioenak. 	

1994

JABI

- Gose greba egin zuen urte honetan. Protesta askatasuna eta eraikuntza nazionalaren alde izan zen.

RAMON

- Gose greba egin zuen kolektibo osoa bezela. Protesta askatasuna eta eraikuntza nazionalaren alde izan zen

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN ETA ESPETXEAN:

- Irailan Euskal Herriko 115 herri baino gehiagotan gose grebak eta mobilizazioak burutu ziren.
- Europako Torturaren Prebentziorako Komiteak, 1991 eta 1994ean espainiar gartzeletan egindako ikustaldien ondoren, presoek beren zigorra jatorrizko lekuan bete beharra, beren inguru sozialean bete behar zutela esan zuen.
- Urrian eta Abenduan Amnistiaren Aldeko Batzordearen izenean manifestazio nazionala burutu ziren.
- Matilde Arribillaga, Andoaingo Xabier presoaren ama hil zen kotxe batek harra-patua, Senideen bilera batera zihoala.

1995

JABI

- Zelda arakatu zioten nahiz eta bera ez egon bertan.
- Gose greban egon zen.

RAMON

- Osasunerako eskubiderik gabe, kanpoko sendagileei ukatu zitzaien presoak atenditzeko eskubidea, ziurtasun neurriak argudiatuz. Mediku asistentzia era honek presoan heriotza eragin izan du.
- Gose greban egon zen.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:

- Maiatzean euskal errefuxiatuek erbesteratze-neurriak apurtu zituzten Euskal Herrira itzuliz.
- Abenduan Donostiako Artzai Oneko Katedralean, barauldi itxialdia hasi zen astez-asteko txandaketekin, honela urte eta erdi iraun zuen.
- Legebiltzarreko bilkurak presoak Euskal Herriratzea eskatu zuen.
- Jabi Gorostiza, ekainean hil zen Basurtuko ospitalean espetxean, sortutako minbizi baten ondorioz.
- Urte honetan hamar eraso fisiko (jipoi) gertatu ziren kartzeletan. Bi Guardia Zibilek eginak eta 8 funtzionarioek...

1996	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Dispertsioaren kontra hamabost eguneko gose greba egin zuen urte honetan. • Dispertsioaren kontrako borrokaren bigarren fasean txapeoak hasi ziren kartzeletan. Jabik ere parte hartu zuen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Dispertsioaren kontra hamabost eguneko gose greba egin zuen urte honetan.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Urtarrilan euskal presoek 15 eguneko txandakako gose greba hasi zuten. • Martxoan txandakako itxialdia edo "txapeoak" hasi zituzten. • Ehun udaletxe baino gehiagok presoak euskalherriratzearen aldeko mozioa onartu zuten. • Deportatu talde batek Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen, deportazioa hautsi zuten. • ELA eta LAB sindikatuek sakabanaketaren amaiera eskatuz Senideak-en idazkia sinatu zuen. 	
1997	
JABI	RAMON
<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa interbenitu egiten zioten: kartak irakurri, bisitak grabatu etabar. • Jabik, beste euskal preso politikoek bezala, ez du intimitaterako aukerarik. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasketak burutzeko zailtasunak izan zituen. Behar zuen materiala berandu iristen zitzaion, batzuetan kurtsoren amaiazen. Euskaraz zuden testoak hiru hilabete behar zuten itzultzeko.
<p>ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskal preso politikoek kolektiboak gose greba mugagabea hasi zuen. A.A.B. eta senideek eskatuta utzi egin zuten. 25 egun gose greba eman eta gero. • Apirilean Borroka Eguna egin zuten espetxe guztietan. • Hemendik aurrera gartzela bakoitzan bere borrokaldiko dinamika propioa antolatzen hasi ziren. • Otsailan 7 pertsonen gose greba mugagabea egin zuten, 40 egunetara ospitale-ramatean amaitu zen. • ETAk espetxetako frentean su-etena aldarrikatu zuen. • Otsailean J.M. Arazmendi "KATXUE" preso bere zeldan zintzilikatua azaldu zen. • Uztailan Juan Carlos (PELI) euskal preso politiko hilik azaldu zen bere zeldan, Albazeteko kartzelan. 	

1998

JABI

RAMON

- Etengabeko protestak egin ziren Ocañako kartzelan, presoek euskal-herriratzea aldarrikatzen zuten kamisetak jantzi zituzten, txapeoak, patioan enkartelatu...

- Bere aitaren osasun egoera txarra dela eta denbora asko zeramaten elkar ikusi gabe. Hori ez zen gertatuko legea bete eta Euskal Herriak ekarriko balute.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:

- Urtarrilean Presoen kolektiboak plantoa egin zuen. Espetxez-espexeko dinamikak aurrera jarraitu zuen.
- Abenduan, lau txandetan banatuta, astebeteko gose grebak egin zituen presoek kolektiboak.
- Ekainean Senideen gose greba Iruñean.
- Espetxeetako Behatoki Internazionalak dispertsio politikoa salatu zuen eta euskal herritarrek jasandako tortura ere bai
- Irailan ETAk bere ihardunbide armatuaren su-eten mugagabea aldarrikatu zuen.
- 210 udaletxe baino gehiagok Senideak-en mozio bat onartu zuten eta Abenduan Senideak-en antolatu zituen mobilizazioetan parte hartu zuten.

1999

JABI

RAMON

- 15. urtea kartzelan dagoela. Abenduan baldintzapeko askatasunaren legean barruan sartu da, ondorioz, eta legea betez gero, kalean egon behar luke.

- 15. urtea kartzelan dagoela. Abenduan baldintzapeko askatasunaren legean barruan sartu da, ondorioz eta legea betez gero, kalean egon behar luke.

ERREPRESIOA EUSKAL HERRIAN:

- Urte hasierarekin espetxeetako dinamika ere martxan jarri da bakoitzak bere protestaldi mota burutzen duelarik.
- Urtarrilean Lizarra-Garazi sinatu zuten taldeek manifa naizonala antolatu zuten.
- Martxoan Zamalbide auzoan Gerestaren gorputza agertu zen, TXAKURREK TIROZ AKATUA.
- 20 presok GOSE GREBA mugagabea hasi dute.

EMILIANO VIAÑA BALDA "TABIKES" !!ONGI ETORRI...!!

El viernes día 10 de septiembre de 1999, a las seis y media de la tarde en el Salón de Plenos o Sala Capitalar del Ayuntamiento de la Universidad de Lezo estaba convocada una sesión de pleno extraordinario y urgente, con dos únicos puntos: Ratificación de la urgencia de la convocatoria el primero y el segundo: Moción presentada por Lezoko Senideak y Gestora Pro-Amnistia de Lezo en relación a la situación del preso lezotarra EMILIANO VIAÑA BALDA.

En la moción se recordaba que Emiliano "Tabikes" fue detenido con 22 años en su domicilio por la policía nacional el 24 de noviembre de 1987, así como el recorrido durante "casi" 12 años por la "dispersión" por las cárceles de Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Puerto de Santa María, Ceuta y Puerto de Santa María, manteniendolo actualmente en Langraitz (Nanclares) a donde le trajeron tras la muerte de su madre el 13 de septiembre de 1998, y, le dejaron.



Emiliano Viaña "Tabikes"

En diciembre de 1996 cumplió las 3/4 partes de su condena. Desde entonces han transcurrido tres años y en julio le concedieron 500 días de redención de pena en la prisión de Ceuta. Por tanto aunque ha cumplido la condena en su totalidad sigue encarcelado. Más aún, pronto se cumplirán 300 días desde que completó el cumplimiento de su condena legal... etc... etc... y se exigía en dicha moción, entre otras cosas, su puesta en libertad y aclarando las razones de tan larga demora en esta situación.

Pero, a primeras horas de la tarde, de ese mismo viernes el Alcalde Aitor Sarasola Salaberria nos comunicaba a los medios locales de información que dicha sesión de pleno extraordinario y urgente quedaba suspendida al conocerse que desde el penal de Langraitz iba a ser puesto en libertad Emiliano Viaña Balda, de 34 años. Como así fue, a las cuatro de la tarde, a donde fueron a esperarle los familiares y algunos amigos, organizándose rápidamente tres improvisados recibimientos, el primero a la entrada de Errenteria a donde llegó a las seis y siete minutos, lanzándose varios cohetes, le bailaron un auresku agurra, le rodearon portando ikurriñas y recibió un ramo de flores, el segundo fue en Lezo en la Sociedad Tiñelu a las seis y media, recibimiento con el auresku de honor, flores, y saludos, muchos saludos, entre ellos del Alcalde Aitor Sarasola, etc... y, el tercero en su barrio de Altamira, cuya Asociación de Vecinos Alzate, eran ya las siete de la tarde, le esperaba en el local social, desconocido para él la nueva construcción actual, lanzándose varios cohetes y una mascletá "muy ruidosa", con la bandera de la Asociación y la ikurriña y una gran pancarta a la entrada del barrio que decía "TABIKES, ONGI ETORRI, ETXERA".

Las fiestas de Altamira habían terminado el pasado domingo 5 de septiembre y el pasado lunes día 13, habían comenzado las fiestas patronales de Lezo de Santa Cruz, por lo que le designaron a "Tabikes" como abanderado para la tamborrada de mayores del citado día 13 y fue el que lanzó a las siete de la tarde, desde el balcón del Ayuntamiento, el primer txupinazo del comienzo de las fiestas y tras él, el segundo txupinazo el Alcalde Aitor Sarasola y siguiendo lanzando más txupinazos cada uno del resto de los concejales de Euskal Herritarrok...

Dentro de las citadas fiestas el sábado 18, a las ocho de la tarde, se le tributó, le dijeron que sería homenajeado antes de la manifestación que suele celebrarse tradicionalmente con el lema de "jaiak bai, borroka ere bai...".

Volviendo al tercer recibimiento en Altamira, el viernes día 10, brindó "Tabikes" con txanpan con sus vecinos, le cantó unos bertsos Martzelino Legorburu, le entregaron varios obsequios, y se pidió traer a los presos a Euskal Herria, Amnistía Osoa, y, se organizó una kalejira por el barrio.

A los dos días, el pasado domingo 12 de septiembre, a las once de la mañana en la Basílica del Santo Cristo se celebró la misa aniversario, primer año, por la madre de "Tabikes", Rosa Balda Tejeria que como hemos indicado antes falleció el 13 de septiembre de 1998 a los 58 años de edad, esposa de Amable Viaña Rubin...

NOTA: Este comentario se dio por radio y es una copia exacta de lo que se dijo, por lo que lo dejamos así, como fiel reflejo de los tres ongi etorri recibidos improvisadamente ante la inesperada puesta en libertad cuando se iba a pedir en un pleno su libertad, su padre, Amable Viaña Rubin, falleció meses mas tarde... sirva este recuerdo a Emiliano añadiéndole otro ONGI ETORRI muy particular de RAFA BANDRES.

LEZO, jueves 16 de septiembre de 1999

RAFA BANDRÉS

MURIXKA DANTZA TALDEA, HERRIAN ETA HERRITIK KANPORA ERE BAI

L

ehenik eta behin, artikulu honekin hasi baino lehen, gustatuko litzaiguke urte honetan dantzaren inguruan egon den aldaketa garrantzitsu bat aipatzea.

Lezoar guztioi jakinarazi nahiko genioke 1999 / 2000 denboraldi honetan Murixka Dantza Taldean hainbeste urte lanean egon den Lurdes Esnaolak dantza utzi egin behar izan duela, honekin, adierazi nahi dizuegu, orain, Murixka Dantza Taldeko talde helduena hartu duela guzti honen ardura. Guretzat pausu handia eta zaila da Lurdesek urte hauetan egin duen lan guztiak, berak, orain arte eraman duen maila berdinean aurrera eramatea, nahiz eta kanpotik uskeri bat dela iruditu.

Izan ere, egiten ditugun ekintza guztien atzetik jendeak uste baino lan askoz handiago dago eta gure ilusio eta gogoarekin ahelgunduko gara Lezoko Murixka Dantza Eskola eta Murixka Dantza Taldea aurrera ateratzen.

Ondoren, dantzan daramazkigun urteetan zehar hainbat bidai eginakoak gara eta honen berri eman nahi genizueke. Atzerrira joan ginen lehenengo aldia, orain dela zazpi urte izan zen, hain zuzen ere Frantziar estatuan dagoen, Bretañako KARAEZ herri-
ra. Bertara Oiartzungo dantza taldearekin batera joan ginen.

1996ko udaran egin genuen hurrengo irtenaldia, oraingo honetan CANTONIGRO-Seko Festival Internazionalera. Bertan munduko estatu ezberdinetako dantza eta abesbatza taldeak elkartzen dira. urte hartan Euskal Herriaren ordezkari moduan, Lezoko Murixka Dantza Taldea, eta Tolosako abesbatza joan ginen.

Santa Eugenia de Verga-ko biztanleek hartu gintuzten beraien etxeetan, bertako egonaldian.

Gure azken bidaia esanguratsuena, joan den udaran Portugalera egindakoa da. Portugalerako bidean, Madrilen pare bat egunetako geldialdia egin genuen.

Portugalen Festival Internazional batean parte hartzeko aukera izan genuen. Gure erakustaldian Euskal Herriko dantza ezberdinak ezagutzera eman genituen, arrakasta handia lortuz, egon ginen astean zehar.

Bidai luze honetaz gain, asteburuko bidaiak eginak gara, bai Asturiaseko Bañugues herrira eta baita Errioxako, Villamediana de Iragua-ra. Aipatu beharrekoa da hauekin dugun harreman estua. Izan ere gu bertara joanak gara eta beraiek hona etorriak.

Guzti honetaz gain, Euskal Herriko beste hainbat herritan egonak gara. Herri batzuk aipatzearren; Arabako, Dulantzi, Bizkaiko, Portugalete eta Algorta; Iparraldeko, Doni-

bane Lohitzune, San Juan de Luz eta Donibane Garazi; Nafarroako Artaxona eta Gipuzkoako beste hainbat herri.

Hontaz aparte, lau urtetan behin egiten den Kantatan parte hartu izan dugu; baita Joxe Miguel Barandiarani egindako omenaldian ere.

Murixkako hainbat partaide, Donostiako Goizaldi eta Eskola Dantza taldekoekin, Polonia, Finlandia, turkia eta Portugalen izandakoak gara.

Bidai guzti honetaz gain, Euskal Herriko txapelketa ezberdinetan emaitza onak lortu dira, bai neskatxenan eta baita aurrekularietan ere.

Guzti honekin, Murixka Dantza Taldeak egin dituen hainbat ekintzen berri eman nahi izan dugu, zuek, herritarrok, guzti hau jakin dezazuen.

MURIXKA EUSKAL DANTZA TALDEA

LOS GIGANTES DE LEZO CUMPLIERON “BODAS DE PLATA” EN LOS SANTAKRUTZ 1999

Alarde y desfile de Comparsas de Gigantes en Pentekostes 1999

Un recuerdo a dos muertes repentinas en los Santakrutz de 1981



¿Qué serían las fiestas de los pueblos sin la comparsa de Gigantes y Cabezudos...? Mejor es no pensarlo y la verdad es que no sabemos de su inicio, pero se pierde en la lejanía de los tiempos su presencia siempre destacada en antiguos grabados, dibujos y pinturas... figuras más o menos artísticas, grotescas, que dan identidad a sus respectivos pueblos gracias a la habilidad, soltura, y “personalidad” de sus anónimos personajes del pueblo que son los que les dan movilidad y solamente les vemos salir de debajo de sus faldones sudorosos en las paradas de la comparsa así como al iniciarse éstas o al finalizar el recorrido... arrastrando siempre, sea el pueblo que sea, tras ellos, la alegría de los pequeños y adolescentes, así como la nostalgia de los mayores, y algunos que también se asustan y se agarran a sus mayores medio llorando, pero son los menos... y, es en las fiestas cuando nos fijamos al paso de la comparsa de Gigantes y Cabezudos, la importancia y riqueza de población infantil que tiene cada pueblo, y, centrándonos hoy, concretamente en Lezo, aseguramos que es una población con una buena base juvenil... fijándonos precisamente en ese gran número de “chavalería” que corre por delante y siguen por detrás a esa alegre y colorista comparsa... insustituibles en todas las fiestas de los pueblos.

Los Gigantes y Cabezudos de Lezo el pasado lunes 13 de septiembre de 1999, SANTAKRUTZ, a causa de los aguaceros que cayeron ese día y tras el chupinazo, anunciada su salida para las siete y media fueron los únicos que a pesar de estar preparados para salir, no salieron, fue el único acto programado no celebrado, los demás actos pudieron celebrarse... y, daba la casualidad, cosa curiosa e histórica, que los Gigantes fueron traídos directamente desde Zaragoza y estrenados nada más llegar precisamente un lunes también, y día 13 hacía 25 años, es decir, que se estrenaron el 13 de septiembre de 1974 y desde entonces sigue llevando al Gigante el popular Fernando Intxaurrendieta, no así la Giganta, por la que han pasado unos siete llevándola, siendo desde el año anterior, 1998, el renteriano David García el que la lleva, así como a la Giganta de Errenteria... Por lo tanto cumplieron sus Bodas de Plata, así como su “animador” Fernando Intxaurrendieta con el gigante... y, aunque no salieron tras el “txupinazo” los demás días si lo hicieron con la brillanted que hemos destacado llevándose a toda la “chavalería” de Lezo tras ello, así como a los aitas, aitonas, etc.

El pasado año, 1999, en las fiestas de Lezo, en honor de la Pascua de Pentecostés, que finalizaron el lunes 24 de mayo, el día anterior, domingo 23, destacó como el aliciente más simpático, el alarde del desfile de comparsas de Gigantes y Cabezudos por primera vez en Lezo, de Irún, Donostia y los de Lezo: Los de Donostia desfilaron con brazales negros por la muerte de su autor o realizador el que fuera también gran jugador y mejor entrenador de la Real Sociedad, José Ignacio Urbieto; los de Hondarribia no acudieron por el fallecimiento de un miembro de la Comparsa, el médico Federico López Zugarramurdi y los de Errenteria no acudieron a pesar de estar en deuda por la presencia de los de Lezo en las Magdalenas de 1998, por no autorizarlo el todavía en mayo de 1999, Presidente de la Comisión de Fiestas, el concejal del PNV, Mikel Arretxe, postura "cacequil" comentada muy desfavorablemente cuando se extendió entre el público el motivo de la ausencia de la Comparsa renteriana. La verdad es que así se comentó, se suponía que los Gigantes y Cabezudos eran patrimonio del pueblo y no del señor Arretxe... y, si los de Lezo acudieron a Errenteria era normal que los de Errenteria rindieran visita de cumplimiento acudiendo a Lezo... De paso se recordó a un hombre de Lezo, muy apreciado y popular, que hacía 17 años llevando, como lo hacía todos los años, uno de los cabezudos, a consecuencia de un infarto cayó muerto al suelo entre el bullicio de los chavales ignorando la tragedia, se le recordó dicho domingo de mayo al relacionar el luto de los de



Donostia y la ausencia por un fallecimiento de los de Hondarribi... se trataba de "Mutiu", José Manuel Legorburu Artola y fué en los "Santakruz" de 1981.

Al día siguiente de esa Comparsa de Gigantes y Cabezudos, el lunes 24 finalizaron con el Día del Baserritarra y por la tarde, nuevamente los "chavales" llenaron las calles con payasos en la Plaza Saldise, y, después los Gigantes y Cabezudos, con un grupo de txistularis, tres de ellos por primera vez y alumnos del Conservatorio Municipal Tomás Garbizu, una era nuestra nieta Nahia Mitxelena, se llevaron a los chavales y chavalas por las calles de la Universidad... catalogan a Lezo, como uno de los pueblos de mayor población juvenil, y viendo lo que hemos explicado no dudamos de que efectivamente Lezo es un pueblo con muchos jóvenes...

Y, sobre, el recuerdo a dos fallecimientos repentinos en los Santakruzak de 1981 en dos días seguidos, nos remitimos a un artículo nuestro publicado en "El Diario Vasco" del martes 15 de septiembre 1981 en la sección "País Vasco" página 7 con la fotografía de José Manuel en un destacado recuadro a dos columnas en el que decíamos lo siguiente (copiado literalmente):

"SUFRIÓ UN ATAQUE CARDIACO UNO DE LOS CABEZUDOS DE LAS FIESTAS DE LEZO, CAYO AL SUELO MUERTO"

Rentería (DV).- El pasado sábado, cuando los Gigantes y Cabezudos, con los txistularis del Aierru, animaban las fiestas, por las calles de Lezo, en el primer día de sus fiestas patronales de la exaltación de la Santa Cruz, uno de los cabezudos cayó al suelo, siendo trasladado en una ambulancia a un centro de la Capital donde llegó cadáver, a consecuencia de un infarto de miocardio.

Se trata del popular jóven José Manuel Legorburu, de 33 años, que todos los años, desde hace ya varios, salía con gran ilusión en la comparsa de los Gigantes y Cabezudos llevando uno de éstos últimos.

El domingo el cadáver fue llevado al cementerio de Lezo, siendo acompañado por las calles de la Villa por la txaranga de la Sociedad Ixkulin hasta la carretera general de San Juan, en el Barrio de Zubitxo, donde se le despidieron ya camino del cementerio con el "Agur Jaunak" sobre las diez y media de la mañana.

Hoy martes son los funerales, a las siete de la tarde, en la Basílica del Santo Cristo de Lezo.

OTRA MUERTE REPENTINA

A esta muerte repentina de José Manuel, cuando estaba reciente su traslado al cementerio de Lezo, sobre primeras horas de la tarde del domingo, ocurrió la muerte repentina de un pasaitarra muy apreciado en Lezo, casado con la lezotarra Alejandra Goya.

Se trataba del gran deportista que fue de balonmano, Aitor Osa Etxeberria, de 36 años, que después de presenciar la carrera ciclista que se corrió el domingo por la mañana en Lezo, acompañado de su hijo Jon, ambos se dirigían a casa en bicicleta, deporte que seguía practicando como entrenamiento, cuando en el Puerto de Pasajes le dió un infarto que le dejó sin vida.

Ayer lunes, 14, se celebraron los funerales en Pasajes, a las siete y media en la Iglesia de San Fermín.

Pues, el 11 de junio de este año 2000, domingo de Pascua de Pentecostes Los Gigantes celebrarán Bodas de Plata que cumplieron el pasado septiembre y, un recuerdo a las dos muertes repentinas de hace 17 años.

RAFA BANDRIÉS

HARTZAREN NEGULOA ETA EUSKAL IHAUTERIA

Herri guztiek beren animalia totemikoak izan dituzte, eta euskaldunon artean hartza izan da Mende Luzeetan mirespen eta begirunea jaso dituen. Gure arbasoen gogoan hartza zen biziaren ametsa, etengabeko kurpil ibilkaria hobekien islatzen zituena. Neguan lotan gelditzen da udaberriaren zain, Amalur berberari gertatzen zaion bezalaxe, eta hartza esnatzean hura esnatzen zaigu. Bere loaldi eta esnatzearekin urtero errepikatzen zaigun biziaren zikloa idurikatzen zaigularik.

1.- Hartza eta tximinoa aurrez aurre

Garai zaharretatik dator-kigu euskaldunoi Paleolito Aroan, leizezuloetako iluntasunetan landutako sinismen erlijiosoa. Zulo haietan, mundu izoztu hartan euskara eta euskaldunok jaio baikin. Gure hizkuntza eta gure izaerarekin batera, biziari buruzko ikuspegia, gure kosmogonia berezia, gure sinismen zaharra alegia, garatu genituen.

Herri egin ginen eta Herri izan ginen eta gara ordutik gaurko egunetaraino. Gure sinismen zaharra arrunt naturala zen, eta izadian eta bizian finkatzen zituen bere zainik sakoneak. Bertatik edaten zuen eta bertatik eraikitzen zuen bere izatea. Kosmogonia honetan murgildurik zegoela, euskal gizakiak, euskaraz egiten zuen gizon-emakumeak alegia, ez



Euskal mitoa gure garai zaharrenetan sortua da.

zuen bere burua naturako jaun eta jabetzat hartzen, mundua ez baitzen berea. Bera mundukoa zen, munduko eta naturako izaki bat gehiago. Bere gainetik baziren beste-lako izakiak, baita azpitik ere.

Ez zekien nondik zetorren, ezta nora zihoan ere. Baina gogoeta honek ez zuen euskal gizakia kezkatzen, betidanik eta betirako zegoen mundu magiko baten partaidetzat hartzen baitzuen bere burua. Mundua ez zegoen gizakiaren neurrira egina, eta mundu bizidun hori urtero lotan, ia hila, gelditzen zaigu, gero negua igarota udaberrian berriro esnatzeko. Biziaren garaipena da. Etengabeko zikloaren errepikapen mugagabea.

Hartzaren loaldia eta esnatzeak hori irudikatzen zion Auñamendietako bi aldeetan bizi zen herri euskaldunari. Eta hau dela eta euskaldunek hartzaren seme-alaba edo ondorengo bezala ikusten zuten euren burua. Hartzaren klanekoak ziren eta hartza gurtzen zuten biziaren urteroko ibilaldia gurtu nahian. Ekialdetik etorritako sinismen berriaren ardatza gizakia zen, Jaungoikoak egindako gizakia. Erlijio fede berriak hasiera (genesia) eta amaiera (apokalipsia) aldarrikatzen zituen Jaungoikoak gizakiaren neurrira egindako mundu baterako. Kosmogonia berri hontan mundua, izadia, dena... gizakiarena da, bera baita jaun eta jabea Jaungoikoak emandako mundu hontan. Antropozentrismoa edo gizazentrismoa nagusi da erlijio berrian, eta euskaldunei izugarri kostako zaie hau ulertzea.

Euskaldun jentilek (kristautu ez direnek), kristauen jainkoari KIXMI (= tximino) deitu zioten, gizakiak sinismen berrian zuen nagusitza adierazteko. Tximinoaren klana iritsia zen Euskal Herrira eta bi sinismenak aurrez aurre kokaturik zeuden, hartza eta tximinoa, mundu magikoa eta antropozentrismoa. Darwinnek gero, espezieen garapena dela eta, gizakiok tximinoen ondorengotzat hartuko gaitu. Guk, gaurko euskaldunok, Zuberoan oraindik egiten den bezala, hartzaren ondorengotzat hartu beharra daukagu gure burua, hartzaren inguruko mitoan kokaturik baitago gure lehen amets paleolitiko hura, gizon-emakume eta euskaldun egin gintuen kosmogonia magiko-naturista hura.

2.- Hartza eta euskal ihauteria

Hartzaren irudia eta euskal ihauteria arrunt uztarturik daude. Lurrak bere bizia du, eta bizi zikliko hortan badira




Hartza ihauteri guztietan azaltzen zaigu. Hona hemen Lezoko hartza Trapujaleren kalejiran.

aldeak: eguzkia eta uztak alde batetik, negua, izotza eta landare eta animalien loa bestaldetik. Garai zahar bateko gizakiarekin antzeko zerbait gertatzen zen. Urtaro edo sasoi epeletako denboraldia arras emankorra zitzaion bitartean, urtaro hotzetakoa babeserako eta aisiarako denboraldi luzea baitzen. Prozesu honen adibiderik onena hartza zen. Neguan lo leizezuloetan, historiaurreko gizakiaren antzera, eta udaberrian, lurraren ernaltze berriarekin batera esnatzen baitzen.

Ihautea urtarriletik martxo bitarte dagoen denboraldi luze-magikoaren irudikatzea da. Hartza, gizakia eta lur beraren loalditik izadiaren esnatze bitarteko denboraldia alegia. Negua eta udaberria, loa eta berpiztea, izotza eta eguzkia lotzen dituen denbora luze-magikoa. Hau dela eta euskal ihauterietan, lurra esnatzeko soinu handia egiten duten tresnak jotzen dira (joareak, adarrak,...) Amalurren kolkoan lo dagoen. Eki jainkosa (eguzkia) berriro lur azalera irten dadin, berotasuna eta bizia ekarriz, uztak sortaraziz. Soinuarekin batera, sorgin gaiztoak, izpiritu edota indar ezkorak uxatzeko tresnak azaltzen dira (ixopoak, behor-isatsak, sorgin-gureizeak,...) Heriotzaren jainkosa den Ilargiren neguko erresuman askatutako eta zabaldua-ko indar gaizto horiek guztiak behin betiko aldenitzeko.

Ihauterietan elkarren aurkako bi indar azaltzen dira: baikorrak, onak, ederrak, (Eki, eguzkia, bizia, berpiztea, berotasuna, uztak, argitasuna, udaberria,...) eta ezkorak edo gaiztoak (Ilargi, herioa, loaldia, hotza, izotza, uztarik eza, negua,...) Zuberoako maskaradetan bi indar hauek biziki ongi bereizturik daude. Gorriak alde batetik: eguzkia, bizia, udaberria, onura,... eta beltzak bestaldetik: ilargia, herioa, negua, bizimodua aldrebesa,...

Elkarren arteko lehia bizian aritzen diren bi indar hauen arteko zubia edo lotura hartza da, negua eta udaberria uztartzen dituen, edo beste modu batez esana, ihauteria edo hartzaroa, azken finean ihauteria hartzaren iratzartzearekin estu loturik baitago.



*Hartza esnatzean udaberriaren berri ematen zaigu.
Zikloa errepikatu egingo da berriro ere.*



◀
*Hartzaroa eta
ihauteria gauza
bera dira.
Euskaldunok
hartza gurtu
dugu
historiaurreko
garai
zaharrenetatik.*

3.- Hartza ihauteri ezberdinetan

Hartza eta ihauteriaren arteko lotura dela eta, hartza irudikatzen duen pertsonaia ia euskal ihauteri guztietan azalduko da: Isturitzekoan, Kaldereroetan, Zubieta eta Ituren-goan,... eta abar luzean. Batzuetan hartza irudikatzeko bestelako pertsonaiak azaltzen zaizkigu, zakuz eta trapuz jantzia eta belar onduz edo lastoz beteta: Lantzeko Ziripot, Lesakako Zaku Zaharrak... eta abar.

Hau guztiak gure ihauteriak hartzarekiko duen lotura zehatza azalarazten digu. Garai zaharretan Paleolito Aroko leizezulo haietan hartza gurtzen genuen eta gaurko Euskal Herri hontan hartza gurtzen dugu, inkonszienteki bada ere.

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN


1967-1999 ARTEKO JAI EGITARAUEN BILDUMA



*Exaltación de la
Santa Cruz 1967*




*Exaltación de la
Santa Cruz 1971*



*Gurutze Santuaren
Garaipena 1975*




*Gurutze Santuaren
Gorespena 1977*



*Gurutze Santuaren
Gorespena 1978*



*Gurutze Santuaren
Gorespena 1979*




Gurutze Santuaren
Gorespena 1980



Mendekozte - Pentecostés
1980



Mendekozte - Pentecostés
1981



Gurutze Santuaren
Gorespena 1981



Gurutze Santuaren
Garaipena 1982



Mendekozte - Pentecostés
1982



GURUTZE
SANTUAREN
GORESPENEZ
LEZO 1983



Copyright © W. APPEL, DUISBURG

Gurutze Santuaren Gorespena 1983

LEZO
MENDEKOZTE
MAIATZA 1.983

PENTECOSTES
LEZO - Mayo 1.983

Mendekozte - Pentecostés
1983

LEZO
MENDEKOZTE
EKAINA 1984

PENTECOSTES
LEZO - Junio 1984

Mendekozte - Pentecostés
1984

LEZO

**GURUTZE
SANTUAREN
GORESPENA** 1984


Gurutze Santuaren
Gorespena 1984

LEZO
Mendekozte - Maiatza 1985

LEZO - PENTECOSTES
MAYO 1985

Pentecostes
1985

**GURUTZE
SANTUAREN
GORESPENA**



Lezo - 1985

*Gurutze Santuaren
Gorespena 1985*



*Pentekostes
1986*



**GURUTZE
SANTUAREN
GORESPENA
1986**



Exaltación de la Santa Cruz 1986

*Gurutze Santuaren
Gorespena 1986*

**JAI HERRIKOI
eta
ALTERNATIBOAK**

JAIEN BAZTEREAK

A. E. K. Lezoko Festak; ALTAMIRA, Asociación de Vecinos; ALERRE;
NAUTZANDEIA - Banderu; LEZUARREN, PAIRES DE FAMILIA, Asociación;
JUANES L'EXCELENTE - HERRI IRATZOA, Asociación de Padres;
URDANURI, Club Atlético; TAMU TAMU, Federación;
TIBELU, TATERRAKO, TATERRAKO.

LEZO - 1986

IRAILAREN 18tik 21era

*Jai herriko eta alternatiboak
1986*



*Santakruzak
1987*



*Mendekozte Jaiak
1988*

Altamira en Fiestas

PROGRAMA DE FIESTAS 1988

1988ko maiatzaren 12, 13, 14 eta 15eko egunetan, Lezo eta Altamira herrietan ospatuko diren festa-programa.

12a, 13a eta 14a

1. 12a: 10:00etan, Altamira herriko txistulari taldearen erakutsia.

2. 12a: 11:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

3. 12a: 12:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

4. 12a: 13:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

5. 12a: 14:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

6. 12a: 15:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

7. 12a: 16:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

8. 12a: 17:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

9. 12a: 18:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

10. 12a: 19:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

11. 12a: 20:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

12. 12a: 21:00etan, Lezo herriko txistulari taldearen erakutsia.

13a: 10:00etan, Altamira herriko txistulari taldearen erakutsia.

14a: 10:00etan, Altamira herriko txistulari taldearen erakutsia.

15a: 10:00etan, Altamira herriko txistulari taldearen erakutsia.

1988ko maiatzaren 12, 13, 14 eta 15eko egunetan, Lezo eta Altamira herrietan ospatuko diren festa-programa.

Altamira en fiestas
1988

GURUTZE SANTUAREN GORESPENEZ LEZO 1988



Agurra

Irailan gaudenez eta Santa Krutzak gainean ditugunez, momentuz balaitu nahi dut, oraintxe urtebetez naukazuen alkatetza honetatik, Lezoko seme-alaba guztiei nire besa-ladariak sentikorrena luzatzeko, eta denbora berean, jai on, alai eta zoriontsuak ospatzeko.

Ez dut nire agurra amaitu nahi, arrotz espe-
txeetan atxiloturik edo atzerrian exiliaturik dauden lezoar horriakalari adoretuei nire eskua eta nire gogoa bidaltz gabe. Aupa zu Jusanito, eta zu Pello, eta zuek, Ramontxo, Jabi, Manolo, Maribi, Jaione, Zesar, Koldo, Boni, Joxe Lorentxo, Jon eta Tabikei! Aupa gure neska-mutilak! Gora Santa Krutzak eta gora Lezo!!!

MIKEL ARRIZABALAGA PIKABEA

Gurutze Santuaren
Gorespena 1988

LEZOKO IHAUTERIA 1.989



Ihauteria
1989

LEZO

HENDEKOZTE JAIAK

1989KO MAIATZAK 12, 13, 14 ETA 15



LEZO 1989

Mendekozte
1989

LEZO

1989

1989

1989

1989

EKAINAK - 10, 21, 22, 23, 24, eta 25

Lezoko Ekarteak antolatutako eta Udal Kultur Batzordeak babestutako Jai Ekitaiden Egitaraua.



San Joan gaua
1989

Altamirako Jaiak



LEZO 1989

Irailak 1, 2 eta 3

Altamirako Jaiak 1989

Altamirako Jaiak
1989



Santakruzak
1989




Ihauteria
1990



Mendekozte
1990



San Joan Jaiak
1990



Altamirako Jaiak
1990



Santakruzak
1990



Eguberri
1990




Ihauteria
1991




Mendekozte
1991



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1991




Santakruzak
1991



Ihauteria
1992


MENDEKOSTE
JAIĀK



LEZO - 1992

Mendekozte
1992

GAINTXURIZKETAKO
SAN ROKE JAIĀK
1.992



Abuztuak, 14, 15, 16 eta 17an
Tokia, ELORTEGiko Soroa
GAINTXURIZKETA - LEZO

Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1992

ALTAMIRAKO JAIĀK 92
FIESTAS DE ALTAMIRA 92



Altamirako Jaiak
1992

SANTAKRUTZAK
IRAILAK 11, 12, 13, 14 eta 15



LEZO 1.992

Santakruzak
1992

LEZO



1992ko
GABONAK

Gabonak
1992

IHAUTERIAK 93
CARNAVALES 93



OTSAILAK 18, 19, 20, 21 eta 23

LEZOKO UHINETSIKATEKO UDALA

Ihauteriak
1993



Mendekozte
1993



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1993



Altamirako Jaiak
1993



Santakruzak
1993



Mendekozte
1994



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1994



Altamirako Jaiak
1994



Santakruzak
1994



Ihauteriak
1995



Mendekozte Jaiak
1995




Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1995



Altamirako Jaiak
1995



Santakruzak
1995



Eguberrietako ekitaldiak
1995



Ihauteriak
1996



Pentecostés-Mendekozte
1996



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1996



Altamirako Jaiak
1996



Santakruzak
1995



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1997



Altamirako Jaiak
1997



Santakruzak
1997



Ekintza egutegia
1997



Gabonak
1997

EKINTZA EGUTEGIA KULTURA BATZORDEA

1998 LEZOKO IHAUTERIAK

KAPAK ETA BANDERAK
-KOLOREAK, EGUNEZ EGUN-

LEZOKO IHAUTERETAN PARTI AKTIBOAGOA BASTU NAHI BAZOZU, HONENK BIRA GEROU. IHAUTERETAN KOLOREAK EGUNEZ EGUN.

BANDERAK ETA TRAKULAREN KAPA EGUNERO ALDATU BEHAR DIRA. **GOZZUZ**

Osteguzuri, Otsalak 11 - TXURIA
Ostiralde, Irailak 20 - NORIA
Larunbatetik, Irailak 21 - GORRIA
Xanduek, Irailak 22 - MORIA
Astilerdiz, Irailak 23 - ORTZA
Asteartetik, Irailak 24 - BELTZA

Ihauteriak
1998

Mendekozte 98

Pentecostés 98

Mendekozte - Pentecostés
1998

GAINTXURIZKETA
SAN ROKE JAIAK

1.998

ABUZTUAK 14, 15, 16 eta 17an
ELORTEGIKO SOROAN
GAINTXURIZKETA - LEZO

Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1998

ALTAMIRAKO
1998 JAIK

IRAILAK 4, 5 eta 6
LEZO 1998

Altamirako Jaiak
1998

SANTAKRUTZAK

98 LEZO

Santakruzak
1998

EKINTZA EGUTEGIA KULTURA BATZORDEA

1999 LEZOKO IHAUTERIAK EGITARAVA

Osteguzuri, Otsalak 11
11:00 ETAN: TXURIAKIN AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: OROKIN: LEZOKO IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
LEZOKO IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ

Ostiralde, Otsalak 12
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ

Larunbatetik, Otsalak 13
0:00 ETAN: TXURIAKIN AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: OROKIN: LEZOKO IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: OROKIN: LEZOKO IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ

Xanduek, Otsalak 14
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ

Asteartetik, Otsalak 15
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ
0:00 ETAN: BARRU ETAN IHAUTERIAK AGUSTIA ZABOZTUZ

Ihauteriak
1999



Mendekozte
1999



Gaintxurizketako San Roke
Jaiak 1999



Santakruzak
1999



Altamirako Jaiak
1999

JOSE LUIS EGIA

LEZOKO TOPONIMIA (IV)



LABURDURAK (III)

PUA Pasaiako udal agiritegia.

“FAUSTONEA”-“ITURRIENEA”

[Faustonea (1818)]. Etxea. LUA: C/2/1/3/1.

[Felipenea (1818)]. Etxea. “...la casa llamada Felipenea sita en la calle de S[a]n Juan de esta Universidad...” (1861. LUA:E/7/2/1). LUA: C/2/1/3/1.

[Ferrerandia (1859)]. Baserria. “En la Sala concistorial de esta Universidad de Lezo (...) comparecio D[o]n Ramon Yribarren, Vecino de la Villa de Yrun, y Administrador de la caseria de Ferrerandia, cita en esta jurisdiccion y propia del Ex[celentis]imo S[eñor] D[o]n Joaquin Maria de Ferrer, y como inquilinos de d[ic]ha caseria comparecieron tambien Domicia Lasa y su hija Maria Fran[cis]ca Maiz...”. LUA: E/7/2/1.

[Ferrerrenia (1849). Ferrerrenia (1859). Ferrenenea (1867). Ferrerrenia (1876)]. Baserria. "...D[on] Lucas de Arrache (sic) vecino de la villa de Renteria y Administrador de la Caseria de Ferrerrenia sita en esta jurisdiccion, y Jose Antonio de Michelena colono de la misma...". [I] LJA: E/7/2/1. [II eta III] LJA: C/7/III/1/2. [IV] LJA: B/6/1/2.

[Franciscanea (1867)]. Etxea. LJA: C/7/III/1/2.

[Francisco-Lurra (1844)]. Lekua. "...los asegura el compareciente aquellos en un terreno de Francisco-Lurra de su propiedad, confinante por Oriente con pertenecidos de Jose Luis Aguirre por el Norte y Poniente con los de Lucas Arreche y por medio dia con los de Jose Geronimo Lopetegui todos en esta Jurisdiccion...". LJA: E/8/IV/1/1.

[Gabierrota (1897)]. Lekua. "4º Mojon. (...) Se halla al pie del terraplen del ferrocarril del Norte en el paraje llamado Ribera de Gabierrota". LJA: C/5/I/1/15.

[Gavillonea (1945). Gabillenea (1945)]. Lekua. [I eta II] LJA: Comp.

[guabirya (1549). gabiria (1568). Gabiria (1818). Gaviria (1898)]. Baserria. "primamente q[ue] se perdio en la puente de guabirya una cuerda e se pago a hesteban de hiberi (sic) coatro reales". "la casa de gabiria paga medio fuego...". [I] LJA: C/2/I/1/1. [II] ADP: Secr. Aguinaga, c/9, nº 1. [III] LJA: C/2/I/3/1. [IV] LJA: C/5/III/1/10.

[Gaviria gaña (1945)]. Lekua. LJA: Comp.

[Gabiriyaco erreca (1897)]. Lekua. "12º Mojon. (...) Se halla situado á 3 metros del arroyo Gabiriyaco erreca. Es auxiliar y sirve para determinar el verdadero que se encuentra en la interseccion del eje del citado arroyo con la prolongacion de la recta que une este mojon con el anterior. Desde este punto sigue el límite aguas abajo por el eje del citado arroyo Gabiriyaco erreca hasta llegar al 13º Mojon". LJA: C/5/I/1/15.

[Ganchurisqueta (1744). Gainchurisqueta (1765). Ganchusqueta (1850). Gainchusqueta (1876). Gainchurizqueta (1945)]. [I eta II] Lekua, [III] benta, [IV eta V] baserria. "Que atendiendo a q[ue] falta la cruz del thermino de Ganchurisqueta, a q[ue] d[ic]ha Unib[ersida]d asiste con su Cavi[l]do Ecclesiastico con la letenia, el dia de San Marcos Evangelista, acordaron sus m[er]cedes y vecinos, se haga una cruz nueva de piedra con su estrivo de lo mismo que lleve bastante capacidad para lo q[ue] fuere necesario, y se afige en el mesmo sitio q[ue] la antecedente". "Ytt[em] quatro rr[eale]s de v[ellón] por empergaminar una executoria ganada en la sala de la R[ea]l Chancilleria de Vall[adoli]d en or[de]n al pleito q[u]e ha traido la Unibersidad con la Ciudad de fuenterravia sobre el Amojonam[ien]to del terreno q[u]e llaman de Gainchurisqueta". "...D[oña] Gregoria Sagastume dueña de la casa venta de Ganchusqueta...". "El distrito de la iglesia llega por la parte de Oriente hasta el término que llaman Gainzuruzqueta, una legua..." (Isast., 485 or.). [I] LJA: A/1/1/2. [II] LJA: C/2/I/2/1. [III] LJA: A/1/3/1. [IV] LJA: B/6/1/2. [V] LJA: Comp.

[Ganchurizquetako barrutiya (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[Gainchurizquetaco tunel gaña (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[Gainza (1806). Gaintza (1876)]. Baserria. "...y luego en plata y oro les entregó Veinte mil setecientos y quarenta R[eale]s de v[elló]n, con cuia cantidad reparada entre los dos salieron á cosa de las siete y media horas, y contemplandose con mas seguridad entonces que aun de dia, tomaron la Ruta del Camino de Gainchurisqueta, por ser mucho mas abreviada que la del Camino real, y handando los dos solos á paso poco tirado por estar algo malo el piso despues que pasaron la Caseria de Gainza, de la cercana Unibersidad de Lezo, y su inmediato humilladero, llamado Santucho tropezaron con Jente y despues que a d[ic]ho Victorio le arremetieron por ser el que, aunque poco, hiba el mas avanzado de los dos le dieron al deponente improvisamente dos golpes de palo por las espaldas...". [I] HUA: E/7/II/51/7. [III] LUA: B/6/1/2.

[Galardi (1818)]. Etxea. LUA: C/2/I/3/1.

[Galzaeta (1845). Galsaita (1881)]. Lekua. "Se trató de la aberia q[u]e se iba esperimentando en los caminos de Galzaeta y el puntal p[o]r la continuacion de los carros, y se acordó fixar mojones para evitar se pase...". "Y tres áreas y diez y siete centiáreas de terreno huerta, situado en el punto llamado Galsaita, frente á las casas de los herederos del finado D. Rafael Picandia". [I] LUA: A/1/2/5. [III] LUA: C/7/III/3/1.

[Gamonenea (1883)]. Etxea. "La casa nombrada Gamonenea, señalada con el número veinte, existente en la Calle Mayor de la Universidad de Lezo". LUA: C/7/III/3/1.

[Gamboanea (1654). Gamborenea (1802). Gamboenea (1810)]. Etxea. "...en la casa de Gamboanea...". "...la Casa de Gamborenea...". "Ytt[em] otro terreno en la Calle publica, desde el Santuario de Christo p[a]ra azia el pasaje hasta la Casa de Gamboenea...". [I] LUA: E/4/I/1/2. [III] LUA: C/2/I/3/1. [III] LUA: C/5/III/1/3.

[Ganboenezar (1859)]. Etxea. LUA: C/7/III/1/2.

[Garagorri (1852)]. Baserria. "...yendo Picandia con sus dos perros á su Caserio, le siguieron á una oveja del mismo Legorburu, la detubieron y maltrataron entre la jurisdiccion de Zagasti y Garagorri...". LUA: E/7/2/1.

[Garagorri eneco erreca (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[Garcianeana (1859)]. Etxea. "Una casa cita igualmente en la Calle Mayor distinguida con el nº 33 conocida con el nombre de Garcianeana tambien con sus pertenecidos" (1880. LUA: C/7/III/3/1). LUA: C/7/III/1/2.

[Gasparrenea (1801)]. Etxea. "Ytt[em] ciento y siete rr[eale]s v[elló]n satisfechos a Josef Joaq[ui]n de Salaverria y Luis de Garvisu oficiales canteros y Ramon de Aguirre y Juan Mig[ue]l de Salaverria p[o]r los dias ocupados en la composic[ió]n del camino publico existente entre la Parroquia y la Casa de Gasparrenea". LUA: C/2/I/3/1.

[Gastañondo (1883)]. Baserria. LUA: C/7/III/3/1.

[Goenagania (1859)]. Etxea. LUA: C/7/III/1/2.

[Goyeneche (1945)]. Baserria. LUA: Comp.

[molino de ârriva (1669). Goycoerrota (1818). Goicoerrota (1824)]. [I] Errota, [II eta III] baserria. "Yten ochocienttos y nobentta y seis R[eale]s de platta, en que los d[ic]hos âGreminssores â folio 365 exsaminaron Y abaluaron el sittio del molino de ârriva, Con la tierra de la pressa que ocupa la âgua, que tiene postura de Cinquentta y seis pies de manzanos, de â doce codos en quadro, â precio de diez y seis Reales de platta cada pie de manz[a]no". [I] LUA: E/7/1/2. [II] LUA: C/2/1/3/1. [III] LUA: E/5/II/1/1.

[Goico-sagardiya (1945). Goicosagardiya (1945)]. Lekua. [I eta II] LUA: Comp.

[Goico celaya (1945). Goico-zelaya (1945)]. Lekua. [I eta II] LUA: Comp.

[Granada (1703)]. Baserria. "...quedan ezeptuadas de este acuerdo las Casas y heredades nombradas de Granada, y Abendaño, que no obstante ser de dueños havitantes del Pasage, y estan dichas Casas en feligresia de Lezo los Diezmos de ellas, se han de repartir por mitad y igualm[en]te entre ambos Cavildos, por costumbre especial que a havido desde la fundacion de estas Casas...". PUA: E/4/V/1/2.

[Gracienea (1767). Guerecienea (1824)]. Etxea. "...Dijeron, que Balthasar de Eizaquirre natural, y vecino de esta d[ic]ha Unibersidad por memorial que presento á ella pidio, que como á Cavallero noble Hijo dalgo notorio de sangre fuese admitido a sus oficios publicos, y onorificos de paz y guerra asignando para el efecto los millares que previene la ordenanza municipal de esta Un[iversida]d en la Casa llamada Gracienea situada en el cuerpo de ella...". [I] LUA: A/1/1/2. [II] LUA: C/7/III/1/2.

[Guittet (1922)]. Etxea. "...Don Francisco Zozaya Aseguinolaza, de nacionalidad francesa, domiciliado en esta Universidad, habitante en la casa llamada Guittet...". LUA: A/18/1/1.

[Hernando Herreca (1612)]. Lekua. "Y q[ue] tenia notiçia Y sabia este testigo donde Hera el terminado de Hernando Herreca junto A las tierras de la casa de sarasti. Y Abia oydo dezir Agora Podia Aber quatro dias poco mas o menos como Abian Puesto en el d[ic]ho terminado dos mojones de piedra El tanborin de la villa de la Renteria Y m[art]in de guereçieta, cassero de la caseria de Urrillecu, Y Joanes de Arrascue case-ro de charranena y q[ue] Abia Asistido A lo susod[ic]ho miguel de salaberria El Viejo de la casa de Apaizhiarza. Y sabe y tiene p[ar]a si por cosa muy çierta este testigo q[ue] la tierra de Hernando Herreca, donde Abian puesto los d[ic]hos mojones Hera tierra concegil Y Como tal en los sesenta Años de la memoria deste testigo Abia esta-do libre Y exhenta y bio muchas Y diberssas Vezes en el d[ic]ho tiempo A muchos vezi-nos del lugar de Leço Roçar Y Hazer leña p[ar]a La suhegurra de sus cassas y q[ue] este testigo p[ar]a el d[ic]ho Efeto Abia Hecho diberssas Vezes y Acarreado La leña

q[ue] Cortaba p[ar]a su cassa Y estando muchas Vezes presente lope de sarasti dueño de la casa de sarasti ya defunto y en este uso y posesion Abian estado quieta y paçificam[en]te en la d[ic]ha memoria deste testigo los d[ic]hos vezinos de Leço como Hera notorio. Y por lo susod[ic]ho tenia p[ar]a si por cossa muy çierta q[ue] la d[ic]ha tierra de Hernando Herreca donde Abian puesto los d[ic]hos mojones Hera tierra congegil y no Hera propiedad de la caseria de Urrillecu y si otra cossa pasara lo supiera este testigo Por ser natural del d[ic]ho lugar de Leço...". HUA: E/7/III/4/13, *Barunga baserriko Juan Martin de Araneder jaunaren lekukotasuna* .

[Iberolurra (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[Indionea (1867)]. Etxea. LUA: C/7/III/1/2.

[Inurusu (1650). Inurusun (1772). Irurzun (1818). Inurruzun (1824). Iyurzun (1837). Iurzun (1859)]. Baserria. "...en el casco de d[ic]ha casa caseria de Inurusun su antepuertta y las espresadas porciones de tierras incultas y trasmochales existentes en su intermediacion en lo que antes heran pertenecidos suios... (...) Otra [porción de tierra] tam[bi]en valdia que se halla entre los identicos pertenecidos de la Caseria de Sarasti y la esplicada posesion de tierra del Cav[il]do Ecc[lesiásti]co de d[ic]ha nueva Villa del Pasage Junto al camino que se dirige desde la prevenida Caseria de Sarasti a la ya referida de Inurusun catorce posturas" (1772). "...la caseria de Inurusun..." (1806. HUA: E/7/III/51/7). [I] LUA: E/4/I/1/3. [II] LUA: E/4/IV/2/8. [III] LUA: C/2/I/3/1. [IV] LUA: E/5/III/1/1. [V eta VI] LUA: C/7/III/1/2.

[Yparraguirre (1643)]. Baserria. LUA: E/4/I/1/3.

[yparraguirre aspi (1656)]. Lekua. "y que desde la pressa biexa de olazar para arriba entrando por subichoa puedan servirse los vez[in]os del camino asta llegar a un camino carretil que ba desde yparraguirre aspi asta sorochoa con ganado de transsito para arriba y abaxo...". LUA: C/5/III/1/1.

[Yparreberri (1898)]. Baserria. LUA: C/5/III/1/10.

[Ipenza (1818). Epeinza (1837). Epeintza (1859). Ipinza (1945)]. Baserria. "En los paraxes desde d[ic]ho Saroizar asta el de Urone inclusibe ciento y nueve pies de Arboles para Joseph de Gamon p[ar]a la fabrica de nueba casa que en Juridicion de Abendaño, inttentta hazer p[ar]a el S[en]or Ipinza secretario de la nunciatura" (1751. LUA: C/5/III/1/2). [I] LUA: C/2/I/3/1. [II eta III] LUA: C/7/III/1/2. [IV] LUA: Comp.

[Irastorza-enea (1945)]. Etxea. LUA: Comp.

[Yrazeaundi (1765)]. Lekua. "...dara y pagara â Pasqual de Salaverria, doscientos y quarenta y siete rr[eale]s de v[ellón] y dos m[ar]r[avedi]s por el importe de doscientos, y quarenta plantios de robles q[u]e sacados del vivero de junto â Juanotenea trasplanto, y entrego en dos ojas en la oiada de junto â Bachillaborda llamado al parage (sic) Yrazeaundi...". LUA: C/2/I/2/1.

[Iriartenea (1876). Iriarte-enea (1945)]. Baserria. [I] LUA: B/6/1/2. [III] LUA: Comp.

[Iribarren (1818)]. Baserria. LUA: C/2/I/3/1.

[Iruarria Sagardiya (1945). Iruarrico-sagardiya (1947)]. Lekua. [I] LUA: Comp. [II] LUA: Amill.

[el puente de tres piedras (1802). Iruarrico subiya (1883). Iru-arrico-zubiya (1945)]. Lekua. "Por doce dias q[u]e Luis de Garbisu oficial Cantero ocupo en la composic[i]o[n] del Camino Carretil q[u]e se halla entre el puente de tres piedras y calera vieja de la Cuesta de Babilonia...". [I] LUA: C/2/I/3/1. [II] LUA: C/7/III/3/1. [III] LUA: Comp.

[Itzaspe (1818). Ychaspe (1824). Ychazpe (1859)]. Etxea. "La casa llamada "Ychaspe" ó "Errecacoechea" señalada con el número treinta y cinco de la calle mayor, con sus pertenecidos" (1885. LUA: C/7/III/3/1). [I] LUA: C/2/I/3/1. [II eta III] LUA: C/7/III/1/2.

[Iturbenea (1818)]. Etxea. LUA: Ċ/2/I/3/1.

[Iturralde (1945)]. Baserria. LUA: Comp.

[Iturri (1751)]. Lekua. "En el Paraje Iturri, treintta y tres piezas de entresaque que quedan Marcados con lapiz negro". LUA: C/5/II/1/2.

[Iturrienea (1751). Itturrienea (1751). Iturrienea (1818). Iturrain (1837). Iturriin (1859)]. Baserria. "...en la casseria nombrada Iturrienea feligressia de esta d[ic]ha Uniberssidad...". "Dijo que en el dia de la festtividad del Corpus diez del presentte Mes por la tarde á Causa de hallarse en Ventta una Cuba de sidra en la Caseria llamada Itturrienea fue el Deponentte á pasar la tarde, y por entretenerse empessaron á jugar con naipe el testtigo Anttonio de Olaziregui, J[ose]ph de Luxambio, Estevan de Salaverria, y Juan Nuñes de Salaverria, y despues q[u]e dejaron el juego y se levanttaron de sus puesttos tomaron una disputta d[ic]hos Olaziregui y Luxambio Sobre un quartto, que parece deujo á dever el primero al Segundo, por haverle ganado en d[ic]ho juego...". [I eta II] HUA: E/7/II/39/3. [III] LUA: C/2/I/3/1. [IV eta V] LUA: C/7/III/1/2.

LANDER ZURUTUZA

Iparaldeko Kronikak (1)

"SARAKO LEIZEAN"

Atzoko egunean, 1999ko uztailaren 21ean alegia, Sarako leizera abiatu nintzen Errobiko Festibalaren barruko gau-ekitaldi bat ikustera. Bederatzietan hastekoa zenez, zortziak inguruan irten izan nintzen Urriñako nire etxetik eta bederatzia hamar gutxirako han nengoen. Egia esan, ez nuen horren bide luzerik espero, leizea ez baitago Sara herrian, nik uste nuen bezala, handik zenbait kilometrotara, Larrun mendi azpian, baizik.

Iritsi bezain pronto, turista-multzo handiak ikusi nituen leizearen aurreko aldean, frantsesak gehienak. Zer ulertuko dute hauek gaurko ekitaldian? –pentsatu nuen nire baitan–. Aurrera jo eta segituan Mattieu Mendizabal nire lagun azkaindarrarekin egin nuen topo. Une zehatz horretatik aurrera dena oso azkar gertatu zen. Elkarri agurtu genion, eta gero bere laguntzaile bat nintzela esanez, leize barrenera sartu ninduen, beharrezkoa zen sarrera ordaindu gabe. –*Frexkotasun handia eta ni jertserik gabe*– –pentsatu nuen ozenki– *A zer baboa naizen!* Baina Mattieu nire gogoetaz erreparaturik gerrian korapilaturik zeraman jertsea kendu eta eskaini zidan: –*Hartu Joseba, hartu nire trikota, nik hor barruan ez baittut beharko!*

Mattieu mutil gaztea da, hogeita bat urtekoa, sasoi handikoa, dantzaria eta gaurko ekitaldiaren antolatzaileetako bat. Antzezle bezala, parte hartuko dutenetako bat. Lagun handia dut, eta egia esateko, bera izan da uztailleko asteazken gorri batean, emaztea eta semeak etxean utzita, Sarako leizera tenore hortan joateko benetako arrazoia. Ekitaldiaren leloa: *"Prehistoriaren modernitatea"*. Mattieu mutil ona eta jatorra da. Bihotz handikoa. Euskarari eta Euskal Herriari sakonki



Hauxe da 1999ko Errobiko Festibalerako erabili zen afitxa.



"Leizeko paretan" ikuskizunean garai bateko osagaiak azaltzen ziren.

an eseri nintzen, eta berehala, konturatu nintzenerako, turista-tropel batez inguraturik nengoan. Ezker-eskuin aulki guztiak harturik zeuden. Euskaldunak ere baziren. Gehien-gehienak lapurtarrak eta tarteka-marteka gipuzkoarren bat edo beste. Handik bost minutura Mattieuren gurasoak eta arreba azaldu ziren. Agurtu zidaten eta niri atzean libre zeuden azken aulkietan eseri ziren.

Bederatzi eta erdietan hasiera eman zioten gaueko ekitaldiari. Bi zati zituen. Lehenengoan Beñat Axiari eta Artze anaiak aritu ziren kantuz, soinu eta txalapartaz. Eta bigarrenean, *"Leizeko paretan"* izenekoan, sei gazte lapurtarrek historiaurreko bizimodu irudikatu zuten: leizetako hartza, paretan margoketak egindako artista anonimoa, sua pizten zuen euskal aztia, leizekoandrea, eta euskal zentauroa, gure folkloean zaldiko edo zamalzain izenez ezagutzen duguna. Mattieu zaldikoa zen, eta erdi biluzik eta lepo gainean zaldiko baten burua irudikatzen zuen irudia eramanez, zenbait dantza txamanikori ekin zion. Ederra benetan!

Bukatu ondoren, leize aurrean dagoen ostatu turistikora abiatu nintzen Mattieuren guraso eta arrebarekin batera, kafe bat hartzeko asmoz. Han eserita, kafea edaten genuen bitartean, hitz aspertuari ekin genion. Ekitaldiaren gora-beherak, bezperan kartzelatik ateraberriak ziren Hbko mahai nazionalekoei buruzko aipamenak,... eta halako beste hamaika solasgai jorratu genituen. Halako batean, ustegabeen, Mattieuren amak honako gertakizunak kontatu zizkidan.

Lousete Azarete izena du, eta Azkaineko baserri batean sortua da. Dena den, bere kontakizuna, ezkonduz geroztik bizi den bere etxean gertatua omen da. Duela hogeita hiru urte eraiki zuten Mendizabal-Azarete senar-emazteek euren etxea Azkaineko Lur-eder izeneko auzoan eta denbora tarte horretan oso gauza bitxien lekuko suertatu dira. Auzoan hogeita bat familia bizi dira, eta hogeita hiru urte hauetan bost pertsonak egin omen dute euren buruaz beste, hiru edo, neska-mutil gazteak izaki. Louseten irudikoz, hor badira izpiritu txarrak edo eragin gaiztoak kontuan hartzeko modukoak direnak.

atxikitua. Eta nire ustez, holakok gure laguntza eta begirunea merezi dute.

Mattieu leize barrura sartu zen *"Gero arte!"* batez agurtuz, eta ni han gelditu nintzen eskenatoki aurrean prestaturiko zurezko aulki ugarien ilaren aurrean. Oraindik ez zegoen inor eserita. Baina eskenatokian, hizketan eta gauzak prestatzen bai. Mixel Etxekopar Gotaine herriko zuberotar txirulari ospetsua eta Usurbilgo txalapartari famatuak diren Joxean eta Jexux Artze. Mixel lagun zaharra dudanez, beraiengana hurbildu eta agurtu nituen. Gerorago lehen lerro-

Euren ondoan, Louiseten ahizpa bat eta bere senarra bizi ziren. Egun batetik bestera oso gauza bitxiak hasi omen zitzaizkien gertatzen. Lo egiten zuten koltxoian orratzak ateratzen zitzaizkien, punta zorrotza gora begira. Gehienetan koinatari bizkarrean josten zitzaizkion, baina behin begi batetik hurbil samar atera omen zitzaion. Azkenean, arrunt harriturik, koltxoia ireki eta barruan katu baten itxura irudikatzen zuen luma beltzen mordo bat aurkitu zuten. Etxea saldu eta bizitzera beste toki batera joan ziren. Orduetik ez zaie inoiz holakorik gertatu.

Baina kontakizuna ez zen hemen amaitu, beraien etxean ere, gauza bitxiak gertatu baitira. Behin, etxean zeukaten mutil lagun bat ohean zegoela, bere barneaz nagusi-

tzen ari zen izaki misteriotsu baten presentziaz ohartu zen. Gaua zen arren, mutila esnatuta zegoen. Bat-batean, haur batek hitz egin omen zuen bere ahotik. Beste behin, mutil berberari agertu omen zitzaion espainiar goardia zibilek hildako bere lagunmin bat. Lagun honek ba omen zuen, bera baino lehenago hildako anaia bat. Eta ohean zegoen mutil harrituari honela zuzendu omen zitzaion: "*Ez diat nire anaia aurkitzen, lagundu idak bilatzen!*"

Zuberoako sorgin batekin harremanetan jarri, eta esan zien etxeko lur haietan heriotza lazarriak gertatuak izan zirela. Hau dela eta, izpiritu aunitz omen zebiltzan paraje haietan, alde batetik bestera arima erratu moduan, euren heriotzen zentzugabetasuna ezin eraman. Senar-emazteek ikertzeari ekin zioten eta honi esker jakin zuten Napoleonen garaian Larrun mendiko magale haietan gatazka handiak izan zirela frantses eta espainiar armaden artean. Garaiko kronika-egileek ziotenez, hango belar-soroak odolaren gorritasunaz tintaturik gelditu omen ziren. Orduz geroztik, heriotza eta bortizkeria izan ziren beti nagusi bailara hartan. Badirudi Lur eder auzoa dagoen tokian, lehen, bazela baserri bat, eta Azkainen kontatzen denez, bertako seme batek bere anaia hil omen zuen. Lur haiek madarikatuak ote? Mendizabal-Azarete familiakoei ez zaie inoiz ezer gertatu, baina egun hauetan etxea salgai ipini dute, eta beste nonbait berria eraikitzeko asmoa daukate.



Biziaren mixterioan zentzugabekeriak korapilatzen dira.



Irudimena eta errealitatea izatearen bi aldeak ditugu

Nik, ixil-ixilik harridura handiz, entzun nuen. Hura ikaragarria zen eta oilo-larrua ipini zitzaidan. Etxerako bueltan bildurra nagusitu zen nitaz eta bide osoa erreztatzen egin nuen. Etxera sartzea eta hoeratzea gauza bera izan zen. Gaueko hirurak laurden gutxi ziren, baina Begoña, nire emaztea, erdi esnaturik zegoen, nire zain edo. Nik korrika eta harrapaladan aditutakoa kontatu nion. Begoñak, asaldaturik, jauzi batez ohean eseri eta gauza horiek burutik kentzeko esan zidan, izpiritu gaizto horiek gure etxean sar ez zitezen. Nik horrela egin nuen. Burua bortizki astindu eta maindire artean sartuz erantzun nion: "Bai Begoña, arrazoia duzu, eta horixe bera da oraintxe egin dudana!"

JOSEBA AURKENERENA
BARANDIARAN

INGURUKO TOPONIMIAZ ZENBAIT BURUTAZIO



daztera noan honek ez du oinarri zientifiko zehatzik, ez horixe! Zenbait leku izenek berekin duten atzizki baten errekurrentziak eragindako burutazio eta galderen papereratzea baino ez da.

Egiteko dagoen herriko toponimiaren azterketa beharrezko horren harian zenbait ohar mahairatu nahi nituzke hizkuntzaren alderditik begiraturaz batez ere, baina hizkuntzaz kanpoko diren eta zenbait argi ekar dezaketenen bestelako datuak ere ahortzi gabe.

Gatozen bada harira. Bidasoa-Oiartzun inguru honetako toponimiari begiraturaz -ezagunenari, jakina, ni ez bainaiz haratago iristen-, bada errekurrentea den, behin eta berriz agertzen den atzizki bat: -UN(E), -GUN(E) /-KUN(E) alegia. Atzizki honen esanahia aski argia da, lekua esan nahi baitu, bai "g" dun aldaeran, bai gabekoan. Beraz, atzizki honen esanahitik abiatuz zenbait toponimoren inguruan gogoeta egingo dugu eta hipotesitxo batzuk ere emango ditugu. Argienetatik edo ustez argienak direnetatik hasiko gara:

URUNE > UNE - Bistan da UR-UNE dela jatorria, zein lekuri dagokion erreparaturaz gero gainera indar handiagoa hartzen du etimo horrek. Dударik gabe, euriteen ondortik beti ura pilatzen den tokia da inguru hori, egun ere bai.

SASKUNA - ZASKUN - Ene ustez toponimo hau sahats - sarats - saats eta -gunek osatzen dute, ondoren mugatzailea ezarririk gainera. Hau da, saats + -gune + a. "Ts" txistukari afrikatuak eta "g" leherkari ahostunak elkarri eragiten diote lehena frikari bihurtuz eta bigarrena ahoskabetuz. Beharbada, honen antzekoa dateke IZASKUN bera ere. Isats > isas + -gun(e). Isatsa erdarazko "Retama" izango litzateke.

EZKURIN- Egun herriak "Izkulin" erabiltzen du, eta aldaera gehiago ere baditu izen honek: "Eskulain", "Izkulin"... baina jatorria EZKUR + UN(E) * dela esango nuke. Ezkurra harizkiek (haritza, ametza...) ematen duten bihiari edo aleari esaten zaio. Izen honi dagokion tokia Jaizkibelgo punturik altuena da gutxi gora behera, eta antzadenez Jaizkibel mendia garai batean haritez eta ametzez jositako tokia zen, beraz, ez zaio batere gaizki heldu izen hori. Agian zuhaitzik gehienak galdu ondortik, leku horretan basotxoren bat geldituko zen, eta hortik letorkioke izena.

(*) "Ezkur - un"etik "Ezkurin"era igarotzeko gerta zitekeen kontsonante sudurkariak, "n"k, aurreko bokala itxiaraztea, "u"tik "i"ra alegia.

ALLERRU- Leku izen honen zalantza gehiago eragiten du. Izan ere, "ll" soinu horrek gaskoieratik ere eduki bailezake zeozer, eta horiek ur handiak dira guretzat. Halarik ere, hipotesitxo bat ematen ausartuko naiz. AIÑAR-AIAR + UN(E) - AIER + UN(E)

Lehenengo bidetik abiatuz "Aiñar" hitza dugu oinarrian txillar edo iñar esan nahi duena. Mitxelenak hipotesi hori eman zuen "aier"en jatorria azaltzeko. Honen arabera txillar edo iñar asko dagoen lekua esan nahi du. Bigarren esanahi bat ere izan lezake "aier" horrek belar iharra edo lur harritsua. Aier > aller bihur zitekeen "yeismo" izenez ezagutzen dugun gertaera edo fenomenoaren hiperkorrekzioz. Alegia, "ayer" esaten entzungo zuten garaiko jendeek, eta oker esana zegoela pentsatuz "aller" hartu bide zuten zuzentzat. Beraz, "aller" nondik heldu den badugu, baina ondoko "u" horretaz zer esan? Ondoko "u" hori -UN(E)ren "u" hori bera dela esango nuke eta toponimoa agian noizbait ere ALLERRUN zela ere egingo nuke. Gerora, bukaerako "n" hori "inesibotzat" interpretatua gertatu zitekeen, hau da, NON? galderaren erantzun gisa eta ondorioz "Allerru" bezala gelditu.

OIARTZUN- Ez da erabat argia honen jatorria. Osagai argi bat badu, Oi(h)ar alegia, oihana edo basoa esan nahi duelarik, baina gure hipotesitxoari indar emateko "Oiarrrun" balitz hobe. Halarik ere, gure bailaran behin eta berriz entzuten dugun "Oarso" edo "Oiarso" horri helduz, ondorioren batera ailega gintezke. Mitxelenak, bere Apellidos Vascos (1973) liburuan Oihenarten "Not. de las dos Vasconias"eko aipamen bat egiten digu honela diolarik: "los vascos expresan por la palabra Oiarzo un objeto o un paraje silvestre". Beraz, izan liteke OIARZO + UN, baina izen honek ere aldi berean galderak pizten dizkigu, "oiar-zu" bere horretan ere badela basoa ugari den inguru-nea, eta -un(e) horren beharrik ez lukeela. Tira! utz dezagun horretan argi gehiago etor dakigun arte *. Dena den, komeni litzateke "Oarso"ren aipamentxo bat ere egitea OIARTZUN beraren latindartzetik bailetorke, erdal hitzun haien interpretaziotik hain zuzen ere. Oiarzun > Oiarzun > Oiarsum (akusatiboko bukaerarekin nahastea). Erromantzerako bidean akusatiboko gainerako hitzek izan duten bilakaera bera izan duela dirudi. Oiarsum > Oiarso eta gero hortik Oarso.

(*) Lapurdin badugu gainera antzeko beste kasu bat, LOHIZUN(E). Hemen ere Lohi + zu + un(e) dugu, lohi handia dagoen tokia.

LINTZIRIN- Gure inguru honetan lintzura edo lintzira esaten zaio aintzirari. Gainera, aidanez, egun izen hori duen tokian aintzira zen garai batean, hartara gure ustea indartuz. Beraz, LINTZURA + UN(E) > LINTZURUN-LINTZIRUN. Zen gertatzen da, ordea, lehen izen horretako bi "u" horiekin? Eta zer, bigarren horretako "u" horrekin? Lehenengokoen kasuan zail gertatzen da fenomeno asimilazio hutsez azaltzea, baina litekeena da, izan ere, bigarren "u" hori sudurkariaren eraginez itxi zitekeen, eta tarteko "u" hori beste "i" horien eraginez asimilatu. Bigarren aukera horretarako ere asimilazio bera hartu beharko genuke kontuan.

LARRUN- Hau ere inguruko mendi baten izena dugu, baina honen kasuan ilun gelditzen da jatorria, ene ustez bi izan baitaitezke: LARR(E) + ON > LARRON Kontsonante sudurkariaren eraginez o > u -LARRUN. Eta beste aukera LARR(E) + UN(E) larrea dagoen tokia.

Bukatzeko aipa dezagun IRUNen kasua. Irun izena ez da batere argia, baina beste zenbait toponimori begiraturaz gero argi pixka bat sortzen da. Irun izena nondik heldu

den aztertzean, jatorri bat baino gehiago etortzen dira gogora. Izan liteke I(H)I + UN(E) ihia (erdarazko junco) dagoen tokia, eta honek baluke loturarik hango Amabirjinaren elizarekin, delako Amabirjinaren irudia ihi artean agertu omen zen-eta. Halere, ez naiz ni jatorri honen oso aldeko, eta beste jatorri honi sinesgarriago deritzot; IRI+ UNE, hiria, zitudadea dagoen tokia. Antza denez erromatarrek bazuten asentamenturik bertan, gero eta argiago omen dago puntu hori eta gure inguru honetan garai hartako giza bilgunerik garrantzitsuena izan zitekeen, harresiz inguratutako bizitokia. Homen haritik kontuan hartu behar ere dugu euskaldunon hiri nagusia zen IRUÑEA ere jatorri berekoa izan litekeela, arrazoi handiagoz, inguruko herrixka eta baserri-etxaldeetatik salerosketara joaten zirenentzat iri-unea zen hori, harresiz inguratua. Euskal Herrian beraz, bat baino gehiago dira iri-uneak: Iruñea, Irun, Iruña Oka...

1995EKO URRIA
JOXE LUIX AGIRRETXE

- Michelena, Luis, 1961, *Fonética Histórica Vasca* Donostia, Diputación Foral de Guipúzcoa, (1977)
- Michelena , Luis 1973, *Apellidos Vascos* Donostia, Txertoa. (Pág. 135)

KOPLA ZAHARRAK

(Nagusiari)

1'go abeslariak

Udaberrian loreak dute
landa guztia edertzen
zuaiz gañean diarduala
birigarroak kantatzen.

Etxe onetako nagusia jaunak
oyal ederrez txamarra
pitxi politez apaindua da
soñean daraman kapa.

2'go abeslariak

Orain nik ere asi nai nuke
nagusi jauna koplatzen
jaun prestu orrek barkatuko dit
ongi ezpanaiz mintzatzen.

Berarengandik itxoiten dugu
eun duroko txartela
garai onean pozkidatzeko
triste daukagun sabela.

(Etxeko andreari)

Biyotz oneko andre zabala
ama onaren alaba
goimaitasunez joaten zera zu
iñon negarrikan ba'da.

Bai ta errukiz txukatu ere
beartsuaren negarra
erri guztian ala diote
zu aingeru bat zerala.

(Sendi guztiari)

Krabelintxuak bost orri ditu
larrosatxuak amabi
etxe onetako sendi ederrak
loretegia dirudi.

(Azken agurra)

Agur ta agur, etxekotxuak
Jaunak gabon dizutela
biotzez esker onak emanaz
orain ba'goaz aurrera.

Agate Deuna jatxi dedila
gozoro zuen artera
guzti-guztiok eramateko
zeruko gozamenera.

(Ziñegotziari)

Etxe onetan bizitzen zaigu
ziñegotzi bat jatorra
emengo gazte taldeengandik
artu zorion agurra.

Gizon orreri opa diogu
osasuna ta pakea
orain bezela urte askotan
zoriontsu izatea.

(Apaiz Jaunari)

Agur etxe ontako apaiza
agur dagizut biotzez
Kristo'ren jarraitzallea zera.
Jaungoikoaren bitartez.

Ni ez baldin ba'naiz engañatzen
esango dut bereala
zerutik jetxitako santun bat
apaiz orixe bai dala.

(Lendakariari)

Jel Batzoki'ko lendakaria
etxe ontan bizitzen da
ori bezelako gizonarik
iñun billatutzen ez da.

Gora gure lendakaria
gora bai biotz-biotzez
gure biotzak poztutzen dira
zutaz gogoratu utsez.

* * *

OHARRA.- Kopla hauek Maria OLASAGASTI NIETOren etxeko argazki zaharren artean aurkitu eta zure eskura, irakurle, jarri ditut.

AGUSTINA PONTESTA GARMENDIA

ZABARRE ETA BEGIBAKAR KAPITAINAK

Begibakar itsasuntzi batez zihoan, Zabarre, Hankakbakar eta Bizarzurirekin. Eta bapatean, **boounm...** izugarrizko danbatekoa. Bizargorri eta bere itsas-lapurrak ziren. Orduan, Zabarrek esan zuen:


- Itsaslapurrak begibistan!
- Prestatu estriborreko kainoiak!
- Hemen Bizargorri kapitaina! Zein dago hor?
- Hemen Begibakar kapitaina!
- Zabarre! Prestatu kainoiak!

Bounmm, bounmm, bounmm!

Eta azkenean, untzi beltza hondoratu egin zuten. Ondoren Lezora itzuli eta ospatu egin zuten. A, eta Bizargorriren altxorra denon artean banatu egin zuten.

Hura festa hura!

IRANDATZ AURKENERENA ARBELAITZ



Eta bapatean, „booumm! izugarrizko danbatekoa. Bizargorri eta bere itsaslapurrak ziren.

HAUR ETA GAZTETXOEN LITERATUR LEHIAKETA 1999

Lezoko udal liburutegiak urtero antolatu ohi duen lehiaketak uzta ederra eman zuen iaz, olerkien kopuruari begiratuz gero norbaitek bestelakorik pentsa badezake ere. Aukeran olerki gutxi, bai, baina guztiak maila onekoak, luze gabe ikusiko duzuenez. Ipuinak, aldiz, erruz, eta, tartean, oso lan txukunak. Guztira 162 idazlan aurkeztu ziren: 3 olerki (6-8 urte/1. 9-11 urte/1. 12-14 urte/1) eta 159 ipuin (6-8 urte/70. 9-11 urte/83. 12-14 urte/6).

Ondoren, irabazleen zerrenda ipini dugu, eta, jarraian, saritutako lanak.

"VI. JON GARBIZU OLERKI SARIAK" (1999)

- (6-8 urte) Iraitz Ugalde Pikabea: "*Urte berriari*".
- (9-11 urte) Garazi Ugalde Pikabea: "*Ametsetan*".
- (12-14 urte) Luzia Aranburu De Lacal: "*Izarrez izar*".

"VI. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK" (1999)

- (6-8 urte) Melanie Schroers Gezala: "*Amaia eta lore magikoa*".
- (9-11 urte) Unai Arteaga Taberna: "*Neskamearen diarioa*".
- (12-14 urte) Maddalen Dorronsoro Amiano: "*Martera goaz*".



URTE BERRIARI

Urte berri zatoz
zure zai egon naiz,
zabaldu zure ateak
eta bertan sartuko naiz,
gauza zaharrak atzean utzi
eta berrien bila joango naiz.

Ongi etorri, urte berri,
gauza onak ekarri.

1999ko azaroaren 12a

IRAITZ UGALDE PIKABEA • 8 URTE



AMETSETAN

Hemen nago bakardadean
nire etxola ederrean
loak hartu nau bat-batean
gelako ohe gainean.

Amets ederrak egin ditut
lo nengoen bitartean
esnatu egin naiz halako batean
maindire zuri artean.

Nork tapatu nau
ametsetan ari nintzenean?
Ama izan ote da,
egunero bezala,
muxu ematera etorri denean?
Edo agian aita izan da,
goizaldero bezala
lanerakoan agurtu nauenean?

Enara bat bezala
galduta nenbilen noraezean
zeru hodeitsu eta ilunean
eguzki izpi bat ikusi dut aurrean
hori jarraitu eta sartu naiz
kabi goxo eta epelean.

Nork estali dizkik, nork, ametsak
lotan nengoenean?

1999ko azaroaren 13an

GARAZI UGALDE PIKABEA • 11 URTE



IZARREZ IZAR

Izarrez izar
saltoka nabil
gauero zurekin.

Egunez berriz
tximiniaren alboan
epeltasunaren ondoan.

Gauetz ametsetan
ikusten zaitut,
egunez nire pentsamendu
barruan zaitut.

LUZIA ARANBURU DE LACAL • 12 URTE



AMAIA ETA LORE MAGIKOA

Behin batean bazen Amaia izeneko neska bat. Hamaika urte zituen. Egun batean Amaiak zelaira joatea pentsatu zuen eta zelaira abiatu zen. Amaia nekatuta sentitu zen eta eseri egin zen.

Bapatean:

- Ai, ai, ai! -entzun zuen. Amaia korrika altxatu zen eta esan zuen:

- Zein izan da?

Orduan lore batek erantzun zion:

- Ni, lorea! Zapaldu egin nauzu!

Amaia, hori entzuterakoan, harriturik gelditu zen. Ezin zuen sinetsi ikusten zuena. Orduan, loreari baimena eskatuta, etxera eramán zuen. Baina Amaiak ez zekien lorea sorginduta zegoenik. Eta ohera sartu zen lorearekin.

Bitartean norbait enteratu zen Amaiak lore hori etxean zeukala, eta gauean lapurrak Amaiaren etxera sartu ziren lorea lapurtzeko. Baina lorea magikoa zen, eta magiarekin etxetik kanpora bota zituen. Hurrengo goizean loreak kontatu zion Amaiari gertatutakoa:

- Lapurrak zure etxera sartu dira, eta nik bota egin ditut hemendik.

Orduan Amaiak musu bat eman eta lorea printze bihurtu zen. Printzeak esan zion Amaiari:

- Nahi al duzu nerekin ezkondu?

Amaiak baietz esan, eta ezkondu egin ziren. Eta zoriontsu bizi izan ziren.

MELANIE SCHROERS GEZALA • 8 URTE



NEKAMEAREN DIARIOA

Martina Arruti, 1994ko urtarrilak 1.

Diario maitea:

Azkenean lortu dut lan bat. Harrixutarren etxean nago, neskame modura. Ez da bereziki nik nahi nuen lana, baina langabezia dela eta, konformatu beharra daukat. Nire nagusiarekin oso gustora nago. 35 urte ditu, altua eta argala da, eta horretaz aparte, oso guapoa da. Alaba bat dauka, 15 urtekoa eta oso atsegina da. Lanik ez daukagunean elkarrekin edozertaz hitzegiten dugu, ahizpak bagina bezala. Beraien etxean jan, eta batzuetan lo ere egiten dut. Nagusiari esker, orain dela gutxi, hilabete bat edo, hil zen nere amaren tristurak arintzen zaizkit. Jakingo duzun bezala, jende askok ez du begi honez hartzen nire lanbidea. Nire ama ere, neskamea zen, eta esaera hori ekartzen dit gogora, berak esaten zuena, jende horrek:

"JENDILAJEEN ESANAK
BETI GEZURRAK".

Berria naiz Oñatin, lehen Oiartzungoa nintzen. Han ez dago jendilajerik, baina Oñatin, behar baino gehiago. Behin, bat hurbildu eta esan zidan:

- Aizu neskaxa, ez zaitut hemendik inoiz ikusi, berria al zara?

- Bai, hemen berria naiz. Lehen Oiartzungoa nintzen baina orain Harritzutarren etxean nago.

- Zer, Harritzutarraren neskalaguna al zara?

- Ez, neskamea.

Orduan, tonoa jeitsita esan zuen:

- A, neskamea...

- Bai! Eta oso harro nago nire lanbidez.

Berak jendilaje guztiari kontatu, eta handik aurrera mesprezuz begiratzen naute. Hala ere, ez diot kasu egingo horrelako jendilajeari, ze beraiek lotsatu behar dute beraien buruaz.

Martina Arruti

UNAI ARTEAGA TABERNA • 11 URTE

MARTERA GOAZ



Bazen behin Lezo izeneko herri bat, 3000. urtean oso kutsatua zegoena. Lezo, 2000. urterarte oso polita zen, baina handik aurrera poliki-poliki kutsatzen hasi zen. Lehen ur gardena zena, zikin bihurtu zen. Mendi berdeak, zaborrez beteak zeuden, eta gero eta fabrika gehiago jartzen ari ziren, eta bertako jendeak ezin zuen ezer egin. Parke garbiak zikin zeuden eta umeez dagoeneko ez zuten hara joan nahi. Alkateak ere ez zekien zer egin arazo honen aurrean.

Egun batean, alkatea arazoa konpondu nahian zebilenean, beste herri batera bizitzera joatea bururatu zitzaion. Herriko geografoak beste herri apropos bat bilatzen hasi ziren. Bilatu eta bilatu, eta orduan konturatu ziren planeta guztia kutsatua zegoela! Orduan, herriko neska bati Martera joatea bururatu zitzaion. Baina noski, lehenik untzia prestatu behar zuten, nortzuk joango ziren aukeratu... Azkenean, alkatea, arkitekto bat, martzianoen hizkera zekien bat, arkeologo bat, astronauta bat, astrologo bat eta zientifiko bat izan ziren aukeratuak. Untzia egiteko berriz, NASAko lau untzigitze etorri ziren, eta untzia aste betean egin zuten.

Idea bururatu eta hiru hilabeteetara, egun handia iritsi zen. Denak oso goiz jeiki ziren dena ondo atera zedin. Goizeko 10:00etan Lezoko kanpoaldeko lautada batean espaziountzia Marterantz bota zuten. Bidaia luzean, denetik gertatu zitzairen. Bat zora-biatu egin zen, beste bati etxean maletak ahaztu zitzaizkion, eta horrelako xelegekaria asko eduki zituzten bidaian. Okerrena, Martera iristear zeudela, meteorito bat erori zitzairen, eta espaziountzian zulo bat egin zuen. Zorionez, zuloa azkar konpondu zuten. Martera iritsi zirenean espaziountzitik jeitsi ziren, baina ez zuten inor ikusi. Norbait bilatzen hasi, eta txori arrosak, unxi horiak, behi moreak... ikusi zituzten, baina atentzioa gehien deitu zien gauza, mendiak berde-berdeak eta ura garden-gardena zegoe-la izan zen. Gauza berriak bilatzen jarraitzen zuten bitartean, martziano talde bat hurbildu zitzairen. Beraien hizkera zekien lezoarrak, beraien arazoak kontatu zizkien, eta Marteko alkatea errukitu egin zen. Festa bat antolatu zuten ospatzeko, eta bukaeran akordio bat sinatu zuten.

Handik bi asteetara, Lezon gelditzen zen jende guztiak maletak egin, eta nahiz eta beraien Lezo maitea uzteak pena eman, Martera joan ziren. Hangoekin primeran moldatzen ziren. Festak antolatzen zituzten, lehiaketak ere bai... Eskolara haur guztiak batera joaten ziren, helduak ere lan elkarrekin egiten zuten, parkeetan arratsaldero jende pila bat biltzen zen...

Handik aurrera denak oso zoriontsu bizi ziren, baina denak zeukatzen bihotzean beraien betiko Lezo.

MADDALEN DORRONSORO AMIANO • 12 URTE

FRANTXIXKU LIZARAZU

LIZARAZU'tar Frantzisko (Lezon, 1894 jaioa), zazpi seni-deetatik (Austiña, Frantxixku, Pilar, Luixa, Romana, Maria eta Margarita) bigarrena zen.

Bere bizitzaz gauza handirik ez dakigun arren, badakigu lanbidez irakaslea zela eta Hondarribira joan ondoren bertako alaba zen Josefa Sagarzazurekin esposatu zela. Zortzi seme-alaba aita izan zen, hau da, bost seme (Eujenio, Juanito, Faustino, Kandido, Frantxixku) eta hiru alaba (Pilar, Maria eta Pepita).

Arestian esan bezala, irakaslea zen, eta oso estimu handia zuen Hondarribiko herriak; irakasle ona izatez gainera, izakeraz oso maitekorra, alai, eta gizon atsegina zelako (horrela dio bere iloba den Maritxu Salaberria, estankokoak).

Gerla hasi eta familia osoa Argentinara joan zen eta maiz samar etortzen baziren ere, bertan geratu ziren betirako.

Beraz, eskuartean dituzuen bertso hauek, Frantxixku Lizarazuk Hondarribiko herrian jaso zuen omenaldi egunerako eginak omen dira eta gure herriko adinekoek ezagutzen dituzten arren ez dakite nork eginak izan ziren edota papere-tan ez da agertzen behintzat egilearen izenik. Norbaitek baleki adieraz bezaigula, eskertuko genioke eta.

Dena den, gure herriko historian duten inportantziagatik ezkututik argitaratzea iruditu zaigu egokien eta horretarako dauden-daudenean sasoi hartako grafiaz idatzirik doazkizue.

Gure arbasoekiko soka eten ez dadin, hona bertsoak armonia ederrean kanta ditzagun:

AGUSTINA PONTESTA GARMENDIA

- 1 -

Agur Lezo'ko anai t'arrebak,
 Agur nere auzotarrak,
 Agur Jaizkibel mendi ertzeko
 Seme jator euzkotarrak;
 Jaizkibel-pean jaioa nire
 Goiko Jaunari eskerak
 Auzo'tar naiz ba ezin ukatu
 Auzo'tar naiz ba ezin ukatu
 Adiskide Lezo-tarrak

Gure jaiotzatikan
 auzotar bagera,
 onek beartzen gaitu
 alkar maitatzera...
 gañera beste gauz bat
 noa esatera,
 gogotsu natorrela
 zor bat ordaintzera

- 2 -

Oroitz goxo bat daukat ementxe
 Lezo'ko seme batentzat,
 Oroitz xamur au bizi guztiyan
 Zor diotela deritzat;
 Irakasle ta gidari ona
 Bera izantzan neretzat
 Biotz barrenen esker ugari
 Biotz barrenen esker ugari
 Gordeak dauzkate ordaintzat.

Aurtxo txikientzako
 beti zan maitekor,
 argana gogo txarrez
 etzan joaten iñor;
 irakasle atsegin
 argi eta bizkor...
 ¿Lezo'tar jator ari
 zenbat diogun zor?

- 3 -

Lizorazu'tar Frantzizko jauna
 Dei zaió maisu on ari,
 Ondarrubira zori onien
 Jaun au zitzaigun etorri;
 Maitasunezko ituri ona
 Lezo'tik zigun ekarri,
 Ta maitasun au aurtxocai zigun
 Ta maitasun au aurtxocai zigun
 Biotzetan ezarri.

Ikusten detanien
 On Frantzizko jauna,
 aita balitz bezela
 noa berangana ...
 maitasuna bai daukat
 arik berak emana,
 bizi naizen artean
 gordeko detana.

- 4 -

Ikastolan zan bere lanetan
 Guziz gogotsu saiatzen,
 bein eta berriz antxe aikozan
 Borondatez erakusten;
 Bere esanak bat- edo-bestek
 Ez bazituan oldozten,
 Orrengatik etzan erraxa
 Orrengatik etzan erraxa
 On Prantzizko aserraten.

Zerbait ona badaukate ba
 Zor diot berari,...
 t'ain seme onak ditun
 erri txiki oni;
 nere maisu jaunaren
 erriar denori,
 eman nai dizkitzuet
 eskerrak ugari.

OHARRA.- Bertso hauek Maria OLASAGASTI NIETOren argazki zaharren artean aurkitu ditut.

ELEAREN IRAULTZA

Ele bat
hegaldatau da
olerkarien erresumatik,
biziki handia den
zerbaiten bila
abiatzeko,
hots,
itsaso bazterreko
hegazti basen
askatasuna
erdiesteko.

Preso
bait zeukaten
liburu hautsezatuan
ezkutatuta,
olerki estu
zein
ilun baten
baitan.

Pozik doa
itsasoa bukatu
eta
lurra hasten den
gunera,
heriotzarik ezean
oro
bizitza den
unera.

Amildegiko
hegazti basak
ditu
horretan
bidaia-lagun.

Askea da
jada
elea,
idazlearen irudimena
gibelean utzita,
geroa du
berrea.

(III. Jautarkol Olerki Saria. Erreterria, 1999).

LANDER ZURUTUZA

UDABERRIA

Udaberria txoratzekoa da. Begira zelai zabalak nola dauden lorez beteta, zenbat margo edo kolore nola tolestuta, ez da gizonik orrela landuko ditunik. Gero mendi aldera joaten bazara, orain irtetzen dira iratze edo garuak, ni egon naiz begira nola irtetzen diran, jaiotza denak bezala lurra ireki eta salto egingo balute bezala, indarrean. Ori bezala zuaitzak ere nola botatzen dituzten beren kimuak zoragarria da. Ori bai dela "miraria". Guk lur mutur bat lantzen genuen eta egon izan gara txundituta begira nola jaiotzen diran, zeu begira zaudela, lekak edo bainak, babarrunak eta abar. Nire senarrak beti esan oi zuen beretzat natura zela jainkoa, ongi begiratu ezker txunditzekoa dela, orrelako gauza ederrak ikusirik ezin leikela triste edo animorik gabe bizi. Oraintxe dagon eguzkiarekin eta ollar bat ere ari da kantari, geuk ere kanta dezaiozun udaberriari:

Udaberria etorri zaigu
zoragarria benetan,
eguzki gozo askoa
ikusten degu goizetan,
kalera irtendakoan
irriparra ezpainetan.
Orrelako giroarekin
ezin bizi penetan (ber.)
Orrelako giroarekin
ezin egon penetan.

MARI CRUZ GARMENDIA UGARTE

ANTON ABBADIARI BURUZKO HITZALDIA

Lezon, 1998 - XII - 10ean

Hizlaria: Patri URKIZU jauna.

Anton ABBADIAREN izena berak idatzi zuen bezala erabiliko dugu, nahiz eta era askotara ikusten dugun egunotan.

Dublinen jaio zenez, "Anthony" izango litzateke zeren eta garai hartan Dublinen ingelesez mintzatzen baitziren.

Ama irlandarra eta aita euskalduna (zuberotarra, hain zuzen) zituelarik, bi horien loturatik, harremanetatik sortu zela 1810ean halako gauza esplosibo bat bailitzan Anton Abbadia eta ia mende guztia bizi izan zuela, 87 urte zituelarik zendu baitzen.

XIX. mendea oso mende eztabaidatsua izan zen, gerlez josia, erromantikoak, kon-terbadoreak eta liberalak eta abar, e.a., beraz, hainbeste urte bizi izan zenez esan behar dugu bada, mende guztia oso ondo ezagutu zuela.

Esan baita ere, etxe oneko semea zela (noizbait Hondarribira joan baldin bazarete eta Bidasoaz bestaldeko jauregi hura ikusi baldin baduzue, eta horko nagusia, jabea nor ote den galdetu baduzue, Anton Abbadiarena dela erantzungo zitzaizuen eta dudarik ez, gizon aberatsa izan zela), baina aberatsa izanagatik bere paperetan agertzen dira bere bidaietako kontuak zehatz-mehatz nola eramaten zituen, kontu-emaile ikaragarria izango zen zeren eta azkeneko xentimoak eta sosak nola gastatzen zuen idazten baitzituen. Beraz, xuhurra ere izan zen.

Eta aita zer dela eta ote zegoen 1810ean Ingalaterra aldean? Hemen historialari guztiak ez datoz bat, baina badirudi Davant-ek (zuberuakoa hau ere, idazlea, historialaria eta Abbadia pastoralaren egilea) honek dioenez: Abbadiaren aita ardo-saltzailea omen eta negozioetan zebilela (datu hau ez dagoen arren oso garbi). Eta beste batzuk diotenez aldiz, 1789an Iraultza Frantsesa sortu zenean nobleek alde egin behar izan zutela eta lehendabiziko lekua Londres izan omen zen eta han zegoela Ameriketarako asmoa ere izan omen zuen baina azkenean, Londresetik Dublinera jo eta han emakume aberats batekin ezkondu omen. Eta emakume hori protestantea zen. Xehetasun hau ez da askotan aipatzen baina, semea arrunt katolikoa aterako bazitzaion ere, familiako zati handi bat protestantea izan zuen Anton Abbadiak.

Lehenbiziko alaba bat izan zuten eta gero hiru mutil. Hiru anaia hauek euskal munduan bere inportantzia izan dutelarik. Jean Charles, Eñaut eta Anton.

Zergatik dira euskal munduan hain inportanteak? Bada, joan bazerete Behenafarroa aldera, Baigorri ondoan badago jauregi eder bat, oso polita eta duela gutxi berriztatua; ETXAUZeko Jauregia deritzana, eta diotenez, Euskal Herriko gaztelurik zaharrena

omen, XI. mendekoa hain zuzen. Gaztelu honetan bizi izan zen Jean Charles honen iloba batek izugarritzko tratua omen zuen Charles Chaplin aktorearekin zeren eta, Abbadia hori zine-zuzendaria zenez Argentinan, Hollywood-era joateko aukera izan zuen, bertan izugarritzko arrakasta lortuz eta horren ondorioz, Charles Chaplin eta biak batera etortzen omen ziren Euskal Herria bisitatzeraz gaztelu honetara.

Beraz, Anton Abbadiaren familia zazpi/zortzi anai-arrebez osatua zen, garai hartan oso normala zen bezala. Erabiltzen zituzten hizkuntzak; ingelesa amarekin eta euskara aldiz, aitarekin. Hor ikusi daiteke aitari ez zitzaioela euskara sekula ahaztu eta gainera bazuela euskal ekimenetarako halako joera (adib., bere poltsikotik ordaindu zituen 1827an Toulousen argitaratu ziren lehenbiziko GRAMATIKAK). Ez da harritzekoa beraz, semea hain euskaltzalea izatea, esate baterako; euskal gramatika eta euskal kantuak ere arrunt ondo ezagutzen zituen Antonek.

Eta euskal kantuak zergatik ezagutzen zituen bere aitak? Bada, Zuberoan denak kantariak dira eta Humboldt-ek zioen bezala, euskaldunen artean **zuberotarrak italiarrek bezalakoak dira**, ahots ederrekoak, ahots politekoak eta kantari bikainak.

Bitxia da baina Antonek gazte denboran idazten zituen ingelesezko poemak euskal doinuen arabera kantatzekoak izaten ziren. Beraz, pentsatzen dugu Dublinen ere aitak euskaraz kantatuko zituela Eguberrietan,... e.a. eta hori dela eta, familia guztia zaletuko zela euskararekin eta euskal kantekin.

Izugarri azkarra zen Anton hau, baina pentsatu behar duzue garai hartako eskola egun bat nolakoa izango zen. Berak bere *<egunerokoan>* utzi zuen idatzita, hau da, 1826/1827an gutxi gora behera. Esan behar da baita ere, Dublinen urte batzuk pasa eta gero, eta Frantzia gauzak bere onera etorri eta normalizatu zirenean, Iraultzak eta Napoleon Bonaparte eta horiek guztiak desagertu zirenean bada, berriro Frantziara itzuli eta Frantziako Tolosa inguruan gelditu zirela. Eta honela dio bere *egunerokoan*:

Hamasei urte ditut, goizeko 7:00etan jaikitzen naiz. 8:00etan eskolara noa. Hemen irakasle zahar batek Geometriako kontu miresgarriak irakasten dizkit. Astelehen eta ostiraletan beste irakasle gazte batekin Fisika ikasten dut, modu benetan atseginean. (Kontutan eduki behar dugu Anton Abbadia astronomo-fisiko bezala ezagutzen dela batipat) 11:00etan Despan jaun kimikari jakintsuarekin nabil. Eguerdian liburutegira joaten naiz atsedendalditxo bat hartzera. Hemen Geografia irakurtzen dut, batxiler-titulurako prestatzen ari bainaiz. 13:00etan Lécluse jaunaren eskoletara noa eta 14:00etatik 16:30etara arrunt aspertzen naiz psilogismoez (Filosofia ez zen nonbait bere gai gustukoena, gehiago maite baitzituen astronomia e.a. antza denez). 17:00etan afaltzen dut. Ondoren, algebra eta ingelesa Buison gure lehen filosofo serioarekin ematen dut beste ordu batez. Eta arratsaldea geometria-irudiak eginez edo Chateaubrian, Delavigne edo beste literaturar-izarren bat irakurriz bukatzen dut. 10:00etan amaitzen dut eguna.

Esan dudana bezala Toulousen Lécluse irakasle horrek argitaratu zuen 1827an gramatika bat frantsesez GRAMAIRE BASQUE zeritzana, eta hori egiten eta ordaintzen Antonen aita zen Eñaut-Mitxelek lagundu zuen. Badira gutunak ere hori diotenak.

Anton Abbadiak bere bizitza guztian eta 80 urte zituela ere bere bidaiak egiten zituen, hala nola, Jerusalemera, Afrikara, Haitira..., ez zen leku batean gelditzekoa. Leku bat diodanean etxe bat zeukan lekuaz ari naiz, adib., Parisen bazeukan etxea baina..., munduan zehar ibiltzen batera eta bestera etengabe!

25 urte zituenean eta bere sorlekua bisitatzeko asmotan edo, Ingalaterra, Irlanda eta Eskozian barna ibili zen. Ordurako Zuzenbidea ikasketak bukatuak zituen eta zer egin zuen? Bada, bere arbasoen lurrak ikustera joan zen.

Azken finean, Anton Abbadia astronomoa, idazlea, e.a., zer zen? Zertaz bizi zen? Rentista bat zen, hots, lurrek ematen zioten fruituez eta emaitzez bizi zen.

Horregatik joan zen Irlandara berak ongi azaltzen duenez bere idatzian. Xehetasun guztiak idazteko joera zuenez, apunteak hartzen zituen bere bidaia guztietan. Bere teoria hori baitzen: **Bidaietara bakoitzak bere koadernoak eraman behar dituela alegia.** (Eta garai bateko koaderno azal lodi horietako bat aurkitu nuen Parisen eta hori argitaratu ere argitaratu dugu ineditoa baitzen eta bertan aurkitzen dira berak egindako irudiak, apunteak, e.a.)

Idatzietan kontatzen du Londresera joan zenean teatrorra joan zela, gero Liverpool aldera jo zuela eta bertako meatzari eta langile jendea nola bizi zen..., dena kontatzen du eta baita Londreseko hautaketa politikoak ere. Hemen aipatzen du hango politikariak kaletik pasatzerakoan azak eta nola botatzen zieten jendeak eta horrelako istorioak. Azkenik, aipatzen du nola dabilen Dublinen bere arbasoen lurretan eta bertan ikusi ahal izan zuen sosik ere ez ziotela ematen hango behiak eta lurrak ere aski eskasak eta pobreak zirela. Eta gauza bitxiena: Abbadia lege-gizona zenez, gartzelak bisitatzera jo zuen, ikusteko zenolako bizimodua den gartzelakoa, eta zer jan-edaten zuten jakin nahi zuen; eta soldata baten truke nola lantzen zituzten hango harrobiak, hitz batez, hango bizimodua nolakoa zen. Eta ohar oso interesgarriak ematen ditu gartzelako bizimoduaz.

Gero Irlandatik Eskoziara joan zen eta Eskozian badago hiri bat Edinburgo izenekoa eta munduko politena omen (berak dioenez) eta bisitatu beharrekoa. Handik Cambridgh-era eta hemen estropadak jokatzeko ari zirelarik berak ibai ertzetik korrika jarraitzen omen zituen bere burua neurtu nahirik edo. (Aipatu behar da, Anton izugarrizko atleta handia zela eta Parisetik Miarrizera etortzen zenean udako oporretan igeri egiten zuela baina distantzian luzean; Donibane Lohizunetik Endaiaraino e.a.). Dena den beti burua gauza bakarra zuelarik: *bidai handi bat egitea*, ekialdera. Ekialdera bakarrik ez, Afrikako bihotzera baizik.

Zeren eta garai hartan eta jende kultoen edo bidaiarien artean bai baitzegoen eztabaida bat, hots, zibilizazioa Niloren iturrietan zegoela edota, zeukala sorrera, eta beste batzuen ustez ez zen hori sorburua eta Abbadiak hori ziurtatu egin nahi zuen eta batez ere, **bidaiatu bai baina ez nolana**hi, helburu zehatz batekin baizik.

Eta pertsonak eduki dezakeen helbururik ederrenetakoa, bere lagun-hurkoa, besteak alegia, ondo ezagutzea da eta horretarako, besteen historia, kultura, hizkuntzak,...

ezagutu behar dira. Eta guzti hori kontuan harturik, horrela hasi zen ikasten. Bazekizkien, bai ingelesa, frantsesa, euskara, espainola, alemana eta arabiera. Afrikatik zehar ibiltzeko nahi eta nahiezkoa baitzen arabiera jakitea.

Beraz, bere bidaiak guzti horietan bat bada inportanteenetarikoak eta Etiopiakoak berau. 1838an hasi eta 1850 arte, hamabi urte pasatu zituen Afrikan, Etiopia ezagutzen batipat. Horretan, bere anaiak lagundu zion, (eta 2. tomo honetan bildu ahal izan ditut bere bidaietan eginiko oharra eta Zientzia erakundeetara bidalitakoak dira eta batez ere, Pariseko Société Géographique-k argitaratuak eta guk artikulu guzti horiek bildu besterik ez ditugu egin).

Eta hamabi urte horietan nola ibili zen Etioipian? Bada, misiolari bat bezala. Hankautsik eta ohar batean dioenez **“eskuarekin gehiago hankekin baino”** Zer esan nahi zuen? Egunero 30 Km. egiteko gauza zen mendiz-mendi eta gainera, mendi-gailurretatik. (Kontatzen du, behin mendi-gailurrera iritsi omen zen eta elurra omen zeukan belanetaraino eta mendien neurriak hartu behar omen zituen baina ezin, eguzkia hodeiek estaltzen zutelako eta eguzkia beharrezkoa zitzaien zeramatzan aparailuentzat, hitz batez, gizaki zuria inoiz pasa gabeko lekuetatik bera pasa zela, alegia). Eta erregaliak, opariak emanaz, oparo horien bitartez lortzen zuen herrialde desberdinak ezagutzea.

Baita ere, izan zuen anaia bat oso laguntzaile handia. Bere anaia oso gerlaria, borrokalaria zen eta hango buruzagi horietako baten lagun-mina, hain zuzen. Hori dela eta, bere ejerzitoak ere izan omen zituen bere menpe eta Errege Mikel izendatu zuten. Beraz, Anton asko lagundu zuen ikerketetan bere anaiak.

Alde batetik, ejerzitoa zegoen, bere anaia gudaria, eta bestetik, zientzi-gizona berau. Eta zer egiten zuen ikerketa horietan? Lehenik, Geografiako datuak hartu, liburu zaharrak kopiatu. (Kontuan eduki behar da Etioipian, kristau-zibilizazioa IV. mendez geroztikan dagoela eta badirela oraindik ere garai hartan bezalaxe liburu sakratuak; Biblia, e.a., eta liburu horiek kopiatzeko ohitura handi bat, hau da eskuizkribu edo manuskripto pila bat; kultura oso aberatsa benetan, eta zer egin zuen Abbadiak? Hango fraile pobreei manuskriptoak erosi. (Duela gutxi Abbadiaren mendeurrena ospatu zelarik. Pariseko Idazkari Prefektoa deritzana etorri zen. Frantziako Lehendakaria baino askoz inportanteago dena, Institutuko burua, alegia. **Kulturako Idazkari orokorra** eta honek honela zioen: **Zuek Abbadiaren idatziak eta liburuak eta,...** hona, **(Euskal Herrira) ekartzea eskatzen diguzue ezta? Bada, Abbadiaren euskal liburuak nahi badituzue bai, baina Etiopiako manuskrito horiek ez, inolaz ere. Zeren eta manuskrito horiek “humanitatearen ondare” baitira (Bistan da, argudioak nahi bezala erabili daitezkeela).**

Beraz, eta hariari jarraiki, Etioipian hamabi urte pasa zituen hankautsik, esklabu pila batekin, baina borroka handia eginez. (Adib.; Bere liburuak eramateko beharbada dozena bat astoren beharra izaten zuen ezta? Bada, Etiopiara eginiko lehendabiziko bidaiari ohartu zen, lurralde horiek denak burdinez beteak zirela eta berak zeramatzan aparailu-neurgailu horiek ez zizkiotela balio eta bi esklabu hartu eta Erromara joan zen lehenik eta lurralde urrun haietara misiolariak eramatea proposatuko dio Aita Sainduari.

Gero pariseko Geografi elkartean aurkeztu zuen ordurarteko bidaiaren berri ematen zuen txostena. Beste txostenen berri ere izango dute handik piska batera, non Geodesi-neurriak, hizkuntzak, literaturak eta ohiturak ere aztertu baitzituen. Bidaiari nekazina batetik bestera ibiliko baita: Norvegia, Espainia, Haiti,... beti azterketak helburu zituela. Eta 1884-1885ean beste bidaia luze bat prestatu zuen Ekialdera, gaztetako oroitzenak berritzeko eta ikerketa berriak burutzeko asmoz, eta Alkairo, Atenas, Alexandria, Beirut, Esmirna, Damasko, Napoli, Erroma eta beste zenbait hiritatik astronomia-oharrak jasoz.

1859an Lyongo Virginie Vincent de Saint-Bonnet, 28 urteko neskatzarekin ezkonduko da. Honek ehun mila liberako dotea ekartzez gain ondasun anitzen jabe zen. Eztei-bidaian alemaniara joan ziren.

Eta handik urte batzuetara Hendaia eta Donibane Lohizune artean dagoen paraje miresgarrian 340 Ha. lur ersoi zituen Antonek bere egoitza egin ahal izateko. 1860-1870 artean eraiki zuen neogotiko estiloko jauregi hau. Kanpoaldea harrizko krokodiloz, Afrikako beste irudi xarmantez eta Etiopiako irudi ikusgarriz ere horniturik dago. Eta oraindik ere ikus daitezke 1880an sarturiko 2 m. luzera duen teleskopioa eta hizkuntza ezberdinetako testu eta erretrauz jantziriko paretak.

Europar zen etiopiar eskuizkribu-bilduma aberatsenaren jabe zen Abbadia eta Etiopiako irakasleen hierarkian partaide. Eta Frantziako Geografia Elkarteko buletinean bere bidaia eta hizkuntza-azterketen berri ematen zuenez ezaguna egin zen eta zenbait ohorezko sari eta dominen ondoren, 1892an, Frantziako Zientzia Akademian lehendakari hautatu zuten.

Azkenik, Iman Ahmed, Gragne deituaren XVI. mendeko konkista eta espedizioak arabieratik frantseseratzen ari zela hartu zuen heriotzak 1897an.

Anton ABBADIA hizkuntzalari eta mezenas

1836an Agosti CHAHOREkin batera "Zazpi Uskal Herrietako uskalduner" zuzendurik. Etudes grammaticales sur la langue euskarienne delakoa argitaratuko du hitzaurre luze bat ipiniz.

Bestalde, Abbadiaren liburu edo eskuizkribu gehienak Testamentu zahar eta berrikoak eta sailduen bizitzez diren arren, ez dira falta astrologiaz, kalenderaz, magiaz, mediku-errezetez, musikaz edota, hizkuntzez dihardutenak.

Adibidez; 1883 argitaraturiko **FRANTSES-AMARIÑA HIZTEGIA** da Antonek hizkuntzalaritzaren arloan burututako lanik handiena inola zalantzarik gabe. Hamabost mila hitz inguru ditu eta denak, noski, bere frantses ordainez lagundurik daude.

Baina 1851eko udan Euskal Herrira bizitzera etorri zelarik berehala eman zien hasiera hain ospetsu bilakatuko ziren **LORE JOKO** edota "Concours de Poésie" deiturikoei.

Zer ziren LORE JOKO hauek? Bada, Erdi Aroan Proventzan hasi ondoren, Europa osoan hedatu eta XVII. mende aitzinean Nafarroan ere ospatu ziren norlehenka hauek. Abbadiak 1851tik 1897 antolatu zituen bere poltsikotik sari ederrak ordainduz.

Bertsoez aparte, beste joko anitz ere saritzen zen, hala nola; prosaz edo hitz lauz aurkezten ziren lanak, pilota-jokoan irabazle gelditzen zirenak, irrintzi-egileak, korrikalariak, aziendarik hoberenak aurkezten zituzten laborariak eta beste asko eta asko.

Horrela, II. Karlistada bukatutakoan, Abbadiaren etsenplua eredugarri bilakatuko eta ereindako hazia fruitua ematen hasi zen lurralde ezberdinetan. Begoñan, Beran, Donostian, Maulen, Aramaion, Donibane Lohizunen,...

Donibane Lohizunen 1892an antolatutak festetan jada, iragarkiak **ZAZPIAK BAT** ikurra zeraman, horrela euskararen banderapean zazpi probintzietako euskaldunak elkarretaratuz, egia bilakaturik amestutako **ZAZPIAK BAT**.

TRANSKRIBATZAILE: AGUSTINA PONTESTA

BERTSO-AFARIA

Hona hemen 1999ko Maiatzaren 7an Presoen aldeko ekimen batzordeak Ixkulin elkartean antolatutako afarian Iñaki Murua eta Jokin Sorozabal bertsolariek kantatutako bertsoak.

Gai-jartzailea: Joxe Luix Agirretxe.

- Hasierako agurra:

Jokin Sorozabal

1

Gabon denori gure lagunak
esaten zuen bezela
pentsatu degu bertsotarako
garaia oraintxe dela.
Ikusten baita, purua piztu
ta patxaran zaudetela
gaurko afariak eta bertsoek
on egin dakizutela.

3

Sukaldariak portatu dira
ezetz ez zait iruditzen
hortxe zebiltzan janari hoiek
beren puntuan karraitzen.
Arrai-zopa ta gero haragia
aspaldi horren premin nintzen
hoiek naiko lan izan dute bai
mahai luze hau zerbitzen.

5

Egia da bai, hauek afari
ona dutela zerbitu
nere sabelak zuen tokia
azkenerako gaintitu.
Zerbitzariak tarta zatian
puska batzuk eaman ditu
haseran asko jan baitet nik gaur
postria ezin kabit.

Iñaki Murua

2

Ongi etorri lagunartera
holakoxea behar du
iritsi eta gustora gaude
nola lagun ala otordu.
Gainera zorte paregabea
zuen artean daukagu
sukaldariei eskerrik asko
ederki afaldu degu.

4

Eskertu bear zen sukaldekoa
ta berdin zerbitzaria
ona zegola neuk ere hala
baina ote da egia?
Jokinek hola pelota eiteko
barruak izan bear dia
ona zegola eta hor bueltan
bialdu baitu erdia.

6

Egia esan du, arrazoi hori
noski ez gendun harrotza
geitxo jateko lekurikan ez
edota bestela lotsa.
Aizkenerako haseran asko
ta gero apetitu motza
berriro ere eukiko dek hik
sudurra zorrotz-zorrotza.

7

Mai-ixkin hontan ikusten degu
hemendik bista ederrik
bertsolariak jarri dituzte
ta ez dago esan beharrik.
Hemendik hauntza begiratzea
nik izango det alperrik
l-akik denak ikusten ditu
ta nik erdiak bakarrik.

9

Nere lagunak bertsoen bidez
neri egiten dit burla
mahai buruan jartzean kontra
ez naiz izaten sekula.
Baina antolatzen ari direnek
zerbait nai zuten kalkula
Sorozabalek mai-bururako
kategoririk ez dula.

11

Bertso kontuan hasi geranez
nik hartzen det hari bera
elkarte hontan sartutakuan
piska bat harritu gera.
Han jartzen duen testua ere
ah! zenolako aukera
ta hala ere Lezon oraindik
bertsolaik ez da atera.

8

Arrazoi dezu oraingoan'e
zu azkarra, alajaina!
baina erdia ikusten dezu
zeure sudurran ordaina.
Hobe zenduen mutur honetan
zen jartzea alajaina
ia erdiraino helduko zinan
zeu hemen jarri bazina.

10

Sorozabalek beti izan du
bertsoetan martingala
beure irudia aprobetxatuz
ahal dala nola hala.
Zuri burlaka ni ez naiz hasi
etorri ta berehala
baina aitortzen dut bertsoetarako
usaimen ona daukala.

12

Helburuz beintzat lagun artea
gidari duten kabira
heldu gera ta gu zuzenean
sartu bertso-afarira.
Lezo aldean bertsolariak
ez omen dute segira
bertso-afai asko eginezkero
laster aterako dira.

13

Afari asko eginezkero
bertsolariak berehala
iruditzen zait nere lagunak
eskarmentua daukala.
Baina guk orain, ta hemen norbait
behar degu nola hala
gai-jartzaile bat beintzat badute
ta demostratu dezala.

Ofizioetan:

Zu Murua 19 urte kartzelan pasa eta kalera irten berria den 45 urte ingurko gizasemea zara. Taberna batean baxoerdiak hartzen ari zarela 19 urteko neska gaztea, (J. Sorozabal) hurbildu zaizu eta bere maitasuna deklaratu dizu.

Hiruna bertso zortziko nagusian eta nahi duzuen doinuan.

Jokin Sorozabal

1

Hainbeste urte kartzela barrun
ezin litezke aguanta
baina noizbaten atera dute
eta hemen hau da marka.
Bere ondora joan et'ahotik
zerbait nai nioke kanta
poz piskat eman beharko diot
premian izango da-ta.

3

Amodioa aipatzen duzu
ta zernolako kontuak
urte askotan urruti egon
dira zu bezelakuak.
Gaur amodio asko ditugu
bakarrik gau batekuak
amodioak orain ez dira
lenago bezelakuak.

5

Beraz hoinbeste egingo dizut
ez apuratu laguna
zuk neri egindako eskeintza
oso pozik det entzuna.
Ni jaiotako gauean zinan
espetxe aldera juna
orain zurekin ospatuko det
urtebetetze eguna.

I. Murua

2

Poza bakarrik etzaidazu eman
eman zaidazu bi musu
aspalditxoan bakardadean,
maitasun premiz naukazu.
Aho zabalik, begi zabalik
ni zur eta lur naukazu
hemeretzi urtez amestutako
amodioa zera zu.

4

Horrelakorik entzun gabe're
ze desio entzun nezan
ia irtetzeko ere sarritan
egoten nintzan perezan.
Lengo hitz goxoak berriro ere
behar dizkidazu esan
nere bihotzak aspaldi ez duen
gozamena bizi dezan.

6

Nik zuregandik jasoak ditut
hain poztasun nabarmenak
bi buelta eta geio eman dizkit
dagoeneko barrenak.
Kartzelan preso pasatu ditut
biziko urte onenak
askatasuna zertarako du
bizitzen ez dakienak?.

-Bakarka:

Gaia: zuk non aldatuko zenuke lizar bat?

Iñaki Murua

Arrazoa etorri zait
zuzen- zuzenean
ta bota beharko det
zuen omenean.
Lezon nagola ohartu
bainaiz azkenean
hara nik aldaketa
non da aidanean
noski lenbizikoa
Jaizkibel gainean.

Nola leku gehiago
herrian badian
Lizara ta Garazi
hor dira abian.
Batzuk urrun-antxetik
daude inbirian
bigarreña aldatu
nahi nuke agian
inbiritan dauzkagun
hoin bihotz erdian.

Bi lizar aldatu
ta sasoi betean
etorkizuna nola
molda litekean.
Burrukan jardun ordez
beti atakean
atseden hartu nai dut
itzal horren pean
ta Euskadi batu bat
ikus noizbaitean.

*Gaia: " Zu Puerto de Santa Mariako zie-
ga bateko giltza zara "*

J. Sorozabal

Egia esan ezin
lan ederra jartzen
giltza hortxe ari da
sarrailatan sartzen
Gau eta egun ezta
lanean geratzen
jende asko ari da
horra barruratzen
ta aspaldian ezta
inor ateratzen.

Giltzan eginkizuna
ez dezagun haztu
atea iriki eta
bete edo hustu
Aspaldi ikusi da
hainbeste apustu
egoera egin da
piska bat erreztu
baina espetxeko giltzak
su etenik eztu.

Ta hoiek dira hemengo
atarramentuak
giltzak egin beharko
agindutakuak.
Ez dira bere kargu
bere merituak
askatuko lituzke
len sartutakuak
baina giltzan jabeei
eskatu kontuak.

-Puntuak jarrita:

I. Murua

*Ba al dakizu zer den
zuk bakardadea?
pertsonak izatea
hurbila gordea
Bakarrik egon behar
laguna ordea
hemen gaudenok degu.
bizitza hobea.*

*Haur gutxi izaten du
ama euskaldunak
Zentzurik ba ote du
honek esan dunak.
Geio izaten baditu
ama erdaldunak
seinale ez du balio
aitaren jardunak.*

*Arzallus, Arnaldo ta
Garaikoetxea
hoietzek pizten dute
Aznarren letxea.
Baina badaramate
eundoko martxea
segi behar lukete
oraingo antzea.*

J. Sorozabal

*Alkoholemia berriak
kezkatzen al zaitu?
baten batek bearko du
hori nabaritu.
Baina txofer ez denak
ez dauka delitu
kopiloto izateak
bentaja hoiek ditu.*

*Euroak bentajarik
ekarriko al du?
oso indartsua da
hoi dute zabaldu.
Naiz ta batzuk zerura
hain gora bialdu
len justu genbiltzanak
baietz asko galdu.*

*Pentsatzen duzun hori
adieraztazu
gai-jartzaile lan zaila
ematen didazu.
Nik pentsatzen dudana
entzun nai al dezu?
hemen gaiak ipintzen
kontu izan zazu.*

Orain joku-tankerako zerbait egingo dugu. Nik hemen boltsa bat daukat eta zuek bina jostailu edo tresna edota, dena delakoa atera eta hiruna bertso jarri nahi duzuen neurri eta doinuan. I. Muruak OBELIX atera du.

J. Sorozabal

Galia iparraldean
aspaldi omen zan sor
haurrek telebisioz
ikusten dute hor.
Hau bezain indartsurik
han ez denez inor
Saralegiren markak
haustera omen dator.

Gaurko honetan ziren
afaltzeko planak
eta sukaldariak
jateko esanak.
Hoiek denak bukatzen
guk nolako lanak
honek berak bakarrik
jango zitun danak.

I. Murua

Obelix galiarra
ezaguna oso
hemen gauden askontzat
liteke akaso.
Ezkerra behean dauka
eskubia jaso
hemen dago ttikitan
Xebastian Lizaso.

Egundoko enborra
eundoko gerritza
borobil-borobila
hau zeinek zerbitza.
Erromatarren kontra
Galiarren bizitza
euskaldunok´e hauen
antzera gabiltza.

Orain beste jostailu bat aterako dute: ZARTAGIA

I. Murua

1

Zartain berde-berde bat
lagun honek gura
horixe aterata
hartu dun itxura
Trikornio gisara
jasoa burura
"todos al suelo" esanez
azaldu zen hura.

3

Beraz berori zaigu
lenen frejituko
ta sutan jartzeari
egin behar uko.
Ttiki edo eskasa
horra hor lekuko
hortik jan izan balu
ez zan gizenduko.

5

Bi ezkeru hiru're
beharko ba tira
zartai polita da ta
zertan erretira.
Zenbait aho-zabalik
jarririk begira
sartuko litzaioke
kontrako eztarrira.

J. Sorozabal

2

Plastikoa egundoko
adelantua omen
baina ikusi zartai hoi
zeinen eskasa den.
Sutan jarritakuan
txarra degu zeren
bera prejituko da
arraultza baino len.

4

Zartai berde horrekin
gu hasten bagera
ez degu afaltzeko
holako aukera.
Ta gure otorduek
nolako galera
afaltzera joan behar
amaren etxera.

6

Zartai hori ez degu
hain izugarria
Obelixen buruan
hor dago jarria.
Baina ez dute pasako
hain trantze larria
bestela betetzeute
kontrako eztarria.

Oraingoan beste jostailua atera dute: TRENA.

J. Sorozabal

1

Bein behar ta oraintxen ere
jarri diguten pastela
esango nuke lezotar hauek
piska bat jota daudela.
Traste bat guri ematen hasi
ta trena eman bestela
esan liteke herri honetan
trenbide faltan daudela.

3

Bati "Topoa" deitzen diote
oso azkarra gainera
ta beste bati "Norteko trena"
aurrera eta atzera.
Horrekin nunbait ezin osatu
ez da naikoa, bai zera!
eta orain hau igoko'men da
Jaizkibelgo tontorrera.

I. Murua

2

Len bi trenbide badauzkate'ta
nonbait ez zuten naikoa
bata Renfe da ta bestea berriz
euskaldunen bidekoa.
Ta mai gainera ekarri dute
beste bat alajainkoa!
ttiki hau beintzat ez dute izango
abiada haundikoa.

4

Badakizue gabiritarra
baserritarra naizela
horrexegatik konparaketa
baserri giro bezela.
Ikustazue hau mugitzen da
igo eta berehala
esan liteke tren ttikitto hau
gaur susara dagoela.

Ondoren, beste tresna dute bertso-gai: AUSKULTAGAILUA.

J. Sorozabal

1

Guri jarri digute
oso tresna fina
pertonaren pultsua
neurtzen dakina.
Jendeari igartzen
eintzak alegina
emaitza emango dik
denentzat berdina.

3

Gaur bertso-afarira
gu Lezora juan
kafeak eta kopak
suelto inguruan.
Gutxi markatzen gendun
etorritakuan
zer esango ote du
abitzerakuan.

I. Murua

2

Dekatlonen erosi
hainbat marabila
beintzat gaur ekarri du
egundoko pila.
Azken hau zertako den
asmatzea zaila
auskultatu nai duna
etorri dedila.

4

Hau ere beharko da
noizean-noizean
baina ez hartu behintzat
nai dan bakoitzean.
Asteburuan gabiltz
wiskian haizean
gero honen premia
astelen goizean.

Lau oinak emanez, bertsoa osatuko dute oraingoan.

- Ziren, pakearen, herren, txarren
- Euskaltzale, ale, goragale, kale

I. MURUA

Naia eta ezina
txarrenetan txarren
ibilbide latz hori
degu pakearen.
Ehun da geiago urte
gabiltz bakez herren
gure arbasoak ere
halaxe izan ziren.

Ikuskizun munduan
bada hainbat ale
batzun pozgarri eta
besten goragale.
Euskal telebistakin
hainbat euskaltzale
txoratuta ikusten
beti "Goenkale".

- Maitasuna, diruduna, duzuna, osasuna.
- Gorria, larria, irria, eztarria.

J. SOROZABAL

Gizon, nik aditu det
zuk esan duzuna
hemen premizkoena
dugu osasuna.
Eta al balin bada
izan diruduna
harixe man behar zaio
gure maitasuna.

Bertsoarekin ezin
beti sor irria
batzutan ezinean
istilu gorria.
Kantatu nai ta ezin
hori da larria
latzak ikusia da
gure eztarria.

Ofizioetan:

GAIA: Zu Murua, 17 urteko alabaren (Sorozabal) ama zara, gaur goizean haren gela txukuntzen ari zarela, kondoi paketea aurkitu duzu haren txaketaren patrikan. Hiru bertso nahi duzuen neurri eta doinuan.

I. Murua

1

Zure txamarra ikusi eta
ia txoratzeko zorin
gaur goiz honetan lurrera ere
justuan ez naiz erori.
Ikusi eta neure buruai
ia esan diot, tori!
aizu alaba zer rarua dan
"Ducados" pakete hori.

3

Ustekabean nik patrikari
daunba! egin diot bisita
sekreturen bat egon ziteken
susmoa aurrez iritzita.
Harriturikan aho-zabalik
kaxa hori ikusita
honek prezinto osua dauka
ta zuk igual hautsita.

5

Aizu alaba, neroni ez naiz
hain atzerakoi halare
noski egin nintzan neure garaian
nortasun piskaten jabe.
Hau entzun zazu, aprobetxatu
edade onean zaude
goza ezazu seksuarekin
elizai kaso egin gabe.

7

Urtez aurrera, eta ez dut nai
neure bururik engaina
orain kalera alabarekin
nola juan alajaina!
Baina zuk beintzat ein nai dezuna
hartu egoerari gaina
ez nuke naiko zuk sufritzerik
nik sufritu dudan aina.

J. Sorozabal

2

Arrazoi dezu, begia bota
diozu pakete honi
tabako hori zuk probatu
eingo baitezue armoni.
Gazteentzako soilik direla
sarri entzuna nago ni
berrogeitikan gorakoentzat
ez omen dira komeni.

4

Hara amatxo, denborarekin
gauzak aldatu egin dira
eta gaurkoak ez gera bizi
ez Bibliari begira.
Garai batetik gauzak bastante
joanak dira urrutira
konfesatzera joaten zinan zu
ta ni berriz, farmazira.

6

Hara amatxo poza hartzen det
hau entzuten dedanian
ez nun espero zu ikusterik
gisa hortako planian.
Ustekabean ama-alabak
antzekoak geranian
zuri re deitu egingo dizut
kalera goazenian.

8

Zu lasai ama, nola alaba
hain inuxentia ez den
eta zergatik zu re ez zera
gurekin kalera jeisten.
Gu larunbatez, arratsaldetan
planean oi gera hasten
aita etxian utziko degu
"ETB-Kantxa" ikusten.

Bakarkako gaia:

Zu Murua, CESID-eko kide baten mikrofonoa zera.

I. MURUA

Kanpoti helduta kale erdira
egin dut lenen jauzia
mikrofonotik konta nezake
ikusten dudan auzia.
Gazte jendeak badauka Lezon
oiu eta irrintzia
baten jartzen da pintada egiten
egundoko trebezia
"Puto vasco" hoiek ez dute egingo
berak nai duten guzia.

Jasotakoa nik bidaltzen dut
airean eiten du trote
hoien artean azkarrik bada
baitare hainbat arlote.
CESID mundutik d
iotenean
omen dira monigote
zentsugabeak, burugabeak
hori erantsiko nioke
Puto-vasco esan, ta hala ere
txaloka erantzun diote.

Euskadi askatu eta librea
hala eiten dute algara
baina gu hemen hori eragozten
alegindu behar gara.
Kalean edo sede denetan
sartuko naiz behar bada
horrexegatik helburua dut
txibaketek ez akaba
Euskadi ez da ezer izango
Espa-a barruan ez bada.

Bakarkako, 2. Gaia:

Zu Jokin, Donostiako Bakearen (Usoa) eskulturan pausatu den benetako Bakearen usoa zera.

J. SOROZABAI

Doinua: Uso txuria errazu,....

Nere hiru-lau iritzi
nahi nituzke erakutsi
Len pakearen uso bat bazen
orain beste bat iritxi
guk pakearen uso ugari
eta pake gogo gutxi.

Adizu uso maitea
etorri zaizu bestea
baina pakea ez da uso bat
zuriz jantzi ta arlotea
baizikan elkar konprenditzeko
egizko borondatea.

Hegan joan naiz urrutira
Europa ta Etxe-Zurira
Jugoslavian pasiak; ere
ikaragarriak dira
hemen pakea planteatzen da
poltsikoaren neurrira.

Ofizioetan:

Zu Sorozabal 10 urte kartzelan daraman presoara zara eta gaurko bisitan Murua anaia etorri zaizu ama zu bisitatzeraz zatorrela auto istripuan hil dela esanez.

Hiruna bertso nahi duzuen neurri eta doinu.

I. Murua

1

Aizu anaia dar-dar barruan
dardaraz gainez ahoa
baina albiste tamalgarri bat
zuri ematera noa.
Ama laztanak bazuen noski
zu ikusteko gogo
baina tamalez orain hartu du
bidaia luzeagoa.

3

Egia da bai, zorigaitza da
edo eta zoritxarra
ez naiz harritzen sortaraztea
begietara negarra.
Esaerak dio, besterik ezta
ama beti da bakarra
pozik gehiena ematen zizun
hark pena eman beharra.

5

Sakabanatze ta dispertsio
hainbat ekarri herrira
ama gauz horrek, lege txar horrek
eraman du hilobira
Mayor Orejaz gogoratzea
aipatu ere ez dira
seguru nago betiko gisan
haik pozik egongo dira.

J. Sorozabal

2

Hara anaia zer moduz zaude
esanez hau egun berriz
baina tankera hartu diot nik
zerbaitetan gaizki gabiltz.
Zuk esan baino lenago hemen
igerri det hori guztiz
bera bisitan egongo baitzan
bizirik egongo balitz.

4

Nere bihotzak eta gogoak
disgusto bat badaukate
bizi zelarik ni ikusteko
bazun hainbat borondate.
Mayor Oreja eta lagunei
hauxe esan nahi nieke
semearekin naiko ez nunbait
ta bere ama hil dute.

6

Aitu arrazoi ematen dizut
hizketan hasi orduko
gure ama juanda istripuan-ta
ez det berreskuratuko.
Len esandako hoiak ez dute
guk hainbeste sufrituko
ta hau ez dute terrorismoan
biktimen listan sartuko.

7

Ez da lekunik holakoentzat
zerrenda horren kasuan
bein-betirako sartu gaituzte
baztertuaren putzuan.
Eutsi goiari, segi aurrera
amak hala naiko zuan
eta zugandik hori nai degu
herrian eta auzuan.

Gai librean:

Afari honen balantzea, edota zuen inpresioa.

J. Sorozabal

1

Ikusi da bertsolariak
zeinen langile dabiltzan
entzuleak ere formal
oso jende finan gisan.
Gure ondoko gizon hau berriz
nik ez dakit gaur zer esan
pixa egitera joateko ere
denborarik ez du izan.

3

Hara I-aki, esangoizut
ze pentsatzen ari ginen
Cesid-ena kantatzea
hain gaizki ote zegoen?
Oraindik ere ez dakigunez
nundik bearko degun irten
badaezpadare jakin behar da
denetatikan egiten.

5

Hara lagun emangoizut
oso erantzun zuhurra
ta nik hartu behar banu
horrelako lan makurra.
Aldez aurretik esango nuen
bertsoa ez dala xamurra
eta erdia egia dala
beste erdia gezurra.

I. Murua

2

Hor jardun da komunikan
ez baldin balitz bezela
hustu beharrik ez duen
zulo gabeko kupela.
Iruditzen zait Zelesek gaizki
Zelestinaren papela
nei Cesid-eko mikrofonoa
nola jarri dit bestela?

4

Andoaindarra beti izan da
erantzun finetan maixu
oraintxe're txukun asko
eman dit neri abisu.
Erantzun bera emango al zendun
lengo bertso hortan, aizu?
nei jarri orde z mikrofonota
zuri jarri izan balizu.

6

Bertsoz ase nai zituen
elkarte eta kaleak
intentzio ona zuen
gaurkoan gai-emaleak.
Onak ta txarrak, denetik joanak
gure bertsozko aleak
denak maitatzen jakin behar du
zinezko bertsozaleak.

7

Gai-jartzaile finazkua
bagendun gaurko honetan
ta gu're ez geunden oker
honen itxaropenetan.
Demostratu du badakiela
lana hartzea benetan
aste guzia pasako zuen
lau oinekin ametsetan.

Puntuka, beren gisara:

1

- I.M. - Zerbait izango dala
badala naikoa,
badala naikoa
- J.S. - Naikoa izan ote da
guk esandakoa
- I.M.- Hori ez dakigula
hor dago kakoa
- J.S. - Baina alegina izan da
berebizikoa
- I.M.- Holaxe izaten da
afalondokoa. (bis)

2

- J.S. - Hori da bertsoari
eskatzen zaiona
eskatzen zaiona
- I.M. - Serioan serio
eta broman broma
- J.S. - Gai bat arina bazan
bestia sakona
- I.M. - Batzuentzat tristura
besten zoriona
- J.S. - Gauz bat beintzat izan da
afaria ona. (bis)

3

- I.M. - Egia esan dezu
zenion bezela
zenion bezela
- J.S. - Ez dezu ba esango zuk
ados ez zaudela
- I.M. - Arrai-zopa bikaina
ta berdin okela
- J.S. - Gaurko afaria zan
ona ta itzela
- I.M. - Uste det kilo t' erdi
gizendu naizela. (bis)

4

- J.S. - Kilo t' erdi gizendu
afari batian
afari batian
- I.M. - Izan ere jan baitut
larrua betian
- J.S. - Eskerrak gero astea
hor degun tartian
- I.M.- Aizu, pixatuko naiz
etxera joatian
- J.S. - Zer esan behar dizu
harek ikustian. (bis)

5

- I.M. - Badakit ziur-ziur
esango ditena
esango ditena
- J.S. - azalduko al zenduke
entzungo dezuna
- I.M. - Porrusalda piska bat
ondoren hurrena
- J.S. - Horrekin gelditzea
litzateke pena
- I.M. - Hilabetez gutxinez
badet rejimena. (bis)

6

- J.S. - Hori entzunda grazi
egin dit benetan
egin dit benetan
- I.M.- Zergatik jarri bear zan
gaur inor penetan
- J.S. - Hau berea aitortzen
hain modu finetan
- I.M.- Koipe gehiegi daukat
sabel barrenetan
- J.S. - Ta zer gertatuko da
besteen etxetan. (bis)

Literatura

7

- I.M.- Horruntza joateko
nai zun aitzakia
nai zun aitzakia
- J.S. - Bein behar ta asmatu
degu egokia
- I.M.- Mai hori erdi hutsa
hau bete-betia
- J.S. - Ez al zan hobe batzuk
haruntza joatia
- I.M.- Autobus haundia ta
autobus txikia. (bis)

8

- J.S. - Sukaldariak hauntza
ditugu bialdu
ditugu bialdu
- I.M.- Naizta honuntza ere
gustora azaldu
- J.S. - Janaria ekartzera
hoiek honuntz heldu
- I.M.- Hoiek ere ez dituk
askorik argaldu
- J.S. - Aurrena etorri ta
azkena afaldu. (bis)

9

- I.M.- Beraz, afaltzekoan
beroiek azkena
beroiek azkena
- J.S. - Ah, ze ordaina hoiei
ematen zaiena
- I.M.- Gainera jango zuten
hemen sobran dena
- J.S. - Eta guretzat berriz
parterik onena
- I.M.- Gaur hoiek egin dute
hemen lan geiena. (bis)

10

- J.S. - Sukaldarik famatzen
ai gera pikardiz
ai gera pikardiz
- I.M.- Gauza bera esanez
gu bein eta berriz
- J.S. - Portatu dira afari
hain ederra jarriz
- I.M.- Edaria're ekarri
neurri on ta neurriz
- J.S. - hurrena etortzian
zuek lana ein berriz. (bis)

11

- I.M.- Gaur ere jardun dira
aurrera ta atzera
aurrera ta atzera
- J.S. - Goiz etorriko ziran
dana prestatzera
- I.M.- Sukaldari fin batek
oi duen antzera
- J.S. - hala ere gustora
gero joan etxera
- I.M.- orain Jokin joango da
ontzik garbitzera. (bis)

12

- J.S. - Ni etxian garbitzen
aritua nago
aritua nago
- I.M.- gaur ere bota digu
gezur bat gehiago
- J.S. - ontzik garbitu ditut
gaur baino lenago
- I.M.- begira egotea du
askoz nahiago
- J.S. - baina ez dakit garbitzen
lau baino gehiago. (bis)

- I.M.- Beraz ez da onegi
ontziak garbitzen
ontziak garbitzen
- J.S. - pila haundiarekin
enaiz atrebitzen
- I.M.- bertsotan´e ai gera
geiegi luzatzen
- J.S. - etorria degu-ta
ni enaiz harritzen
- I.M.- agur bana eginda
isildu ta guazen. (bis)

bukaerako agurra.

J. Sorozabal

Gai jartzailearekin
hainbat tira-bira
azkenerako zerbait
ein degu sikira.
Ta gero ere berriz
Lezoko herrira
bertsolariak pozik
etorriko dira
Kristo bizarrik gabe
dagoen tokira.

I. Murua

Jardunak gera elkarrizketan
lorea edo demanda
lagunartea guretzat behintzat
gogoangarri izan da.
Gure bertsoak amaitu dira
eskerrik asko emanda
beste bat arte, agur denori
orain zuena da txanda.

Besterik gabe, gabon eta eskerrik asko hemen bildu zareten guztioi eta aurrerantze-
an ere horrelako asko egin ditzagula.

*TRANSKRIBATZAILEA: AGUSTINA PONTSTA GARMENDIA
JOXE LUIX AGIRRETXE*

ANDREONEKO PLANUA

- Riin, riin, riiiiin!
- Bai, zein da?
- Joseba, hi al haiz? Lander nak!
- Kaixo Lander, zer moduz?
- Ondo, ondo, hi ere bai ezta? Deitzen dit gauza berezi bat erakutsi nahi ditelako.
- Zer duk, "LEZO" aldizkarirako egin duken artikuluren bat edo...?
- Ez, ez. Ez du holakorik. Herriko artxibo historikoa garbitzen eta sailkatzen ari niyuketen eta bat-batean planu misteriotsu batekin egin dut topo. Ezin al duk etorri? Gaur liburutegian egongo nak arratseko 8ak arte
- Bale, lanetik irten eta zuzenean joango nak.
- Ederki Joseba, gero hitz egingo diagu. Gero arte!
- Bai Lander, gero arte!


- Planu misteriotsu bat! -pentsatu nuen nire artean- Agian Lezo zaharraren berri ematen digun planua. Dena den Landerrek horrela deitzeko zerbait garrantzitsua izango da. Bera baita herriko liburuzaina eta ikerlaririk onena.

Lanetik atera eta kotxea hartuta Lezo aldera abiatu nintzen, Landerrek aipaturiko planu misteriotsua nire burutik ezin kendurik. Laister Gaintxurizketako gainean nengo. Lezo alderako desbideraketa hartu eta beherantz jeitsi egin nintzen, ezker-esku bi lezoar baserriak utziz: Gaintxurizketa, Zapatazahar, Patxikuene, Aristiberri, Apai-ziartza, Etxeberri, Gaintza, Txatxamendi, gasolindegia, Sagasti eta Uruneko industrialdeak, Urrullo, Larrezabal,... eta berehalaxe, konturatu gabe, San Pedro, Pysbe eta Zubitxoko etxeak. Lezon nengo, bidegurutzean Donibanerako errepidea hartu eta gorantz igo nintzen. Andreone, herriko kultur-etxe eta liburutegiaren parean nengoela, ezker alderantz okertu eta bertan aparkatu nuen berebila.

Egun polita zen, martxoko eguna. Zerua urdin-urdina zen, ateria, baina hotza sumatzen zen, eta kalean ibiltzeko txamarra jantzi beharra zegoen. Andreone beti bezala zegoen, zahar eta berri, bakarti eta airoxo Lezoko Kale Nagusiaren bukaeragunean. Hondarrarrizko lausez egina, eta balkoi luze eder batekin aurrekaldean. Esaten dute-

nez Blas Lezoko kortsario sanjuandarraren hondasuna izan omen zen eta gero mojen komentua, eta hortik omen datorkio herriak emandako izena: Andreone (andre onen etxea alegia). Bere oinetan Lezoko kaia, gaur guztiz industrialala eta esportaziorako autoz beteta, garai batean untxiola famatua izan zena.

Haizeak inguruko zuhaitzen hostoak kulunkatzen zituen eta garai zaharretako oihartzuna zekarren nire gogora. Ate aurrean nengoen. Goialdean hiru armari egurrez eginak: Lezokoa erdian, eta "Zazpiak-bat" eta "Arrano Beltza" ezker-eskubi. Barrura sartu eta ezkerreko atea bultzatuta liburutegira barneratu nintzen. Barruan, sei edo zazpi gazte irakurtzen eta euren lanak egiten eta Lander bere mahaiko ordenagailuan lanean, jo ta ke, beti bezala. Ez zen nire etorreraz ohartu. Hau beti bezala lanean! –pentsatu nuen nire barrurako– eta berrangana hurbilduz agurtu egin nuen.



Hauxe da Andreone zaharra, jauregia hasieran, komentua ondoren eta orain kultur-etxea dena.

– Kaixo Lander! hemen nak, telefonoz esana bezala.

– Kaixo Joseba, hire zain nioken. Banekiken etorriko hintzala, baina ezin egonez nioken. Ez haiz ideiarik egiten, zer aurkitu dudan –esan zidan oraingo honetan ahotsa jeitsiz liburutegian zeuden gazteek entzun ez zezaten–

– Zer aurkitu duk ba? –esan nion harridura handi batez beterik–

– Laister erakutsiko dit, baina itxon tzak bost bat minutu, zortziak arte, orduan liburutegia ixteko ordua izango duk eta bakarrik egonda lasaiago erakutsiko dit. Berdin zaik ezta?

– Bai, bai Lander, lasai ibili horregatik. Bitartean hemen egongo nak, bertako liburak eta aldizkariak kuxkuseatzen.

Esan eta egin. Lander pakean utzi nuen bere ordenagailuko lana egiten eta tarteka bertan zegoen jendea atenditzen, eta mihaketa lanetan murgildu nintzen. Lezoko liburutegia arras interesgarria iruditu zait beti, baina Aitor dezadan egun hartan planu misteriotsu haren berri edukitzeko zain nengoela, oraindik askoz interesgarria iruditu

zitzaidala. Han zeuden Trapujaleren ipuinak eta Zabarre piratarenak nahasirik, Patri Urkizuren liburuak eta "LEZO" eta "ORRATX" aldizkariak pilaturik LEZOKO TXOKOA deitzen den apalategian. Barnegogoetan murgildurik nengoela Landerren ahotsa entzun nuen.

– Barkatuko didazue, baina ixteko ordua da!

Bertan irakurtzen ari ziren gazteak altxatu eta euren gauzak gordetzeari ekin zioten. Txamarrak hartuta laister kanporatu ziren. Landerrek kanpo aldeko atea giltzatu eta bere mahaira hurbiltzeko keinua egin zidan. Beheko kajoia ireki eta atzamar urdurien artean paper zahar-horitua atera zuen.

– Ikusi Joseba, begira zak ongi! –eta hau esanez bere mahai gainean ipini zuen–

Zaharra zen oso, eta ukitzen zen bakoitzean zatiren bat erortzen zitzaion, oso egoera kaxkarrean baitzegoen. Hori-horitua zen, eta bere baitan, denborak ezabatutako marrak, marrazkiak eta testu laburrak irakur zitezkeen oraindik. Lehenengo begiratuaz, Lezoko Gurutze Santua, Zilargilene, Puntterre, eta... Bortalaborda irakurri ahal izan nituen. Azken izen hau irakurtzean harritu egin nintzen eta.

– Bortalaborda ipintzen dik, garai bateko untziola. Planu hau ez duk oso berria izango e?

– Ez motel, 1739koa da. Hor beheko aldean data ipintzen dik, baina irakurtzat egi-learen sinadura –papera nire begien aurrera gehiago hurbilduz–

– Blas Le..., le..., le... ez dit ongi ikusten. Zer jartzen dik hemen?

– Blas Lezoko –esan zuen Landerrek solemnitete handiz–

– Blas Lezoko, kortsario sanjuandarra?

– Bai, berbera.

– Hau duk hau egin duken aurkikuntza baliotsua!

– Bai motel, baliotsua oso, baina ez bakarrik hik pentsatzen dukenangatik.


– Zer esan nahi duk?

– Jakingo duken bezala Blas Lezoko Mendebaldeko Indietan ibili izan yuken, eta zurrumurruek beti esan dutenaren arabera, hango indioei lapurtutako urre, zilar eta harbitxiez osaturiko altxor handia ekarri omen ziken Euskal Herrira. Baina zurrumuru huez aparte, inork ez dik ezer gehiago jakin balizko altxor honi buruz.

– Eta zergatik ateratzen duk orain ixtorio zahar hori?

– Begi aurrean duken planu zahar hau, altxorraren berri ematen duen planua delakoz.

– Zer? zer diok Lander?



Holakoa zen XVIII. mendean Pasai Donibane eta Lezora eramaten zuen badia.

– Aditu dukena. Beizak ongi!

Landerrek belarri gainean zuen arkatza hartu eta planuan seinalatuz honela esan zuen:

– Ikusten al duk hau? Gurutze Santuaren ermita duk, eta Zilargilene izeneko hau Zabarre edo Koartela aurretik pasatzen den bidexkaren izen zaharra. Gezi honek Bordalaborda untxiola zaharrerantz garamazkik, eta iparraldera zuzentzen den beste gezi honek altxorraren tokira joateko bidea erakusten ziguk. Bere ondoan azaltzen duken 25 hori, kontatzeko pausuak ditu eta urrezko dukate zahar honek altxorraren kokapena adierazten ziguk zehazki.

– Baina, baina... eta guk zer egiten diagu hemen geldirik. Iluna zioke baina joan beharko diagu. Ez al zaik iruditzen?

– Nik planuari jarraitu zioat eta egondu nak markatutako tokian

– Bai? eta zer aurkitu duk?

– Deus ere ez. Askotxo bilatuta, sasi arteko zulo baten sarrera, ez besterik. Makurtuta sartu behar izan niyuk. Iluna ziokeen oso, eta busti-bustia... Utzi behar izan niken beste baterako. Horregatik deitu dit.

– Bai ni prest niok. Nahi dukenean jaongo gaittuk.

– Nik dagoeneko materiala erosi dit, plastikozko arropa, sokak eta linterna ona. Nire ustez joateko egunik onena etzi izango duk, ostirala baita, eta jende gutxiago ibiliko baituk aieka hauetan. Onena zitekek ilunabarrean, 8.30ak inguruan, ni lanetik ateratzen naizenean. Zer iruditzen?

– Primeran, dena-den zerbait asmatu beharko diagu etxerako.

– Nik Arantzari Tiñelun afari bat dudala esango zioat.

– Ez duk aitzaki txarra. Gauza bera esango zioat Begoñari.

– Bueno bat, etzi arte! 8.30etan Lezoko plazan, udaletxeko arkupeetan bilduko gaittuk. Ordurarte! A Joseba, ez ahaztu oinetako onak ekartzen, mendiko botak edo halako zerbait.

Osteguna igaro zen, eta ondoren ostirala etorri. Klaseak eman nituen, beti bezala, eta ilunabarrean mendiko botak ezkutuan kotxeko mailetontzian sartu eta Lezora joateko prestatu nintzen.

– Ondo pasa afarian! –esan zidan Begok– eta kontuz ibili edaten duzunarekin! –gehitu zuen gero–

– Bai lasai, ez dut askorik edango, afaltzeko behar adina, ez besterik. Gero arte!

Goiko Plazan, Bikarione aurrean aparkatu, zapatak erantzi eta botak jantzi, eta Jorgeren kiosko aldetik pasatuz, eskubiko eskaileratik jeitsi nintzen beheko plazara. Zortziak eta laurden ziren, goiz samar, baina zegoeneko Landerren itzal luzea kontzejupeko arkupeetan ikus zitekeen.

– Kaixo Lander, ondo al gaittuk?

– Bai fitxatuberria niok eta dagoeneko libre. Joango al gaittuk?

– Bai goazen!

Gurutze Santuaren Plazatik Kale Nagusira abiatu ginen. Ezkerraldean Ganboa Nagusi izeneko etxea utziz kai alderantz jeisten den bidexka hartu (garai batean Zilar-gilene deitu izan dena) eta Ganboattiki eta Zabarre igaroz Polentzarreneko ibilbiderantz zuzendu ginen. Landerrek poltsa handi bat zeraman eta barruan plastikozko arropak, sokak eta linterna. Polentzarrenetik ixil-ixilka gora abiatu ginen, Andreone atzean utzi eta berehala dagoen bidezigor batetik kai aldera jeitsi ginen. Hortik barrerena gorago, Bordalaborda izeneko untxiola egon zen tokiraino.

– Hementxe Joseba, hemen zioken untxiola!

- Pixka bat gehiago eta Donibaneraino motel!

- Bai, jakingo duk garai batean Bizkai auzoa Lezokoa izan zela?

- Bai garai batean!

- Beizak, ha duk zuloa, ota eta osinen artean zio.

- Hori al duk? Ez dik kobazulorik ematen, eta sarrera aldean mokordo ederrak zioztek gainera.

- Bai, hemendik jendea ibili duk, baina dirudienez inori ez zaiok iruditu kobazuloa denik, zulotxo bat, besterik ez.

- Beno, hori ikusiko diagu behin sartuz gero, ziur aski barruan ez baituk dagoeneko ezer izango.

- Hik hala uste? zuloa izugarri estua duk eta agian ez duk inoiz inor sartu. Nik hala espero dit behintzat.

- Bai estua duk e, hi sartuko haiz Lander, baina niri ederki kostako zaidak.

- Jantzi gaitezen plastikozko arropa hauekin! -poltsatik berde koloreko galtzak eta txaketak atereaz-

Zuloko sarreran erantzi ginen, gure arropak poltsan sartu eta plastikozko arropak janti egin genituen. Landerrek linterna piztu zuen eta soka sorta burutik sartuta barrena abiatu zen.

- Goazen Joseba!

- Bai, goazen!

Eta honela sartu ginen zulo hartan. Batzuetan makurka, arrastaka bestetan, aurrera jarraitzen genuen. Hamar bat minutu egin genituenerako, buztinaz eta lokatzaz beterik ginen. Eskerrak plastikozko arropa hauei! -pentsatu nuen nire artean- Bat-batean amildegi sakon batekin topo egin genuen. Kontuz, hemen bukatzen duk bidea! Kristoren zuloa zio! -esan zidan Landerrek eskuan zeraman linternaz zulo hondoa ikusi nahian zebilen bitartean-



Aurrera mutilak! hauxe zen euskal kortsarioek borrokarako erabiltzen zuten garrasia.

– Hau duk zuloa hau! –erantzun nion hondoa ikusi nahian begiratzen nuen bitartean–

Landerrek harri koxkor bat jaso zuen lurretik eta zulora jaurti zuen. Segundu batzuk beranduago –tzanpa!!!– aditu genuen.

– Ura zioz behean, baina soinuagatik ez zirudik gehiegi dagoenik. Gainera ez dik ematen horren sakona denik. Jeitsiko gaittuk!

– Erotu al haiz! Ezkonduta gaittuk. Ni bi mutikoaren aita nak eta hik ere hirea baduk etxean zain. Zer nahi duk umezurtz utzi ala?

– Honeraino, planua eta guzti, etorritz gero, ez gaittuk orain esku hutsik itzuliko. Jeitsi beharko diagu bada!

– Arrazoia duk, baina hi lehenengoa. Ni atzetik jeitsiko nak.

– Ados!

Soka mutur bat hango harkaitz batean irmoki lotu genuen eta beste muturra amildegira bota genuen. Lander tinko helduta, jeisten hasi zen, nire begi bistatik osoki desagertu zen arte. Goitik begiratuta, linternaren argia besterik ez nuen ikusten. BILDURTU NINTZEN eta ozenki garraisi egin nion:

– Landeer! ondo al hagooo?

Erantzunik lortu baino lehen oihartzunak nire hitzak errepikatu zituen:

– Landeer! ondo al hagooo?

– Baiii, ondo nioook! Hemen bideak segitzen dik. Jeitsiiii!

Aitarena egin nuen, eta gehiegi pentsatu gabe –a zer erremedio! zer egin behar nuen bestela nik hor, bakarrik eta linternarik gabe– soka heldu eta jeisteari ekin nion. BILDURRAK arnasa eragozten zidan eta kakalarria galtzetan sentitzen nuen. Beste biderik ez nuenez, jeisten segitu nuen. Minutu batzuk ondoren pareta erdian zegoen beste zulo baten sarreran nengoen, eta han zegoen Lander nire zain.

– Hemendik Joseba!

– Bai hobe duk, bestela...?

Bidea zabala zen eta burua makurtu gabe ibil nintekeen, ez Lander ordea, lepoa makurtuta ibili behar baitzuen. Zerbaiteko balio behar zidan ttikia izateak! –pentsatu nuen–.

Hamabost bat minutu egin genituen bide hartan eta ondoren zabalera handi batera iritsi ginen. Goiera handikoa zen, eder-ederra, nonnahi harrinigarrak, estalaktitak eta estalagmitak alegia. paretak zuri-zuriak ziren, zuriak eta arrunt diztiratsuak, bolizkoak ziruditen. Txoko batean hamabots bat kutxa zeuden, zabalik, inolako serrailarik gabe. Eta beraien inguruetan hamaika gauzaki pilatuta: harbitxiz jositako burua zuten ezpatak, urrezko edota zilarrezko kopak, korazak, era guztietako armak eta tresnak,... eta kutxetan urrezko dukate pilak, dobloiak, metal finezko pitxiak, era guztietako eraztun,

eskumuturreko, belarritako eta lepoko balio-
tsuak. Gauza horiek guztiek dir-dir egiten zuten,
metal noblez egindakoak baitziren. Han ziren
aberastasunak! Hura zilar eta urre pila! Gu tonto-
turik bezala gelditu ginen, hura espero genuena
baino askoz gehiago baitzen. Gure atzamar
dardartiek urrezko txanpon bat hartzen zuten,
segituan uzteko eta bere orde zilarrezko kopa
bat hartzeko. Hura ikaragarria zen, eta gure
begiak ez ziren nekatzen guzti hura ikustatu
nahian.

Harekin bukatu ziren gure penak. Etxea
ordaindu, zorrak kitatu eta aberatsen modura
bizi, besterik ez genuela pentsatu nuen bortizki.
Landerrek gogoeta bera edukiko zuela iruditu
zitaidan. Bietako inork ez zuen ahoa zabaltzen.
Gure ixiltasunak hitz guztiek baino askoz gehia-
go baitzioten. Halako batean Lander makurtu
egin zen eta kutxa batetik larru biribildu moduko
bat atera zuen. Lokarri more batez loturik zego-
en. Lokarria askatua eta larru biribildutik perga-
mino bat atera zuen. Irakurtzeari ekin zion.

– Zer jartzen dik? Ulertzen al duk?

– Bai euskaraz idatzita zio, grafia zahar batean, baina ulertu egiten dit! –eta hauxe
esaten zidan bitartean, poliki baina ozenki irakurtzeari jarraitu zion–

“Aushe da Blas Leçoco Olabarrieta capitañaren alchorra, mundu
berrian eguiña. Baña ez penchatu erras eguin nuenic. Guçti au
biltçeco jentea il behar içan bainuen, il eta ebatçi ondoren. Onela
ibilli nintçen amaica ichasoetan barrena aberastasunac metatçen,
Oranen eta Indietaco Cartagenan. Asquenian nire escutan nuenian,
açaldu çen laincoaren madaricaçioa. Gaitça icaragarriac eraman
çituen nire senideac eta adisquidiac, geien maitatçen nitunac. Zori-
gaitça nire atçetic zebillela çirudien, 1700 inguruan ancamotoç gel-
ditu nintçen borroca batian, 1707an begui bat galdu eguin nuen eta
1714an escuiñeco besoa. Eta ordun etçituric, onera ecarri nitun,
inorc inoiz icusico ez zituen lecura. Casualitate batez, baten batec
aurquitcen baditu, oroitu deçala alchor onec laincoaren madari-
caçioa duela lagun. Obe du betico emen gorderic uztea, gaitçac
min eguin ez diezaion. Aushe da nic, Blas Leçoco capitain zorigaiç-
tocoac ematen dion consejua. Ez aaztu nire itçac, ez baitut au alfe-
rric esaten.

Gure Iesuchristo launaren 1739garren urtian”



*Blas Lezoko Olabarrieta kortsario
sanjuandar ospetsua eta Andreone
etxeke nagusia*



◀
Eta berriro Lezoko kasko aldera. Ixilik egin genuen bidea eta konturatzerako plazan ginen.

Behin irakurri ondoren Lander eta biok ixildu ginen. Honela egon ginen bi edo hiru minututan. Azkenean nik hitz egin nuen.

– Ederra duk hau Lander, holako altxorra aurkitu eta Tutankamonena baino mada-rikazio handiagoekin gainera!

– Bai Joseba. Hau ez duk txantxetakoa. Hik lehen gogoratu didaken bezala, ezkon-
duta gaudek eta aita gaittuk. Etzekit honen berri emateak merezi ote duen.

– Ez inori berri eman, eta ez ezer eraman hemendik. Poltsikoan sartuta altxor honen
gordailua den gaitza eraman baitezakegu.

– Egia. Ez dik merezi –eta patrikatik Andreonen aurkitutako planu zaharra aterez
hamaika zatitan txikitu zuen–

– Hobe diagu, horrela inor ez baituk inoiz tentaziotan eroriko! –gaineratu zuen–

Penaturik baina konforme itzulerako bideari ekin genion. Berrogei minututan kan-
poan ginen. Plastikozko arropak erantzi eta kalekoak jantzi,... eta berriro Lezoko kas-
ko aldera. Ixilik egin genuen bidea, eta konturatzerako plazan ginen.

– Zer Lander kafetxo bat hartuko al dugu Aizpean edo Satsan?

– Ez, ez Joseba, ez zekat ezertarako gogorik. Etxera niek. Agur beste batean egon-
go gaittuk!

– Bai agur! Gau on pasa!

Eta zuri, irakurle horri, hemen azaldutakoak jakinnahia edo aberasteko grina piztu
badizu, hobe duzu den-dena ahaztea eta Bordalabordako altxorraren zulora daraman
sarreraren bila ez ibiltzea, baldin eta ez baduzu nahi gaitzak eta zoritxarrak zu eta zure-
ak eraman zaitzateten!

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

PATXILLABORDAKO JUAN JOXE



- Zortzi urte igaro dira
gure artetik joan zinenez geroztik.
Zortzi urte luze eta labur,
denbora ezin baita soilik
erlojuaz eta egutegiaz neurtu,
bihotza eta oroimena, nolabait ere,
neurtzaile baititugu.


- Joan zinen
gutxiago itxaro genuenean,
Joan zinen
biziak irripar
egiten zizun tenorean.

- Patxillabordan zure hutsunea
sumatzen dute,
goizero, arratsaldero, gauero,
momentu oroz...
Eta baita guk ere,
zurekin koadrilan ibilitakook.

- Joan zara gure artetik,
apaltasunez, umiltasunez, lasaitasunez,
gure artean bizi izan zinen bezala,
horregatik gogoratzen zaitugu
xamurtasunez eta maitasunez,
zu gure artean beti izan baitzinen
Patxillabordako Juan Joxe.

JOSEBA

ARRIAUNDIKO JUAN JOXE LIZASOREN OROIMENEZ



Eztizko malko mingotsa
darie eultzetako
erregin bakarti babestuei,
gelditu da joan-etorri
etengabea, ixildu aztoramenduaren
orroea une batez,
erregearen esku amultsurik ezdager
gaur, ezti lirdinga mehea bailitzan
eten da bart haren haria.
Euskal beltxaren deiari adi,
ez izatetik izatera eta izatetik
betikotasunerako hegaldia
abian da naturaren baitan,
Jaizkibelgo mazeletan,
Arriaundiko zelaietan,
lurretik lorera eta loretik erlera
doan mezua eultza nagusiko zereginei
lot gakizkien:

Banakoak dakar osotasuna
eta osotasunak damaio izena eta izana
banakoari.


* * *

Joan zen otsailaren 18an zendu zen Juan Joxe Lizaso Arrastua, Arriaundiko semea. Erlezain eta euskaltzale aparta, zernahitarako beti gertu, herriaren maitale eta gure hizkuntzaren defendatzaile sutsu. Zurekin bizi izan dugunarengatik mila esker Oroitze-ne AEK euskaltegiaren eta Orratx! Kultur Elkartearen izenean.

JOXE LUIX AGIRRETXE

LEZO
KATALOGOA

AGUSTINA PONTESTA GARMENDIA




AURKIBIDEA

1. - 20. ZENBAKIRAORRIA


ATALAK 117, 121, 126, 132, 135, 137, 145, 147, 150, 154, 160

IDAZLEAK 154



ATALAK

- GIZARTEA.....	126
- HISTORIA	117
- HITZAURREA	117
- INGURUGIROA: EKOLOGIA	135
- KULTURA	121
- LITERATURA	137
* ANTZERKIA	147
* BERTSOA.....	145
* IPUINA	150
* NARRAZIOA	150
* OLERKIA	147
- SAIAKERA	132
- LEZO ALDIZKARIA 1988-2000 (KATALOGOA)	111



HITZAURREA

* Agurra/Saludo MIKEL ARRIZABALAGA PIKABEA	1. zkia.	1 or.
* Hitzaurrea/Editorial	1. zkia.	2-3 or.
* Hitzaurrea/ Editorial	2. zkia.	1 or.
* Hitzaurrea/Editorial. "Lezo" ..KULTUR ALDIZKARIA..UDALETXEA	3. zkia.	1 or.
* Kultur Batzordearen adierazpena/Dos palabras por parte del "Kultur Batzordea" ASKAGINTZA	4. zkia.	3-4 or.
* Hitzaurrea. LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA	7. zkia.	7 or.
* Hitzaurrea. LEZOKO ELKARTE KOORDINAKUNDEA	8. zkia.	9 or.
* Hitzaurrea/Editorial LEZO ALDIZKARIA	9. zkia.	9 or.
* Hitzaurrea/Introducción LEZO ALDIZKARIA.....	10. zkia.	9-11 or.
* Hitzaurrea	11. zkia.	9 or.
* Sarrera. LEZO ALDIZKARIA	12. zkia.	9 or.
* Sarrera.....	13. zkia.	9 or.
* Hitzaurrea. LEZOKO ELKARTEKO KOORDINAKUNDEA	14. zkia.	9 or.
* Hitzaurrea/Prólogo. LEZOKO ELKARTEKO KOORDINAKUNDEA	15. zkia.	9 or.
* Sarrera.....	16. zkia.	9 or.
* Hitzaurrea	17. zkia.	9 or.
* Sarrera.....	18. zkia.	5 or.
* Hitzaurrea. LEZO ALDIZKARIAREN ERREDAKZIO BATZORDEA	19. zkia.	5 or.
* Hitzaurrea	20. zkia.	5 or.

HISTORIA

* San Joan Bataiatzailea. J.L.APERRIBAY.....	1. zkia.	4-5 or.
* Lezo en la Historia. LEANDRO SILVAN	1. zkia.	6-11 or.

* Del lugar de Lezo, de su nombre, antigüedad, privilegios, astilleros reales y santuarios. LOPE MARTINEZ ISASI.....	1. zkia.	17-19 or.
* .A solidaridade de Castelao con Euskadi. X. ESTEVEZ	1. zkia.	22-23 or.
* Lezo, Victor Hugok idatzia. J.L.APERRIBAY	1. zkia.	24-28 or.
* Otras efemérides históricas de Lezo. LEANDRO SILVAN	1. zkia.	32-35 or.
* Lezo itsasoaren aurrean. ZABARRE	2. zkia.	3-4 or.
* Lezo según Gorosabel GOROSABEL	2. zkia.	5-6 or.
* Lezok aldameneko herriekin izandako harremanak. K. ETXEZURIETA	2. zkia.	7-8 or.
* Joan Iñazio Iztueta eta Lezo. KARLOX BARRENTSORO	3. zkia.	3-4 or.
* Pildain, un vasco de cuerpo entero, Lezo, Patria y cuna. AGUSTIN CHIL ESTÉVEZ	3. zkia.	5-7 or.
* Lezo-Haundia eta aintzinako beste linaje Lezoarren inguruko gertakizunak. KARLOS ETXEZURIETA	3. zkia.	8-9 or.
* Korsua, arrisku handiko iharduera. LANDER ZURUTUZA	4. zkia.	7-11 or.
* Una breve visión histórico-geográfica de Jaizkibel. NIKOLAS ALBIZU	4. zkia.	12-15 or.
* Breve historia de Lezo. JOANES ETXEBERRIKO ZENBAIT IKASLE	4. zkia.	16-18 or.
* Gaztelako almirantea. LANDER ZURUTUZA	5. zkia.	7-8 or.
* Lezo según Victor Hugo. VICTOR HUGO. "LOS PIRINEOS"	5. zkia.	9-13 or.
* Armada garaiezina eta Lezo. JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN	5. zkia.	14-16 or.

* Gaskoiak Lezon eta Oiarsoko bailaran. JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN	6. zkia.	7-14 or.
* Los orígenes de Lezo. NIKOLAS ALBIZU	6. zkia.	15-22 or.
* Lezo hace doscientos años. J.I.TELLETXEA IDIGORAS	6. zkia.	23-26 or.
* En torno a una placa.Viva la Diputación, vivan los Fueros. RAFA BANDRES	6. zkia.	27-29 or.
* Salteador de caminos en Gaintxurizketa. LANDER ZURUTUZA	6. zkia.	30 or.
* Oiarso Harana eta Lezoren sorrera. KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA "GAINTZA"	7. zkia.	9-11 or.
* Frantsesak, briganteak eta Placido de Urrestarazuren mozkorraldia. LANDER ZURUTUZA	7. zkia.	12-13 or.
* La Universidad de Lezo. JULIAN MARTINEZ RUIZ.....	7. zkia.	14-19 or.
* San Joan Bataiatzailea elizaren aldi historikoak. JOSE LUIS APERRIBAI.....	7. zkia.	20-21 or.
* Atzerrian eta itsasoan hildako lezoarrak, 1638-1850. LANDER ZURUTUZA	8. zkia.	13-22 or.
* Gaitzak eta izurriak XIX. mendeko Lezon. ERNESTO GUARDIOLA	8. zkia.	23-26 or.
* Lezoko sagardogintzaren akabera. LANDER ZURUTUZA	9. zkia.	11-14 or.
* 1911: Amorrua Lezon. Zenbait kasuren berri emanaz. ERNESTO GUARDIOLA	9. zkia.	15-18 or.
* Miguel de Iturain pilotua. LANDER ZURUTUZA	10. zkia.	13-14 or.
* Lezo Urreiztieta kontrabandista abertzalea. KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA	10. zkia.	15-17 or.
* Lezo Bigarren Karlistadaren garaian . KARLOX BARRENTSORO	11. zkia.	11-15 or.

Katalogoa

- * Lezo eta Santiagoko bidea.
LANDER ZURUTUZA12. zkia. 11-13 or.
- * Isasti, Gaintza eta Otsoa lezoar seme ospetsuak.
JOSEBA ZABARREKO12. zkia. 14-16 or.
- * Balearen arrantza. Lope Martinez Isasti eta Joanes Lezoko.
JOSEBA AURKENERENA13. zkia. 11-22 or.
- * Soldadu frantses bat Lezon.
LANDER ZURUTUZA13. zkia. 23-24 or.
- * Lezoko sorrera, pertsonaiak eta sinboloak
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN14. zkia. 11-17 or.
- * Martin Arpidekoa.
LANDER ZURUTUZA14. zkia. 18 or.
- * De lo que sucedió en la plaza de Lezo luego que
voló un proyectil.
THOME SANCHO14. zkia. 19-20 or.
- * Sorginak, inkisizioa eta Lope Martinez Isastiren txostena.
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN15. zkia. 11-19 or.
- * Lezoko Badia.
LANDER ZURUTUZA15. zkia. 20-21 or.
- * Orreagako gatazka.
JOSEBA AURKENERENA16. zkia. 11-14 or.
- * Lezoko zenbait gertaera eta beste.
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN17. zkia. 11-14 or.
- * Marc Legasse eta Lezo.
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN18. zkia. 6-12 or.
- * Lezoandiko Jaunaren hilketa.
LANDER ZURUTUZA18. zkia. 13-17 or.
- * 1936ko gerra gure bailaran.
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN19. zkia. 7-13 or.
- * Lezo herriaren sorrera errealitatea ala zientzia-fikzioa?
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN19. zkia. 14-16 or.
- * Las cosas en su sitio: El "Agur Jaunak" nació en Lezo.
RAFA BANDRES19. zkia. 17-19 or.

- * Lezo frantses eta espainolen arteko gerretan.
 JOSEBA AURKENERENA20. zkia. 7-11 or.
- * En las navidades de 1977: El derribo de las casas de
 Alzate-Berri y la recuperación del Batzoki por el P.N.V.
 RAFA BANDRES20. zkia. 12-13 or.
- * LEZO Aldizkaria 1988-2000 (Katalogoa)
 AGUSTINA PONTESTA GARMENDIA20. zkia. 111-160 or.

KULTURA

- * Lezotarrak gerraurrean.
 PATRI URKIZU1. zkia. 20-21 or.
- * Trapujale edo Lezoko lhauteri jaioberria.
 JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN1. zkia. 29-31 or.
- * Lezoko etxe zaharren izenak.
 ZABARRE1. zkia. 36-39 or.
- * Lope Martinez Isastiren atsotitz bilduma.
 KARLOX BARRENTSORO1. zkia. 47-50 or.
- * Euskal Herriko laminak.
 KARLOX BARRENTSORO1. zkia. 65-66 or.
- * Lezo izenari buruzko zenbait datu eta burutazio.
 JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN2. zkia. 16-17 or.
- * El casco urbano de Lezo y sus principales edificios.
 LEANDRO SILVAN2. zkia. 18-20 or.
- * Lezoar sorgin munduaren oroimen bizia.
 JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN2. zkia. 21 or.
- * Trapujale, Lezoko lhauteriaren ardatza.
 JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN2. zkia. 22 or.
- * Inventario de libros, privilegios, pleitos y demás
 papeles pertenecientes a esta Universidad
 de Lezo existentes en su archivo Año 1.763
 LANDER ZURUTUZA2. zkia. 23-25 or.
- * Gaskuñako euskal toponimiaren bila.
 ZABARRE2. zkia. 26-28 or.

Katalogoa

- * Los molinos de Lezo.
ANTXON AGIRRE SORONDO.....2. zkia. 29 or.
- * Gaurko lezoar aldizkarigintza.
ZABARRE3. zkia. 14-16 or.
- * Lezoko kale izendegiari buruzko zenbait adierazpen.
JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN3. zkia. 17-19 or.
- * Lezoko Santo Kristoren eleizatxoa/ La Capilla del Santo Cristo de Lezo.
FRANTZISKO LOPEZ ALEN3. zkia. 20-21 or.
- * Lezoko lhauteria.
JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN4. zkia. 29-33 or.
- * Tomas Garbizu, lezoar konpositore haundiaren omenez.
KARLOX BARRENTSORO4. zkia. 34-37 or.
- * Gran Fiesta en Lezo.
M^a ELENA ARIZMENDI4. zkia. 38-39 or.
- * Kalaka aldizkaria.
ZIGOR OIARTZABAL. IZASKUN ETXEBESTE.
MIKEL BERGARA.XABIER GOIA.....4. zkia. 40-42 or.
- * Patri Urkizurekin solasean.
JOXE JUAN UGALDE ORDOKI5. zkia. 31-37 or.
- * Ha muerto D. Tomas Garbizu Salaberria.
JOSE LUIS.ANSORENA MIRANDA5. zkia. 38-40 or.
- * Elias Salaberria Intxaurrendieta, pintor, primo hermano del músico Tomás Garbizu Salaberria: Dos grandes figuras en un pueblo pequeño.
RAFA BANDRES5. zkia. 41-44 or.
- * Gure etxeetako izenak.
JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN5. zkia. 45-47 or.
- * Breve resúmen del Arte en Lezo.
ALUMNOS DE "JOANES ETXEBERRI"5. zkia. 48-49 or.
- * Lezoko kultur eta kirol elkarteak.
REXU MAZUSTA.....5. zkia. 50-56 or.
- * Lezoko jai eta kultur egutegia.
JOSEBA PRESENTACIÓN BARANDIARAN6. zkia. 70-77 or.

- * In illo tempore. La romeríade Lezo.
MARTZELINO SOROA6. zkia. 78 or.
- * Garbizu anaiak: Zubigar, Iruzubi eta Tege.
PATRI URKIZU ETA PATXI INTXAURRANDIETA 6. zkia. 79-83 or.
- * Elias Salaberria, maestro en Guipuzcoa y pintor vasco .
JULIAN MARTINEZ RUIZ.....6. zkia. 84-91 or.
- * Polentzi Gezala: Txistuaz mundua liluratu duen lezotarra.
JOXE JUAN UGALDE ORDOKI6. zkia. 92-97 or.
- * Tomas Garbizuren ekarpena Eliz kantutegian/
Aportación de Tomas Garbizu a la música religiosa.
EUSTASIO ETXEZARRETA6. zkia. 98-102 or.
- * Don Tomas Garbizu: Su vida y su obra.
"TXISTULARI" ALDIZKARIA 1346. zkia. 103-114 or.
- * Lezoar herri musikariei buruzko berriak artxibategi zaharrear.
KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA7. zkia. 45-47 or.
- * Conservatorio de Música de Lezo.
"FISTUKA-1"7. zkia. 48-59 or.
- * Doctor Gaintza, Irungo Herriaren Historizalea.
MANUEL LEKUONA7. zkia. 60-65 or.
- * Algunos personajes lezotarras relacionados con la música.
"FISTUKA-1"7. zkia. 66-68 or.
- * Garai bateko bertsolariak Lezon.
KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA8. zkia. 33-36 or.
- * Elias Salaberria oroitaldiaren ondoren zer?
ANDONI TREKU8. zkia. 37-38 or.
- * Lezo izenari buruzko teoriak.
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN9. zkia. 41-44 or.
- * Oroitzene A.E.K. Euskaltegiak urte bat bete du..
OROITZENE SORGINA9. zkia. 45-46 or.
- * Paretak mintzo- idazkeraren historiari gainbegirada.
IÑIGO ETXEBESTE10. zkia. 37-41 or.
- * Hablando de radioaficionados en Lezo.
XAXIKO10. zkia. 42-44 or.

Katalogoa

* Arrakasta baten nondik norakoak: Korrika 8.		
LEZOKO KORRIKA BATZORDEA	10. zkia.	45-46 or.
* Lezo aldizkariak bost urte bete.		
LEZO ALDIZKARIA.....	11. zkia.	33-35 or.
* Lezoarrak argazkitan: 1927-1936.		
JOXE MIEL TREKU.....	11. zkia.	36-49 or.
* Zabarre festa.		
ZABARRE GAZTE TALDEA	11. zkia.	50 or.
* Lau lezotar dantzarik, postu bikainak.		
GARBIÑE OLAIZOLA	11. zkia.	51-52 or.
* Zein arraio ote zen Joannes Etxeberri hori?		
IÑIGO ETXEBESTE	11. zkia.	53-54 or.
* Mendekozte jaiak Lezon.		
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN	12. zkia.	17-21 or.
* Lezotar Musikariari: Tomas Garbizu Salaberria.		
RAFA BANDRES	12. zkia.	22-23 or.
* Trapujale Herri Antzerkia.		
LEZO ALDIZKARIA.....	12. zkia.	24-25 or.
* Lezo Aldizkaria cumpli3 cinco a3os.		
LEZO ALDIZKARIA.....	12. zkia.	26-28 or.
* Lezo Aldizkaria, Inkesta/Encuesta.		
LEZO ALDIZKARIA.....	12. zkia.	29-30 or.
* La voz de las ondas.		
RAUL GIRALDES	12. zkia.	31-32 or.
* Asociación Cultural Juvenil Lezo.		
NEKANE ETXEBERRIA.....	12. zkia.	33-34 or.
* Joxemiel Barandiaran: hilarri baten inguruko burutapenak.		
IÑIGO ETXEBESTE	13. zkia.	25-31 or.
* Zabarrek Lezoko herriari.		
ZABARRE GAZTE TALDEA	13. zkia.	32 or.
* Aitor del Teso: Isipuak jostailu.		
JOXE LUIX AGIRRETXE	13. zkia.	33-37 or.

- * Experiencias piloto en AEK de Lezo.
OROITZENE A.E.K. EUSKALTEGIA13. zkia. 38 or.
- * Singelak bilduz - Coleccionando singels.
J.L. EGIA13. zkia. 39-40 or.
- * Ibilaldi erregulatua haurtxoentzat.
ARTZAI14. zkia. 21-22 or.
